

JOXE AZURMENDI

**NAZIONALISMO / INTERNAZIONALISMO
EUSKADIN**



HORDAGO

JOXE AZURMENDI

**NAZIONALISMO/INTERNAZIONALISMO
EUSKADIN**



HORDAGO

PUBLIKAPENAK
PUBLICACIONES

Plaza Guipúzcoa 11-1.º - Donostia
Tel. 429127 - 429128

JOXE AZURMENDI

NACIONALISMO INTERNACIONALISMO
EUSKADIN

© HORDAGO, S. A.
Edita: EDITORIAL LUR (Plaza de Guipúzcoa 11 - 1.º, Donostia)
ISBN 84-7099-131-0
Depósito Legal: S. S. 632/79
Impreso en Itxaropena S. A. - Víctor Pradera, 2 - Zarauz

MARTXO 27

Hirugarren apunteok ere ageri-agerian daukate, aspalditxokoak direla. Aurreko "PSOE eta euskal abertzaletasuna"-ren jarraipena bezala dira. Apunte guziok 10 irakurgaiaren modura banatuta daude, kursilo batetarako bezala, lehenengo konzepzioari zegokionez. Eta bestela ere, ikusten zaie apika, entzunaldi batetarako bururatu zirela, irakurraldirako baino gehiago.

Urteetan ez nituen ikusi ere egin: hortik ibili dira, eskuz-esku. Isilpean irakurri zituztenei ezer aprobetxatu bazien, aprobetxa dakizula orain zuri, hainbeste komeria gabe liburu batetan eta inprimatuta irakur dezakezun horri: zer besterik esan dezake behinolako Autoreak. Bitxiak egin zaizkit neuri ere apunteotako arrazoipideak, pentsabideak. Kezkak, problemak. Urrutikoak bezala. Beste batena ote zen, iruditu zait. Baina gurea zen, bai, mundu hori dena. Ahaztu samartuta neukan mundu bat ekarri didate berriro gogora. Urte gutxitan asko aldatu zaigu benetan Euskal Herria. Geu ere dexente aldatu gara, ikusten denez. Apunteok dira, aldakuntza horiekin batera aldatuz joaterik izan ez dutenak. Orrialde mordo batzuk kendu eta zatitxoren batzuk erantsi arren, han eta hemen, funtsean beren zaharrearantz geratu behar izan dute.

Isildu samarrak dirudite, apunteok egin zireneko eztabaida gehienak. Beste lan batzuetan enplegatzen gara orain. Moduak aldatu dira, batik-bat: problemak planteatzeko moduak, eztabaidak egiteko moduak ere hortakoz, eta gure arteko diferentziak kontsideratzeko moduak ere bai, nik

uste. Problema ere aldatu egin dira: premiazkoago lane-
tan enplegatzen da orain jendea, nolabaiteko "teoriak"
eztabaidatzen eta jorratzen baino.

Gauza bat geratzen da, zoritxarrez asko aldatu gabe,
orduan bezain eginkizun larria oraindik: sozialismo aber-
tzale bat sortzea, sendotzea. Apunteok horretarako idatzi
ziren eta horretarako izan daitezela orain ere.

Martxoa, 79

Hirugarren aponuek ere ager-gerria daukate, zabal-
ditzekoak dira. Aurreko "Euzko" eta euzkel abertzale-
na"ren jarraitzailea bezala dira. Aponue guztiak 10 irakur-
ren modua daukate, kuratzaile batenak bezala,
lehenengo kontzeptuak xegokionak. Euzko bezala ere, ikusten
zaie aipala, eztabaidatzen batenak bezala, irakur-
ditako baina gehiago.

Urteetan ez nituen ikusi ere egin: berrik idili dira,
eskuz-ekuz jarriren irakurri zituztenek ez erprobetza-
ria, aponue bezala dakizula orain zuri, hainbeste komer-
gabe ibiltu baten eta inguruetan irakur dezakezun ha-
rriz, zer besteak esan dezake behinola Aurreko. Biziak
egin zaizkiz nortu ere aponuekoak, irakurleak, pen-
bidak, kezak, problemak. Urtekoak bezala, beste ha-
rena ere zen, irakurri zait. Baina gurea zen, bai, mundu
hori dena. Abatu samarrena mundu bati ekarri
dilate berria gogora. Urte gutzitan zaku aldatu zaitu be-
neta Euzko Iratze. Gero ere desente aldatu gara, ikusten
denak. Aponuek dira, aldatuena botekin baten aldatu
joatek izan ez dutenak. Oritalde mordo baten kendu eta
xatxotzen baten eruztai arren, han eta hemen, luntsean
bein xabatzen geratu behar izan dute.

Lailu samarrek dirudite, aponuek egin zireneko ezta-
baida gehienak. Beste lan baten enplegatzen gara orain,
Moduak aldatu dira, bati-bati: problemak planteatzeko
moduak, eztabaidak egiteko moduak ere horietako, eta gure
arretako diferentziak kontsideratzeko moduak ere bai, nik

INDEPENDENTZIA, INTERNAZIONALISMO

Ez dago burubide onik internazionalismoarekin: gure xokokeria salatzea gustatu zaienek, internazionalismoa aipatzen digute berriz ere gure abertzaletasunaren kontra. Guk geuk ere, ordea, nazio bezala zor zaigun errespetua esijitzen dugu eta internazionalismoagatik esijitzen dugu hori. Beraz, *remis* gaude: internazionalismoa internazionalismo kontra.

Marx eta Lenin asko disparatu da paper gerra honetan frontearen alde bietatik. Ez dirudi bataila hau zita kano-nazoz erabaki daitekeenik. Bai, Leninek proletalgoaren batasuna predikatu du; proletalgo erakundearen batasuna Estatu guzian, etc. Baina, besteak beste, Leninek ez zuen gure kasua ezagutu eta ez zion gure kasuari soluziorik eman nahi izan. Gure kasuaren soluzioa kasuaren barruan bilatu beharko dela, ematen du, hortakoz.

Gu esan eta berresan ari garena, horixe bait da: oso ongi dagoela proletalgoaren batasuna, oso ongi proletalgoaren erakunde batasuna Estatu guzian... *kondizioak betetzen baldin badira horretarako eta betetzen diren moduan*. Baina horietxek ez dira hemen betetzen. Izan ere, nazio bizitza ukatzen zaion nazio bat dago hemen; eta haren naziotasuna, konsekuentzia guziekin, positibo eta aktibo, aitortzen ez duenaz, ez dakit zer "región"-edo-tzat gauz-

kanaz, batasunik ez da posible; zanpatzen eta gainera mespretxatzen gaituztenez batasunik ez denez gero posible.

Guk ez dugu akusazioa geure gain onartzen, batasuna guk hausten dugula. Hautsita dago. Bestela ez legoke problemarik. Eta hausten duena, duen bat, partaidearen nortasuna ezagutzen ez duena, da. Batasunak, izan ere, horixe inoiz esaten ez diguten arren, diferenteak daude. Eta hemengo batasun posible bakarra bi nazio diferenteren artekoa da.

Gure sozialista klasikoek, aldiz, oraindik ohartu ere ez bide dute egin, hemengo batasun arazoa nazioen arteko arlo dugula... Orduan guk ere Leninen eta Marxen partate asko dakigu, nazio zapaltzaileko proletalgu erakundeen xobinismoaz, etab. Leninek esaten zuen —Marxi jarraiki esaten zuen— bi naziok, istilu asko izan dutelako elkarrekin, eta elkar errespetatzen eta estimatzen ikasteko berriro, alde banatara banatzea eta aparte egotea hobe baldin bazen, hobe zutela, bai, banatzea.

Guk istilu asko izan dugu eta ez dugu uste, elkar estimatzen eta errespetatzen ikasteko, bide hoberik dagoenik. Ez dugu beste elkartasun biderik ikusten, ez bait dugu beste biderik ikusten elkar errespetatzen ikasteko nazio bezala; eta ez dugu esperimendu gehiagotan sinesten, ehun urte esperimintutan pasa eta gero maila-mailaturik gelditu gara eta. Eta, gainera, internazionalisteneke berek mailaok eta zauriok ahazteko eskatzen digutenean... Beraz, gu independentista gara. Eta, uste dugu, independente garenean eta independente ikusten gaituztenean, ikasiko dugula denok bata bestearen nortasuna errespetatzen eta naziotatik naziotara, partaide bezala, solas egiten; beraz, nazio gizarte edo nazioarte gisa bizitzen.

(Tesi hau ez dugu orain asmatu: nazionalitate bakoitzari berjabetasuna itzultzen ez zaion artean batasunik ez zela posible, mende hasieretan defendatzen zuen hemen Kanpionek. Harrez gerozko urteek haren arrazoiak indartu baizik ez dute egin.)

Independista gara, ez “separatista” garelako, ez hilar-gira joan nahi dugulako; beste batasun biderik ez dagoelako baina.

Alegia, beste bide guziak, historiak eta praktiak aski eta gehiegi erakutsi digutenez, zapalketa bideak direlako. Euskal naziotasuna ez ezagutze bideak direlako.

Ehun urte honetan, Espainian ez da planteamendu serio bat bakarra egin, Euskadi nazio dela kontsideratuaz. Ehun urte honetan konstante bat Espainiako historian baldin badago, konstante hori Euskadi nazio bezala EZ kontsideratzea da, beti eskualde, probintzia, *Pais Vasco* edo zernahi beste bezala baina.

Eta ehun urte honi ez dago buru egiterik; xobinismoak eta inperialismoak sortu dituen Euskadiren naziotasuna —ondorio guziez— arras deskonsideratzeko espainol tradizio unibertsal sustraitu eta irmeen mende honi, ehun urtetako habituekin, ez dago buelta ematerik, independen-tziaz baina.

Beraz, gu, internazionalismoaren amorez hain zuzen, independista gara.

Independista gara, orobat, sozialismora bide horrek hobeto eta errazago garamatzala, uste dugulako; eta gure sozialismora batez ere. Egia da, zeinek ez du ikusten, Euskadi ttipi honek, sozialista bilakatuaz, “kapitalismo mundialari” eta inperialismoari emango dioen kolpea, ez dela mortala izango... Baina, arrazoi hori asmatu duenak, ez dakigu nola bururatzten duen sozialismoa. Dirudienetz, sozialismoaren alderdi negatiboa da inportanteena: etsaia porrokatzea. Zerbait positiboagotzat jo nahi genuke guk sozialismoa. Espero dugu, gainera, Kubak, etc., nazio ttipi guziek, inperialismoari eman dioten ostikada baina zerbait positiboagorik aurkituko dutela beren sozialismoan. Kapitalismoa desegin ezeze, egin ere egin dutela zerbait. Ikuspide harekin, ez dakit, baina badirudi sozialismoek ez dutela sentidorik azken juizioko Sozialismo Haundia heldu arte. Sofisma hutsa dirudi; eta, arrazoi horretan, agertzen

denak baino gehiago, ezkututzen denak balio duela, sortzen da susmoa. Bestalde, inperialismoari kaskarreko haundia ala ttipia eman, ez dago nazioen haundi-ttipitik bakarrik; zenbait nazio haunditako zenbait sozialismok oso kaskarreko kaskarra eman dio behintzat inperialismoari. Eta arrazoi hura atera digunaren sozialismoak, zenbatekoa emanen dion, ikusteko zain-zain gaude, Euskadi baino nazio haundixeagoa izan arren...

Gu, beraz, abertzale gara eta sozialista gara eta bietatik independista.

INTERNAZIONALISMO, IMPERIALISMO

Internazionalismoa esijitzen digute. Eta esaten digute, sozialistak ez daukala independista izaterik. Sozialistak langile guzien *batasunaren* alde egon behar duela. Separazio guzien kontra. Itxuraz, behintzat, sozialista klasikoak eta sozialista abertzaleak Euskadin berezten dituen, internazionalismoa da. Oinarrizko puntu bat teoria eta praksi sozialistan.

Eta ikus, zer gertatzen den: batzuek, sozialista omen direlako, internazionalismoa esijitzen ari dira beti; eta besteak, sozialista izan arren, internazionalismo esijentzia horietaz ez dira batere fidatzen; areago, imperialismo kamuflatu bat susmatzen dute internazionalismo esijentzia horietan bertan! Orain esaten den sozial-imperialismoa.

Sozialismo zaharrak eta berriak, ba, ez dute internazionalismo gorabeheran elkar ulertzen. Zer da, zehatz mehatz eta justu, batzuek, internazionalismoa esijituaz, esijitzen dutena? Eta zer da, zehatz eta garbi, esijentziotaz ez direnean fidatzen, besteek susmo dutena?

Esaten da, zenbait eta gutiago eduki gauza bat, gehiago aipatzen dela. Gutiena dagoenean aipatzen da gehiena justizia. Askatasunik ez dagoenean aipatzen ohi da askatasuna etengabe. Erreprimatuena ibiltzen da gehiena seksoa gora eta seksoa behera. Internazionalismoa egunotan zenbait aipatzen den ikusita, arras eta zeharo falta behar duela,

irudituak hartzen gaitu... Zer da internazionalismoa, izan ere?

Ez da dudarik, internazionalismoa guziz konzeptu eki-bokoa bihurtu zaigula. Internazionalismoak ere, beste edozein konzeptuk bezala, konjunto batetan hartzen bait du bere esanahi zehatza. Huts-hutsean esanda, soil-soil eta beste konotazio gabe, topiko borobil bat da eta edozer gauza adieraz lezake. Orduan, internazionalistena, internazionalismoa gehien aipatzen duena, da...

Sozialista abertzaleok ez daukagu geure burua inor baino internazionalista eskasagotzat. Proletalgoa internazionalista dela, aspaldian dakigu. Kapitalismoa internazional dela, egunoro irakurtzen dugu etxetik urrutira gabe, Michelin, Firestone, Babcock Wilcox eta izen horietan bertan, beste gabe. Nazioek ere elkar hartzen dutela, Olinpiadetatik UNO-ra eta Merkatu Komunerraino ageri zaigu. Internazionalista izan behar dela, eskuinek ere badakite gaur.

Hain zuzen, horixe ateratzen digute beti: mundu guziaz elkartzuz ari dela. Absurdu dela, orain, denak elkartu nahi dabiltzanean, apartatu nahi izatea. Sorterriak ttipiegi direlako, denek Europa bat egin nahi dutenean, are sorterri ttipiangoak egin nahi izatea. Independentismoa ezezik, abertzaletasun apalena ere norainoko burugabekeria omen den, alde eta alderdi askotatik ari zaizkigu erakutsi nahita, zuhurtasun eta bihotz beratasun unkiagarrienez. Eskuin-eskuindar nahiz ezker-ezkerreko ezkertiar, zenbait ahalegin ez dituzte egiten, internazionalismoa zer den esplikatzeke eta gu, basakumeok, atzerapen honetatik ateratzeko. Burugorrrak, gu. Ez dugu ulertzen.

Eta zeini ulertu behar genioke? Miragarritsu bait da, burges beltzenen eta progresista gorrienen koinzidentzia hori berriz ere, XVIII-gn mendean hasi eta XIX eta XX gn mendeetan hainbat aldiz bezala.

Beraz, internazionalismoak *batasuna* esan nahi du. Batu egin behar dugu denok, ez banatu. Beharbada ez da kasualitaterik, batasunak errespetua ere esan nahi duela, inork

ez badu ere aipatzen testuinguru honetan: internazionalismoak premisa bezala errespetua esijitzen du.

Hor dago kontua: batzuentzat internazionalismoa batasunarekin hasten da eta besteentzat errespetuarekin hasten da internazionalismoa.

Gu, internazionalista izanik, "internazionalismoan" ezin beste gabe fida gindezke, hitzetan ez bait dago erraz fidatzerik gure historiaren ondoren:

- a) hemengo errealitateengatik
- b) nazioarteko errealitateengatik
- d) printzipioaren beraren anbiguotasunagatik.

Gaur erabiltzen den bezala, internazionalismo printzipioa gutien-gutienez anbiguo da, truko hutsa ez bada, beti arrazoa indartsuenari ematen dio eta.

Teoriak geroz eta gutiago ulertzen ditugu. Gauzak hobeto ikusten dira praksian. Teoriak ondorioetan. Eta praksian, internazionalismoak, burgesak nahiz marxistak, PSOE-ren unibertsalismoaz aritzekoan ikusi dugunez, nazio garaiaren baten interesekin berdintzen ditu beti progresoaren interes unibertsalak; hots, ideia baten eta xede baten inguruan baino gehiago, nazioaren baten inguruan egiten da batasuna, nazio harek inkarnatzen omen duelako xede unibertsal hura.

Nazioarteko errealitateak ere deskonfiantza agintzen du. Interes internazionalistek —proletalgoaren interesek sortaldean eta demokraziaren defentsak sartaldean, holaxe esaten bait da— ia edozein jokabide zuzen ala oker zuzitzeko balio dute. Abusuak ebitatzeko kontrarrecurso gabe gelditu zaigu internazionalismo printzipioa, beti barnean zuen anbiguotasuna praksian tragikoki azalduaz.

Internazionalismoak ez du gaur nazioartean, atzo zuen esanahirik eta ez baliorik. Orain urte guti, praksian, ehunetatik larogei eta hamartan, ez zuen Sobiet Batasunari atxekitasuna besterik esan nahi. Sobiet Batasunak egiten eta eragiten zuen nazioarteko proletalgoaren politika. Politika sobietarra nazioarteko proletalgoarena zen; nazio-

arteko proletalgoak ez zuen beste politikarik sobietarrena baino. Historiak nahitaez handik pasa behar zuela, uste zen. Eta Poloniak, Hungariak, Txekoslovakia, egundoko sakrifizioak egin dituzte Sobiet Batasunaren alde. Beste Alderdi Komunista guziek berdin.

Baina orain gauzak aldatu dira. Ia ez dugu ongi konprenitzen, txekiarrek eta poloniarrek, mendebalera garesti sal ditzaketen produktuak, Sobiet Batasunari zergatik merke saldu behar dizkieten, esate baterako. Batzuentzat, Sobiet Batasunaren interesak dira, beti ere, internazionalismoaren ardatza. Stalinek esan ohi zuenez, internazionalistak beti eta denetan Sobiet Batasunaren alde egon behar bait du. “Eurokomunistentzat” ez da gehiago hala. Rumania edo Iugoslaviarentzat ere ez. Are gutiago Pekinentzat.

Nazioartean potentzia handi bi ageri zaizkigu, internazionalismo aitzakiaz beste nazioak beren inguruan eta menpean bildu nahita: “internazionalismo” horiek mesfida haundiak sortzen dituztela, ikusten dugu munduan.

Hemen, Estatu espainolean, bada nazionalitate handi bat, noizpait Inperio handi baten buru egona, beti ere buruzagitarako sortua omen, hango intelektual ospetsuek adierazten digutenez, eta badira beste nazionalitate ttipi batzuk, askoz apalagoak. Hemen ere internazionalismoa eskatzen da. Eta hemengo errealitateek eta historiak ere, goian bezalaxe, deskonfiantzarik eta errezelarik franko sortzen dute.

Ez bedi ahaztu, hasteko, batasunera dei asko egin dela hemen lehen ere. Eta, hain zuzen, “batasunaren ondorioak” ari garela sofritzen! Hemen batasuna berriro aipatzea, urkatuaren semeari urkamendia aipatzea da.

Gero, eta besteak beste, batasunean interesatuena, hemen —behiala Georgian edo Ukrainan ez bezala— burgesia izan da eta burgesia da: zerbaitegatik izango da, eta apenas izango da, batasun bedeinkatu hori burgesiari berrari oso kaltegarri zaiolako... Langileak burgesiaren atzetik

sartu dira hemen politika unitarista "internazionalista" hori egitera; eta, sarri, burgesokin eskuz-esku. Internazionalismo arrazoiak hemen zinez elkartu izan dituenak, hortakoz, ez dira nazionalitate ezberdinetako langileak; eskuinteko nahiz ezkerreko espainolistak elkartu ditu. Batasun esijentzia horretan bat datozkigu eskuinak eta ezkerak... komunio harrigarri batetan!

Horrela, ba, internazionalismo aitzakian batasuna esijitzen diguten sozialista horiek, langile batasuna baino besterik eskatzen digute. Inork baino biziago burgesek desiratzen duten eta langileen parte bat eta burgesia elkartzen dituzten esijentziekin datozkigu; hain zuzen langileak erdibitzen eta banatzen dituzten "batasun" esijentziaz.

"Los obreros —gogarazten dizkigu Ortzik 1918-ko otsaileko gorabeherak— quedan lamentablemente divididos por intereses que no son los suyos, trabajadores de Altos Hornos sostienen la candidatura de su explotador, Ybarra, y se producen en Erandio enfrentamientos entre ellos y los obreros de Euskalduna. Las mesas electorales son escenario de polémicas violentas; se oyen en ellas gritos de "¡Muera España!" Obreros de Altos Hornos se desplazan a Bilbao el día 24, gritando: "¡Abajo los anti-españoles!" y "¡Viva España!" Ybarra les habla 'líricamente', diciéndoles, entre otras cosas:

"Hay un motivo de comunidad, de entusiasmo, ahora entre nosotros, y es que en las presentes elecciones se discute la idea de Patria. Y es esta palabra, es esta idea la que nos une a todos, patronos y obreros, y nos confunde en un mismo amor, porque por encima de todos los intereses, de todos los ideales políticos, de todas las afeciones regionales, de todas las personales simpatías, está el amor supremo a la Patria."

Justu horixe de Marxengandik eta Leninengandik nazionalismo burges bezala kondenatzen ikasita daukaguna. Burgesek zein sozialistek, elkar harturik, defendatzen du-

ten batasun hori da, *Patria* hori, nazionalismo burgesa: langileak engainatzeko ez bestetarakoa (zeintzuek egingo eta, langile sozialistek osatzen, alajaina, Ybarraren osteak!). Diferentzia guzien eta klase interes kontrarioen gaintik dagoen *Patria* hori da burgesiaren tranpa ideologikoa.

Hain nahasten dira, nahastu ere, “internazionalismo” burgesa eta “internazionalismo” proletarioa batasun esijentzia horietan, azken finean ez bait gaitu harritzen, sozialistaren bat ez, baino Calvo Sotelo bera, zen halakoa, arrazoipideokin agertzea: *Los vínculos de vecindad no son ya los más poderosos. Hoy un obrero vasco se siente más hermano del obrero madrileño que del patrono vasco; hoy el vínculo de la clase social es superior al vínculo territorial que vosotros hipertrofiáis... No más hablar de Estatuto, porque sabemos que ese Estatuto será en vuestras manos un arma homicida.* Gorago ikusi dugunez, arrazoipide dir-daitsu hau edozein sozialistarena izan zitekeen, kasualitatez Calvo Sotelorena ez balitz... Gero, ordea, marxista askori entzun diogu arrazoi horixe.

Hemengo errealitateok ere, batasun deiak eta proklamazio internazionalistak deskonfiantzaz hartzera, obligatzen gaituzte. Internazionalismoa iadanik ez da konzeptu ekiboko eta anbiguo bakarrik; batez ere praktsi ekiboko eta anbigua da. Mundu mailan nahiz gure mailan.

Internazionalismoaren lehenengo eta behingo oinarria, “naturala” da: denok gizonak gara eta gizonari doakiona denoi doakigu, eta abar. Estoikoak esaten zuena. Zorte berdintasunak solidaretasun hau are finkatzenago du.

Horregatixe, Donostiako emakumeak gizonak baino gehiago interesatu ohi dira, Patagoniako emakumeek zer problema dituzten, zer jazten duten eta erazten duten, eta beste. Johannesburgoko haur subnormaletaz hitzaldi bat ematen baduzu, hemengo subnormalekin zerikusirik dutenak, izango dituzu entzule gehienak. Hemengo nekazariak izan ohi dira, Danimarkako behien berri jakin nahi izaten dutenak; eta ez gaitu batere harritzen, horiek berak

arrantzale eskimoetaz akordatu ere ez egitea beren bizi guzian.

Baina proletalgoaren solidaretasuna, azken finean eta funtsean, arras besterik omen da. Oinarri natural hori ez zen aski. Humanistegia edo, zirudien apika. Kristau kutsukoegi zen beharbada. Eta oinarri zientifiko bat asmatu zaio, guziz sendoa, baina baita problematikoagoa ere. Solidaretasun horren ardatza ez da patu berdintasuna. Ez da sentimendu morala. Edo eta, hori bai, baina barrenago, determinismo historikoak berak eman dioen misioa da: progresoaren eramaile izatea. Proletalgoa da klase progresistena, etorkizun eraikilea. Progresoari zerbitzatzeak oinarritzen du proletalgoaren batasuna eta solidaretasuna. Misio horren zerbitzuak elkartzen ditu berezitasun ororen eta interes partikular guzien gainetik: mundu berri baten eraikitzeko misioak lotzen ditu langileak mundu guzian, esaten denez.

Progresoaren izenean eskatzen zaio proletalgoari, nazio interesei ez begiratzeko, uzteko alde batera bere kultura eta hizkuntza arazoak, etab.: gorabeheraok huskeriak omen direlako zinezko haren misio haundiaren aldean: horiek denak berehalaxe suntsituko omen bait dira.

Proletalgoak naziorik ez duela, edo aberririk, progresoak naziorik ez duela-ren ondotik dator. Eta hori da, azken finean, internazionalismo guzien azkeneko oinarria.

Ikuspideon funtsezko zuzentasuna ukatu gabe ere, praktisian erakutsi duten anbiguotasuna, ezin utz genezake aipatu gabe.

Konjunto baten barruan duela, esan dugu, internazionalismo konzeptuak bere esanahi garbia. Konjunto horretan, batasun ideia-aren ondoan (eta ikusi dugu, batasunak inperialismo eta baterakeria adieraz dezakeela) progresoaren ideia aurkitzen dugu. Ekintzaren antolaerari buruz, internazionalismoak batasuna adierazten du; helburuari erreferentzian, progreso. Baina progreso ideiarekin, batasun ideiarekin gertatu den berbera, daukagu berriro: herri ttipien nortasunaren eta historiaren eta ez kultur intere-

sen begirune izpirik gabe bururatzen dela progresoa. Ikusi ditugu sozialista klasikoez euskarari eta euskal kulturari eta naziotasunari buruz dituzten etorkizun perspektibak.

Beraz, *sozialista klasikoek eta sozialista abertzaleek internazionalismoari buruz aburu eta jarrera ezberdinak badituzte, batasuna, progreso, eta konjuntoko beste ideiak ere bi eratan ulertzen dituztelako, da. Eta ez, batzuek nahi luketen moduan, sozialista abertzaleok beren "sentimentu burges-koxkorrak" gaindiatu ezin omen dituztelako.*

Batasuna funtsean bat-bakarkeria bihurtuaz progresoa ere kupida gabe ttipiak zanpatzen dituen haundikeria izanez, izan, eta halare internazionalismo esaten zaion hori, ezin berez daiteke edozein printzipio inperialista batetatik: ttipiek eskubiderik ez dute sekula haundiei buruz-buru. Eta haundiek nahi duten guzia libre dute. Egiaren postulatua bezala da: Egiaren aldean gezurrak eskubiderik ez omen du (integrista guzien arrazoi kuttuna bait da hori) eta aurrerapenaren aldean atzerapenak ez du eskubiderik. Egiaren izenean heretikoak erre eta kiskal litezke, diborzioa debeka liteke, prentsa librea eragoz liteke, edozer gauza egin liteke. Eta egiten da.

Alabaina, mundu honetan, egia bezain guti ibili ohi da aurrerapena bere oinez. Norbaitek eraman behar izaten du. Jendeek, herriek, klaseek, Estatuak, Alderdiak.

Internazionalismo progresista harek praksian zer esan nahi zuen, Stalinek formulatu zuen ongi: "Internazionalista holakoxea da: mugarik gabe, dudarik gabe, baldintzarik gabe, Sobiet Batasunaren alde jokatzeko prest dagoena, Sobiet Batasuna munduko mogimendu iraultzailearen oinarri delako eta munduko mogimendu iraultzaileak ezin aurreraz daitekeelako Sobiet Batasuna aldeztu gabe". Stalin logiko zen. Eta, izenak gora-behera, Sobiet Batasunaren lekuan Paris ala Madril eta horietan kokaturiko Alderdiak berdin esan genitzake, logika berarekin, gure kasurako. Internazionalismoak guri beti eskatuko diguna morroin izatea da: eskemaotan ardatza beti haundiak egiten bait du.

Eskema hori, bestalde, Stalin baino lehenagokoa da. Liberalek berdin planteatzen zuten. Beraz, euskaldun karlistek liberaleri lagundu behar zieten, progresoari zerbitzatzekotan. Eta liberalek Euskal Herria izorratzen bazuten, ba, zer egingo da, progresoaren amorez beren interesak sakrifikatu, historia unibertsean herri ttipi batek oso guti kontatzen du eta.

Zer progreso den hori eta *zeinen* progreso den, jakin nahiko genuke. Garbi bait dago, internazionalismo teoria hori, horrela, Konkista Dretxoaren bariazio ttipi bat besterik ez dela. Konfliktorik sor badadi haundi eta ttipi artean, ez du ezertarako balio, beti haundienari arrazoï emateko baino (progresoa, unibertsealimoa, etc., beti haundiari begira bakarrik definitzen direlako). Makielismo kamuflatua.

Ez zaigu ezer kostatzen, Madrilgo liberalak progresistago zirela onartzea, Abartzutzako karlistak baino. Sobiet Batasuna progresistago zela Hungaria baino, bere garaian; Txekoslovakia baino, egunotan. Eta, beraz, atzeratu guziok progresistenari lagundu behar ziotela eta segimen egin. Baina hori ez da problema. Kapritxo batez bakarrik bada ere, alderantziz bururatu nahi ditugu gauzak: Abartzutzako karlistak eta hungariarrak eta txekoslovakiearrak askozaz ere progresistago zirela Madrilgo liberalak eta Moskuko Gobernua baino. Eta zer gertatzen da? Lehenengo gertatzen da, Madrilgo liberalak eta Moskuko Gobernua konbentzitu beharra dagoela, progresistenak besteak direla eta, beraz, haien laguntzaile bihurtu behar dutela... Beraz, joan zaitez haiek konbentzitzera. Gero gertatzen da, eskubideek ez dutela balio tankeak Budapestetik edo Pragatik Moskura eramateko, Moskutik Pragara edo Budapestera ekartzeko balio duten bezala... Progresoak oinarrituriko internazionalismo honek eskubiderik batere gabe uzten ditu ttipiak praksian. Bat-bakarkeriazko batasuna esijitzen duen internazionalismo honek, arrain ttipiak bizirik irunsteko haundiaren Dretxo filosofia espresatzen du.

Sartu ziren behin frantzesak Espainian: biziki progresistak frantzeskumeok, orduantxe Iraultza bat eginak, oraindik Iraultza-sutan irakiten zebiltzanak. Eta Espainian oso jende guti akordatu zen, mutilok askoz progresistago zirela eta haien morroin jarri behar zela eta etxea eman behar zitzaiea. Sartu ziren Errusian ere. Eta inor ez omen zuen beste teoria harek konbentzitu. Napoleon bakarrik. Eta egun eskuinek ala ezkerrek berdintsu estimatzen duten "afrantzesatu" pare bat... Izan ere, badaude arrazoi batzuek, besteari tokatzen zaizkionean oso onak, norbera harapatzen dutenean oso txarrak.

Internazionalismo printzipioak, bere anbiguotasun guziaz, beti eraman du barruan inperialismo hazia. Arriskurik ez duenak, **ez du**, agian, horregatik zer preokupatu. Baina gu arriskuan daudenetakoak gaituzu eta printzipio hori ez dela inperialismo bihurtuko, aldez aurretik aseguru beharrean aurkitzen gara. Eta gerta ez dadin modu bakarra, bakoitzari bere nortasuna oso-osorik salbatzen dioen batasuna eta internazionalismoa eraikitzea da.

Baina internazionalismo printzipioaren anbiguitatea zehazgiako ikusi behar dugu oraindik.

NAZIO, NAZIOARTE: TEORIAN BAINO PRAKSIANAGO

Teoria politiko baten sentidoa batez ere praktiak ematen duenez, sozialismoaren teoria, egun, ikaragarri nahasi dagoela, aitortu behar, praktiari begiratzen badiogu.

Sozialismoaren esperentzietatik ondorio asko atera liteke. Bat ebidentea, konzeptuen nahasketa da.

Iadanik ez dira konzeptu batere garbiak: zer den Herri Demokrazia, Proletalgoaren Diktatura, kultura proletarioa, zer den proletalgorik ere. Errazena, guzi hortaz era ideal batetan mintzatuz jarraitzea da, beren historiarik ez balute bezala, eta problemarik ez balego bezala. Baina hori esku-liburu gisa aritzea da. Ez da orain aritzea. Iraultzaren bezperara itzultzea da. Eta, hein batetan, biharamonean gaude.

Konzeptu nahasienetako bat internazionalismo konzeptua da. Muga gaitezen hortaraxe, berriro. Konzeptu horrek, politika bat adierazten duen heinean, hots, errealitaterik adierazten duen aldera (ez bakarrik xede bat), esanahi xit ezberdina du gaur txinarren, rumaniarren eta iugoslabiarren aldera ulertu, ala sobietarren aldera ulertu.

Ez da dudarik, Sobiet Batasunak bere interes ekonomikoak baldin baditu mendebalearekin, esate baterako Poloniak eta Txekoslobakiak ere bereak dituztela. Baina Sobiet Batasuna bestean interesotan deus interesaturik ez gotea oso posible da. Dirudenez, Sobiet Batasunari ez

zaio batere interesatzen, Txekoslobakiako industria —beroni komeniko litzaiokeenez— mendebalera begira jartzea, hemen hagitz gehiago irabaziko lukeen arren, Sobiet Batasunean sal-erosiaz baino. Orain artean Sobiet Batasunak iritxi du nolarebait, bere inguruko Estatuon artean internazionalismo hitzak esanahi bat eta bera gordetzea (Rumania salbu). Hau da, guziak interes elkartasun batetan biltzea. Baina oso nolarebait: inguruko Estatuok mendekoak ere ez ote diren, susmo hartzen da. Eta elkartasun hori, guzientzat onuragarri bada ere (bakarrik aritzea baino hobe, alegia), hoberen-hoberena Sobiet Batasunarentzat berarentzat dela, pentsatzen da.

Inguruko Estatuotan, ez dirudi, bat bakarrak ere interesik izan lezakeenik Txinarekin konfrontazioan. Baina guziak Sobiet Batasunaren laguntzaile leial ageri dira. Hor ere internazionalismoak sentido berdina du guzientzat, eta, ritual baten modura, Sobiet Batasunaren sateliteek, batak bestearen ondoren, Txinaren beren kondanak errezatu dituzte.

Sobiet Batasunarentzat internazionalismoa bloke bat egitea da, Sobiet Batasuna buru ta gidari dela.

Guri ez digu inporta bloke hori nola bizi den. Beste hau, ordea, etxean daukagu: mendebaleko AK-ek beren interesak dituzte (beren etxeak) eta beren ondorioak atera dituzte. Eta ez dirudi, bloke hortan sartzeko interesik batere dutenik, ekonomi aldetik behintzat. Adibidez, Sobiet Batasuna Merkatu Komun eta Europa Batu asmoen kontrario da (kontrara, Txina aldeko da). Italiako AK-ak eta, ordea, apenas bazter litzakete Merkatu Komunak eta Europa Batuak beren herriei eskaintzen dizkieten abantailak, horiek utzi eta bloke komunistan integratzeko. De fakto, bloke komunistaren eta Merkatu Komunaren artean hautatu beharrean aurkitzen dira. Eta, itxura guziek engainatzen ez badute, Merkatu Komunaren alde erabaki dira, zalantza askoren ondoren. Kanbio politiko haundia da hori. Izan ere, Merkatu Komunean gelditu eta Gobernura irixtekotan, Al-

derdi pluralismoa, etc., onartu beharrea daude (Erromako Karta).

Hortik aurrera ere, eskakizun luzeak ditu erabaki honek. Merkatu Komunak (Europak) ez du defentsa sistema propiorik. USA-rekin lotuta dago. Posible ote litzateke, Italiarentzat adibidez, Merkatu Komunean egotea, eta defentsa sistema hortan ez? Zer gertatuko litzateke, Italia, ekonomi aldetik Merkatu Komunean, baina militarki Varsoviako Itun blokean balego?! Ez da zaila asmatzen. Merkatu Komunean gelditu nahi dezaten AK-entzat, apenas gelditzen da militarki bloke komunistan sartzeko posibilitaterik. Baina zaila litzateke, orain arte bezala jarraitzea ere. Batetik, Alderdi Komunista horiek (Gobernuan) Sobiet Batasunaren aurkako Aliantza batetan aurkituko lirateke: itxuragabea berentzat. Bestetik, Aliantza honek berak Gobernu komunista bati nekez erakutsiko lizkioke bere sekretu militar guziak, eta nekezago gomendatuko lioke mendebalearen defentsa parte bat: itxuragabea Aliantza-entzat. Irteera zaila, NATO oso-osorik onartu nahi ez badute... Neutral gelditzea litzateke egokiena. Baina Italia edo Frantzia neutralismora pasatzeak Europako ekilibrio estrategikoa zeharo desegingo luke, eta ez dirudi hori inori interesatzen zaionik, ez USA-ri eta ez Sobiet Batasunari, arrisku gehiegi ekarriko luke eta. Horregatik esaten da, esan ere, Sobiet Batasunak oraingoz batere interesik ez daukala, Europako AK horiek Gobernura igo daitezten. Konplikazio gehiegi sortuko luke. AK horiek berek, ordea, nahikoa itxaron dutela, uste dute. Nahiko denbora pasa dutela, Aginpidea eskuratu nahi duten imintzioak eginez, errealitatean Aginpidea irixterik ez daukatela jakinez, Sobiet Batasunaren konzeptu estrategikoa ez estropeatzeko. Gobernatzeko ordu dutela. Bestela, gizartegintza guzia Alderdi burgesei uzten ari direla. Beraz, beren programak bururatu dituzte, nahitaez. Ez dutela berek bakarrik gobernatu nahi (Italian demo-kristauekin nahi dute, Frantzian sozialistekin: horiek USA bakea dezaten, apika), eta abar. Baina plan horiek Sobiet Batasunari ez zaizkio interesatzen.

Mendebaleko AK-ak “beren erako” sozialismoa oso aipatu zale bihurtu dira. Interes nazionalak aitortzeko formula egoki bat besterik ez da hori funtsean. Espainiako AK-ak, adibidez, Europaren premia ongi ezagutu du: Merkatu Komunaren aldezkari gisa mintzo da, Alderdi pluralismoa agintzen du, amerikanoen interes militarrek Espainian errespetatzea ere agintzen du Carrillok, gainerantzean neutral jokatu nahi luke (orain ere Espainia ez dago NATO-n), etc. Espainiako industrigintzari Europa komeni zaio. Sobiet Batasuna, hein honetan, ez da partaide interregarririk, bestela, ideologiagatik eta, arrazoi askogatik, partaide atseginagoa balitz ere. Beraz, AK-ak atarramentatu nahi diguna, interes nazionalek agintzen duten politika da. Ezin esan liteke, Sobiet Batasuna planotan oso interesatua dabilenik.

Carrilloren behinolako hitzok aski garbiak dira: “Sin duda la marcha hacia una normalización de las relaciones (Estatu sozialisten eta Espainiaren artean) está de acuerdo con los intereses de Estado de los países socialistas. Pero no lo está con los intereses actuales de la oposición democrática española. En este dilema nosotros optamos por los intereses de la oposición democrática, que son en definitiva los de España” (*Libertad y Socialismo*, or. 116). Aukera-aukeran, Espainiaren interesak dira lehenengo.

Maoistei, berriz, hori ere ez zaie aski nazional iruditzen. Maoismoak, Txinak egin duen eskarmentuagatik noski, nazio bakoitzaren beregaintasunean jartzen du azentua internazionalismoan. Nazio bakoitzak bere jabe izan behar duela. Bere interesei begiratu behar diela. Hortan jartzen dute enpeinu guzia. Beren estrategiari dagokiona horixe da. Txinarrek Rumanianen jokabidea nahi lukete beste guzientzat ere. Italiak, Frantziak, Alemaniak, USA-k, Sobiet Batasunari gogor buru egitea nahi dute. Espainian maoistek Espainiaren independentzia aldarrikatzen dute orain. Eta USA-ren kontra darabilte ikuspide hori, Sobiet Batasunaren edo “Carrilloren erreformisten” kontra baino gehiago.

Halare, dudagarri da, orain oraingoz hori ote den Txinaren benetako sentidoa, nazio bakoitzaren berjabetasuna finkatzen duenean. Posible da, Txinaren gurari ideala, urruti-urrutian, Espainian Albania berri bat sortzea, izatea. Jokalari onak ez du karta bakarrera jokatzeko. Baina posible-ago dirudi, Txinak orain nahi duena, Espainia mendebaleko defentsa sistiman sartuta ikustea, izatea. Dozena erdi bat Albaniak baino garantia gehiago ematen du horrek.

Guri, hori dena, buruz eta zuhur jokatzeko, iruditzen zaigu, egia esateko. Txinak bere interesei begiratzen die, URSS-ek berei. Espainiako AK-ak Espainiaren interesei begiratzea bidezko da. Guziarekin konforme ez bagaude ere, errealitate bat da, komunistak egun "intereses de Estado" horietaz biziki arduratzen direla, eta arduratu behar dutela (Carrillo). Ardura hori Carrilloren eran, ala maoisten eran, egin behar den, guk oraingoz utz genezakeen hauzia da. Ez da guri tokatzen zaiguna. Kasi eztabaidatzerik merezi ez duen kontua, berriz, hauxe da: sozialismo teoriaren egungo beste problema gehienak horrekin loturik daudela. Internazionalismo teoria dago hauzitan, beste mila hauziren azpian.

Orain, itzul gaitzen internazionalismo teoria klasikora. Mundu guziko proletarioen interes batasuna eta berdintasuna azpimarkatzen zuen. Desberdintasunik ia ez zen aipatzen ere. Berezitasunak ez zuen ezer pintatzen. Zergatik hartu zuen internazionalismo teoriak tankera hori? Egin-kizun *bat* zegoen, eginkizun hortan konzentratu zen enpeinu guzia. Arrazoi historiko asko dago. Baina, politika mailakoa, beti bera izan da: iraultza proletarioa.

Bi alditan parti genezake arrazoi hau, historiaren arabera:

1. *Iraultza aurreko* epea, edo lehenengoa: Marxengandik Iraultza Sobietarrera arte. Beste guziak ahazteratzen zituen eginkizuna, Iraultza egitea zen garai honetan. Iraultza egiteko presak obligatzen zuen, berezitasunak ahaztera. Berezitasunok ez ziren ukatzen. Baina handik harako pro-

blemak Iraultza egin *eta gero* aisa konponduko zirela, uste zen. Garai honetan bururatzen zen Iraultza, mundiala zen. Kolonien arazoa, nazio zapalduen arazoa, nazio aurreratu eta atzeratuen arazoak, Iraultza egin *eta gero* konponduko zirela, pentsatzen zen. Lehenengo iraultza proletarioa egin behar zen. Eta proletalgoak elkartu egin behar zuen mundu guzian, interes bereziok utzita. Beste problema horiek guziaz, berezitasunak, sekundarioak zergatik ziren, demostratzen ere, saiatu zen Marx. Baina arrazoi horien guzien arrazoiak, azken finean, huraxe da: orduantxe egin zitekeela ta egin behar zela uste zuen Iraultza egiteko indar denak elkartu beharra. Ikuspide hori zen nagusi Urriko Iraultzara arte.

2. *Bigarren epea*: Iraultza Sobietarretik etendura txinarr-sobietarrera arte. Iraultza egin zen. Baina iraultza nazional bat izan zen, ez mundiala. Internazionalismo teoriaran bi kanbio inportante gertatzen dira: bat, proletalgo mundialaren eta Sobiet Batasunaren interesak berdintzea; bigarren, kolonien kasuan, batik-bat, nazio berezitasunak aintzakotzak hartzea.

Internazionalismoak Stalinen formula hau hartu zuen: “internazionalismo proletarioaren ezaugarria eta neurria Sobiet Batasunarekiko atxekitasuna da”. “En la práctica —aitortzen du Carrillok— este lema equivalía al apoyo incondicional de las iniciativas de la dirección soviética”. Honen arrazoiak Carrillok ematen digu, alegia: “una necesidad urgente impostergable que hacía que nuestro interés supremo nacional e internacional fuera defender la Unión Soviética, único Estado socialista contra la jauría de Estados imperialistas que la cercaba”, *eta, berebat*, “una necesidad histórica, sin la cual quizá hoy no existirían ni la URSS, ni catorce Estados socialistas, ni movimiento comunista y antiimperialista mundial”. Premia larria zegoen. Bego.

Baina Sobiet Batasuna Estatu bat dat, ez proletalgoa bera. Edozein beste Estatuk bezalaxe bere partikularta-

sunik eta berezitasunik baduen Estatu bat, noski. Eta, jorkabide honekin, sobietar berezitasunok ia printzipiotara jasotzen zituen sozialismoak. Honez gero, berezitasun nazional batzuk de facto aintzakotzat hartzen ziren, oso aintzakotza ere: berezitasun sobietarrak.

Inportanteagoak dira, halare, koloni arazoan aintzakotzat hartu ziren berezitasun nazionalak. Interes proletarioen etsai da kapitalismoa. Kapitalismoa orduan inperialismo bezala definitu zen (goeneko maila). Eta koloni nazioek beren askatasun burruka egitea, inperialismoaren kontra zihoanez gero, kapitalismoaren kontra zihoala, eta interes proletarioen alde zetorrela, ondoriozkatu zen. Nazioak askatzea, teoria sozialista klasikoan, burgesiaren eginkizuntzat jota zegoen. Baina koloni nazioetan proletalgoak berezitasun hori aintzakotzat hartu behar zuen, eta nazio burruka ere beregain behar zuen hartu, burgesiak egiten ez bazuen. Burgesiak egiten bazuen, berriz, proletalgoak burgesiari lagundu behar zion. Edonola ere, proletalgoak nazio burruka egin behar zuen, inperialismoa (kapitalismoaren goeneko maila) burrukatzeko.

Beraz, internazionalismo teoria klasikoak ez du esan nazio interesak eta berezitasunak ahazteko besterik. Orain, berriz, Leninen garaian, eta Stalinen garaian areago, nazio berezitasunei eta nazio interesei oso begiratzeko bi kasu gutienez bazegoen: Sobiet Batasunaren kasua eta koloni nazioen arazoa.

Horiek dira, labur-labur, lehenengo bi kapituloak internazionalismo teoriaren historian. Gero gerokoak. Hirugarren epe batetan gabiltza orain, izan ere: sozialismoa, Iraultza mundial baten bidez ez, baino Estatuz Estatu, nagusitzen ari den epean.

Internazionalismo teoria filosofia abstraktoren baten modura hartzen bada, agian gauzak betiko moduantsu daude orain ere. Baina praksi jakin baten barruan hartzen badu bere egiazko sentidoa, galdetu beharra dago, Marxek internazionalismoari ematen zion sentidoa zein praksiren

barruan ematen zion. Zein praksiren barruan eman zitzaion, gero, sentido sobiet-zale hura. Zein sentido izan dezakeen nazioarteko egungo praksi barruan: Kubatik Txinara, komunismo nazionalen haroan bizi garenean. Bakoitzak bere bakoitzasunari begiratzen dioen haroan.

BAKOITZAK BERE BAKOIZTASUNA

Dirudienez, sozialista askok oraindik ere gaizki ikusten du, Euskal Herrian, euskal berezitasunik aipatzea. "Diferentzialik" aipatzea. *Filosofía de campanario* eta beste ipuin zahar haiek ongi tinkatu dira buru bihotzetan. Ez da erraza horiek uxatzea.

"Aranismoa diferentziala da", esaten da. Eta aranismoaren akusazio haundi bat izan nahi du horrek. Euskal Herria batez ere euskarak egiten duela, diotenek, herri ideia diferentziala omen dute, halaber: onartu ezinezkoa omen bait da hori ere.

Diferentzial direnik, ez dago ukatzerik. Aitzitik, aurrerago ere aisa joan gindezke: *euskaldun, frantzes, ingles*, diotenek, herri ideia diferentziala dute, diferentziak nondik ateratzen dituzten, esan ala ez. Konzepturik edukitzea, diferentziatzea da. *Arbola*, esaten badut, gutienez arbolen eta ez arbolen errealitateak berezi ditut. *Proletario*, esan dudanean, ez dut *gizon* esan, ez dut *andre, haur* edo *agure* esan, ez dut *senar, langile, zuri* ala *beltz*, esan. Eta diferentzialok ere beren tokian nahiko inportanteak dira. Diferentziatuz pentsatzen da. Pentsatzea diferentziatzea da. Eta politika ere pentsatuz egiten denez, diferentziatuz egiten da politika.

Baina diferentzialaren kritika horrek, beste zerbait adierazi nahiko du, ezer adierazi nahi badu behintzat.

Lehenengo pentsarazten duena, hauxe da: "diferentzialistaok" politikan behar ez ditugun diferentziaren batzuk ateratzen dituztela. Hala baldin bada, diferentzialik nahi ez dutenek, berek zer politika nahi duten, ongi adierazten dute. Diferentzial horiek behar ez dituen politika, ez da euskal politikarik. *Euskaldun, frantzes, vietnamita*, hitzek, sentidorik ez duten maila batetan, mogitzen dira, dudarik gabe.

Baina, seguruena, beste zerbaitek adierazi nahi da diferentzialen kritika horrekin? Eta, oso kritikarako bide egozia iruditzen ez bazaigu ere, hau onartuko genuke kritika hortatik: ez dagoela berezitasun horietan *bakarrik* politika muntatzerit. Hau da: Euskal Herrian es dagoela nazio arazoak *bakarrik*.

Hori behin ta berriro esan beharra dago, zenbait aberztalaren kontra. Beharbada, zenbait sozialista berriren kontra ere bai, iadanik.

Baina, gaitzen errealista: oro har, historiak erakusten duenez, sozialismoaren arriskua ta okerra, Euskal Herrian, euskal berezitasunei, diferentzialei, gehiegi begiratzea ote da? Ezta inola ere. Euskal sozialismoaren gaitza eta okerra berezitasun horiek zeharo ahaztea izan da. Euskal Herriko sozialismoaren historia guzian halaxe izan da. Eta horixe da, lehenbailehen erremediatu behar duena. Eta, bigarren: herri honen egoera ikusita, ez ote dago diferentzialetan insistitzeko nahiko arrazoi?

Sozialismotik kanpora begira, inguruko ideologietara, diferentzialismoaren kritika bidezko izan liteke.

Sozialismotik sozialismo barrura begira, sozialismoaren historiara eta oraingoxe politikara ere, kritikatu beharra dagoena, sozialismoak diferentzialei kasorik ez egitea da. Badakigu, Euskal Herriak bere diferentzialen, hots, bere nortasunaren, naziotasunaren, konzientzia gutiegi izateak, mesede zeini egiten dion: inperialismo espainolari. Sortu ere harexek sortu digu, gehienbat, autokonzientzia falta

hori. Diferentzialoi begiratu ez nahiez, badakigu sozialistek ere zeini laguntzen dioten hortakoz.

Azken urteotako mugimendu guziak ongi erakusten du, Euskal Herria sozialismo zinez euskaldun baten zain-zain dagoela. Baina mugimendu honek berak ederki erakusten du, sozialismoa lotsa eta bildur dela, zinez euskaldun izateko.

Sozialismoa zinez euskaldun eta abertzale bilakatzen hasi orduko, behin eta berriro bere euskalduntasunaz ikaratzen da, eta lehenagoko eskemetara eskapatzen da, ikaratuta. Baina eskema zaharrak abandonatuta daude ia edonon. Halabeharrik, "sozialismo puro" ren batetara eskapatzen da beti hortakoz. Trotzismora, etc. Edo-ta, desbidazio nazionalistaren bat salatzen hasten da, garrisika. Sozialismoa ezin ohitu da naturaltasun guziz abertzale izatera. Astuna da historiaren zama. Sozialismoa beti ere dinamika historiko zentralistan dago eta ikaratu egiten da diferentzialik aipatuz gero.

Gure inguruetan dabiltzan sozialismo guziak, berriz, AK-ak batez ere, nazioarteko beren posizioari buruz, "berezitasun nazionalaren" teoriarekin dabilta gogor baino gogorrago, sobietarrak berak ez beste guziak. Eta sobietarrak ez, beren "berezitasuna" mundu guziarena bihurtu nahi dutelako.

"El PC de E se esfuerza por elaborar independientemente *su* vía de marcha hacia el socialismo, de interpretar creadoramente el marxismo-leninismo, teniendo en cuenta la época y las *particularidades* de nuestro país", aitortzen du Carrillok. Eta berriro: "... afirmamos la necesidad de una elaboración independiente, porque insistimos en la *diversidad* de situaciones en que lucha cada partido, porque afirmamos que hay *diferencias* que no pueden aplazarse con apisonadoras ni obedeciendo a imposiciones externas". Eta oraindik: "Los comunistas soviéticos aplican los principios del marxismo-leninismo, según su juicio, a las condiciones en que ellos se desenvuelven, muy *distin-*

tas, por cierto, a las de España. Los comunistas chinos hacen lo mismo en su país, de la forma que ellos lo entienden ¿Con qué derecho puede nadie negar al PC de E la facultad de aplicar los principios del marxismo-leninismo a la situación concreta de nuestro país?” Errematerako, ba: “¿Es eso comunismo nacional o nacionalismo? ¡No! Esa es la aplicación consecuente del marxismo-leninismo, como decía Lenin, a las particularidades nacionales y políticas de cada Estado” (Carrillok berak azpim. azkenekoa; besteak gureak).

Hori da Espainiako AK-ak hartu duen bidea: bere *diferentzialen* bidea. Rumania, Iugoslavia, Txina, eta abar, ez dugu berririo aipatuko. Zer da orduan beti ari zaizkigun kritika hori: lehen “partikularismoarena”, orain “diferentzialena”, beti zerbaitena?

Internazionalismo kontuan, egun ezer nabarmentzen baldin bada, berezitasunon inportantzia bait da. Bestela, izan ere, sozialismoaren errealitatea inola ulertzerik ez legoke.

Esate baterako, ta lehenengo, nekez hitzegin ahalgo litzateke, jatorrizko esanahian, Txina sozialista, Vietnam sozialista, edo Angola sozialista batzuetaz, ez dira kapitalismotik pasa ere ta. Sobiet Batasuna bera ere. Tanzaniako sozialismoak zer ikusi behar du Txekoslobakiakoaz? Zer proletalgo dago Tanzanian? Ehuneko zenbait dira Txinan bertan ere? Bakoitzak bere erako sozialismoa duela, esaten da, eta kito. Sozialista esaten diogu, oinarrizko egitamu jakin batzuk dituen gizarteari, hartara nolana heldu dela: kapitalismotik, feudalismotik ala lehen gizarte tankeraren batetatik salto eginez; eta barne antolaketa politikoan sekulako diferentziak daudela ere, beren artean.

Teoriak esaten du, gizarte moldeak datozela bata bestearen ondoren eta baitatik, tresneria desarroilatuz ala produkzio moldea desarroilatuz, produkzio moldeen arabera gizarte moldeak eratuz, eta azkenean —beste zenbait maila pasa eta gero— sozialismoa datorrela. Baina sozialista

esaten diegun lurralde bakar bat ez da sozialismora horrela ailegatu. Nahitaez, berezitasunen oso begiratu beharra dago, egungo sozialismorik ulertzeko, errealitatea hori bada. Guk ez dugu hori teoria marxisten gezurtapen bezala ikusi nahi; baina ikus-ikusita dago, herri bakoitzeko berezitasunek berebiziko inportantzia izan dutela, bestela historiak ez zuen horrela ibili behar.

Sozialismora ailegatzeko bide asko dago, eta bakoitzak bere bideak dituela, esaten da. Ez dira berdin ailegatu sozialismora Sobiet Batasuna, Txina, Kuba edo Hungaria. “Yo creo que a estas alturas —irakurtzen diogu Carrillo-ri— todos los PC de Europa tenemos conciencia de que la revolución triunfará en nuestros países de forma muy distinta a como triunfó en Rusia, China, Cuba o en los países de Europa del Este”. Eta, berriz ere, Espainiako berezitasunak aipatzen dira.

Era berean, sozialismoak egin behar zuena, gauza nahiko sinplea zen Teorian: proletalgoak produkzio ondasunetaz jabetu behar zuen. Eta hori eginez gero, gerraren kausak, zapalketaren, ondasun partiketa txarraren, askatasunik ezaren kausak, eta abar, ezabatuta geldituko ziren. Eta bakea, libertatea, anaitasuna, aisia, nagusituko ziren... Holakorik ez dago. Aitzitik, sozialismoari tokatu zaizkion eginkizunak, orain artean, arras bestelakoak dira. Horiek ere xit ezberdinak leku batetik bestera. Afrikako edozein lurraldetan, esate baterako, jendeari lurra lantzen erakutsi, goldeaz baliatzen, behiak gobernatzen, eta abar egin behar izan du sozialismoak. Edo, sakabanaturik dabilen jendea hirietan bildu, lana sortu, eskolak egin, osasun publikoaz arduratu. Jendeari etxeetan bizitzen eta geldi egoten erakutsi, haizeak ematen dienean atzera basora ez daitezen. Hots, eginkizunik primitiboena. Sozialismoari tokatzen zaio, ehiztarien tribu gizarte primitibo batetatik gizarte moderno bat ateratzea, laborari ta langile industrial modernoak. Sozialismoak ez ditu problema berdinak aurkitu Sibirian, Pragan edo Lusakan... Eginkizunen aldetik ere, hortakoz, sozialismo bakoitza berezia da.

Sozialismoa kontraesan larri hortantxe kausitzen da: Teorian, berezitasunek inportantziarik ez duten historia-bidearen esplikazio batez. Praksian, salbuespen gisa eta berezitasunei eskerrak bakarrik esplika litezkeen errealitatez. Errealitatean salbuespenak besterik ez dago. Salbuespena da arau. Alegia: salbuespena berezitasuna da. Eta errealitatean dagoen dena hori da. Dena da berezi.

Berezitasunari geroz eta inportantzia gehiago emateko arrazoi bakarra ez da, bestela errealitateak ulertzerik ez dagoela. Gure inguruan, behintzat, arrazoi bortitza da sozialismo nazional bakoitzaren berjabetasuna salbatu nahia, Sobiet Batasunaren menpean erori gabe. Carrillok eta duten arrazoi bortitzena hori da, dudarik gabe.

Mendebaleko AK-en kasuan berezitasunon kontsiderazioa noraino ailega daitekeen, ikusita daukagu: parlamentarismoa eta Alderdi pluralismoa, etc., onartzerainoko ondorioetara heldu zaizkigu. Eta zeregin guziotan oso parte aktibo hartzeraino.

Honek denak ondorio asko du proletalgoaren jokabiderako. Lehenago esaten zen, proletalgoaren eginkizunok hau eta hori zirela, baina beste hori eta hura ez. Esate baterako, proletalgoaren eginkizunik ez dela “dretxo burgesak” edo “askatasun burgesak” irabazteko burruka. Proletalgoak bere eginkizun berezi-berezia zuen. Eginkizun guziz berezi hori, historiabidearen teoria hartatik ateratzen zen. Eta teoria horren arabera proletalgoak egin behar zuena, zen, beste kezka denak utzi, denak batera elkartu, burgesia uzkali, eta bera nagusitu, produkzio indarrak eskuratuz. Beste dena handik hara zuzenduko zen. Gutxi inporta zion, Italian oraindik nazio batasuna egin gabe bazeukaten, Frantzia iraultza burgesa aspaldi eginik bazegoen, Alemania absolutismoan bizi bazen oraino. Iraultza egin eta gero, horrek denak inportantziarik ez zuen izango.

Orain, ordea, sozialismora ailegatzeko bideari buruz arras bestelako usteak sortu dira. Mendebaleko AK-ak bide luze eta konplikatu batetarako prestamenak egiten ari dira.

Proletalgoak zer arduratu ez omen zeukan mila zereginetan, oso enpeinatzen ari dira: pornografia, diborzio eta aborto legeak bezain “hauzi burgesetan”, adibidez. Edo emakumearen emanzipazioa den bezalako eginkizun zeharo “burges” batetan. Errealitateak horiek direla, oso bitxi eta arraro entzuten da holako zerbaite: “nazio arazoa burubidatzea ez da proletalgoaren zeregina”. Entzun berria bait dugu horixe. Agi denean, komunistaontzat pornografia problema haundiagoa da, zentralismoak ia akabatu duen zenbait nazioaren problema baino (euskaldun, bretoin, korsikano, okzitano, katalan, galego eta beste)... Pornografiaren arazoarekin dabil behintzat oraintxe Frantziako AK berriro.

Ohartxo bi, hortakoz: kasu bakoitzeko berezitasunak aipatzen hasi, horiek halako enpeinuz aipatu, eta AK guztiok *Estatu* bakoitzaren berezitasunetan gelditzen dira. Horixe da konprenitu ezin dena. *Estatu* interesentzat balio duten arrazoiek, zergatik ez dute balio *nazioentzat* (Euskal Herria nazio den zentzuan)? Batasun eta berdintasun internazionalistaren alde ematen ziren arrazoi klasikoek, halare, Estatu interesen eta berezitasunen kontra askoz gehiago balio zuten, herri-nazioen interes eta berezitasunen kontra baino. Ez ditugu orain Marxen irakaspenak Estatuari buruz berriro aterako. Baina hori begien bistakoa da: internazionalismoa Estatu interesen hagitz kontrarioago zen, nazio interesen baino. Harritzeko samarra da, orduan, herri-nazioen interesen kontra betiko argumentu klasikoekin jarraitzea (funtsean hauxe: “proletalgoak ez du naziorik”), Estatu mailan berek argumentuok aspaldi ahaztu dituztenak. Ezin esan daiteke, nonbait, “proletalgoak ez du Estaturik”, baina bai, “ez du naziorik”...

Herri-naziotasunei buruzko irakaspen klasikoak, alegia, Marx, Lenin eta Stalinenak, arras beste praxi batean bururatuak izan dira. Proletalgoari mundu guzian batasunera dei egiteak beste zentzu bat zuen praxi hartan. Orain, oraingo praxiaz, herri-naziotasunei ikuspide haiek aplikatzekotan, lehenengo Estatuerei ere ikuspide haietzek

aplikatzea litzateke bidezkoena. Estatuari buruz beste plan-teamolde batzuekin egin beharra baldin bada, ordea, ez dira Estatuari baino nazio zapalduerik buruz gutiago egin behar. Eta horixe da, ikusten ez duguna.

Edo-ta, hobeki, hauxe da, ikusten duguna: beren Estatu mailan hori egiten dutenek, sobietarrak beren kontra dituzte. Eta horiek berak, nazio mailan gauza bera egin nahi luketenen kontra daude. Haundiago denek ttipiangoak morroin nahi dituzte. Mundu politika sobietarraren interesen kontra daude Estatu interes partikularrak; eta Estatu interesen kontra, nazio interes partikularrak, "herri gartzela" diren Estatuak. Jakina, gartzelan min hartzen duena, preso da, ez gartzela. Ezta gartzelaria ere.

Bigarren oharra: Mendebaleko AK-ak, Espainiakoa esate baterako, gatazka luze eta bizi batetan, oso lehiatu dira, beren Estatu interesen dretxoak direla eta. Sakrifizio haundiak egin dituzte horregatik. Alderdiaren batasuna bera arriskatu dute. Makina bat iskanbilarik eta zaratarik erabili dute. Ausart jokatzeko dute Sobiet Batasunaren aurrez-aurre. Biziki aktibo. Nazio arazoan, berriz, pasibo huts. Eta ez da ikusten, zergatik izan behar duten pasibo huts. Euskal Herriak askatasuna hautatzen badu, komunistek errespetatu egingo omen dute herriaren gogoia. Herriak erabaki dezana *onartzeko prest* egotea, da, egiteko prest omen dauden guztiak: beraz, egin nahi duten guztiak *egotea* da. Baina, onartu, euria, hegoa, edo kaskabarra ere, datozen eran onartzen dituzte sozialismoak... Hori esan nahi al da? Onartzea, politikan ez da ezeren programa positiborik. Eta hori, komunistek inork baino hobeto jakin behar lukete. "Herri zapaltzaile batetako sozialistak ez baldin badu propaganda egiten herri zapalduen bereizteko askatasunaren alde, ez da sozialistarik, ez eta internazionalistarik, xobinista da", esan omen zuen batek. Haren izena: Lenin.

Egia da, sozialismo europarrak ez duela tradizioz herri-nazioen alde burrukan. Baina Estatu interes partikularren alde apenas du batere gehiago. Edo, apenas izan be-

har luke gehiago. Eta, halere, oso aintzakotzat hartzen dizkigute orain Estatu bakoitzaren berezitasunak.

Nazioarteko sozialismoan kanbio haundiak nabari dira. Nazio arazoaz bakarrik dirudi, ez dela kanbiorik behar. Behintzat, somatzen dugun kanbio guzia, hortaz sarritxoago hitz egiten dela, besterik ez da. Berriz ere, nazio zapalduen arazoa biharko uzten da.

MUNDUAREN BATASUNAREN MITOA

Internazionalismo teoriak baino lehenago, munduaren batasun mitoak daude (batasun organikoa). Munduaren batasunaren mitoa oso zaharra da. Eta zahar bezain bortitza. Pentsaera mitologikoan bezanbat aurkitzen dugu pentsaera "ez mitologikoan", pentsamentuaren konstante gisa. Begirada llabur bat emanen diogu, sarri-sarri internazionalismoak zein pentsamentu estrukturari obeditzen dion erakusteko.

Mito ezberdin askok espresatzen du munduaren batasun ideia. "Arraultza kosmikoaren" mitoak, adibidez. Arraultza batetatik sortu bide zen mundua. Mito hau Txinan eta Indian bezalaxe aurkitzen dugu Ozeanian hala Perun. Internazionalismoa ezezik, mitoak interplanetarismoa ere irakasten duela, esan genezake: gizadia, natura, hilargi, eguzki eta izartegiak, harmonia osoan bururatzen dira denak. "Kosmos politiko" bat iruditaratzen da, lege unibertsal batek gobernaturik (Egipton *Ma-at* deritzan legea). Mundu batasunaren mitoak espresio era anitz aurkitu du kulturaren. Egiptoko piramideek munduaren lau alderdien harmonia adierazten dute. Sumerio, asirio eta babilonioekin, etc., jarrai genezake. Zikkurat babilonioek ideia sozio-kosmiko berdinak zertzen zituzten. Jerusalemgo Tenploak ez gutiago. Eta Akileren ezkutuan (ik. Iliada XVIII, 478 ta hur.), arraultza tankerako ezkutua, uniber-

tso guziaren irudia zegoen zizelaturik, zeru, lur eta itsaso. Ikuspide “monarkikoak” ditugu beti ere. Eta politiko-moralak. Hori batez ere. *Mundu guzia argitzen duen eguzkia bat-bera izateak* asko balio du mitologia guzi honetan, “justiziaren eguzkiaz” mintzoera txit goiz sortu eta zabaldu bait da gizonen artean. Gizon guzientzat berdina da eguzkia. Eguzki bat, ordenu bat, justizia bat. Kaiserrak eguzkiaz konparatuko dira (eguzkialdeko Agintariekin korriente; Erroman Senekak hasiko du). Justiziari eta egiari eguzki eta argi ohi deritza.

Izan da “Errege Eguzki” esaten zioten bat, Luis XIV-gn Frantziakoa bera. Errege honek menpeko guzien interesik ezberdinenak lotzen eta bateratzen omen zituen. Hortakoz, karroza batetan zeruan eguzki antzera dihoala, pintatu dute Gorteko pintoreek; eta haren azpian, lurtean, dena biziartzten duela... Montesquieuk lege zuzenari deritza halako eguzki: harek argiturik gizadiak aurreratzen eta prosperatzen du.

Mundu batasunaren eta harmonia unibertsalaren mitoak batez ere politikan izan du zerikusirik franko. Benetan interesgarri da guzi hori. Argigarri. Baina ez du merezi luzatzea: gai hori bakarrik liburu batetarako baino gehiago da. Gainera, badira azterketak. Mitoak utzi eta internazionalismo teoretara pasako gara, mitoaren egitura nola duten ikustera.

Internazionalismoaren teoria ez da mito hutsa, baina badu bere mito parterik. Batzuetan gehiegi. Horregatik, internazionalismo teoriak sarri postulatu abstrakto baten eta agindu erlijioso baten tankera du. Ez da mito besterik. Eta ez du zinezko interesen internazionalismorik adierazten, “obligazio” moral eta erlijioso bat baino. Internazionalismoa aipatzen diguten gehienek, ez dute begiratzen, *egungo* munduan eta nazioarteko egoeran *oraintxe* gure interesok, *gureok*, benetan nola aurkitzen diren. Ezpada edozein kasutan eta edozein situaziotan balio duen *imperatibo moral unibertsal* bezala aipatu ohi digute interna-

zionalismoa. Proletalgoaren inperatibo moral eta unibertsal bezala, hain zuzen.

Internazionalista izan behar da. Proletarioek internazionalista izan behar dute... Halaxe esaten da. Moralismoak sustrai sakonak ditu gure artean.

Oroit gaitzen: "Nazio guztietako langileen zoria, beren interesak berdinak *direlarik*, beren etsaiak berdinak *direlarik*, bat bera denez gero, elkarrekin egin behar dute borroka proletarioek". Hala dio Engelsek. Internazionalismoa ez da obligazio moralen bat, errealitateak emana baik. Konstatatu egiten dira interes internazionalistak: burrukaren internazionalismoa ez da ondorio besterik.

Marxek proletario guzien interes berdintasunean oinarritzen zuen internazionalismoa: interes berdinak, situazio berdina, etsai berdina, xede ta zeregin berdinak. Beraz, berdintasuna norainokoa den, zinezkoa ote den, begiratzea tokatzen da kasu bakoitzean. Eta, beti ere, berdintasun haiek adina balio du internazionalismoak. Beraz, euskal proletarioen internazionalismoa aipatzen bada, horixe besterik ezin gogoan izan daiteke: langileok besteekin elkartuaz zer irabazten duten, zer ez duten irabazten, zer galtzen edo galtzea arriskatzen duten. Horixe ikusiaz ateratzen da, zer nolakoa den internazionalismoa. Hortarako, "besteak" zeintzu ta nolako diren ere gogoan hartu behar. Halaxe zion Marxek: "Herriak benetan elkar daitezen, interes berdinak izan behar dituzte". Aho betez eta beroz internazionalismoa aipatzea, aldiari aldiko errealitate konkretuei lotu gabe, internazionalismoaren konzeptu mitologiko batez aritzea da. Konzeptu erlijioso batez.

Izan ere, gogora dezagun, badagoela "internazionalismo kristau" bat ere, ez herrien eta ez arrazen diferentziarik aintzat hartzen duena. Ez dago judurik eta grekorik. Denak bat eta berdín. Esklabo eta jaunik ere ez omen bait dago, arabera. Denok anaia, Aita beraren seme.

Bistan da, sozialistak internazionalismoaz mintzo garen, besterik adierazi nahi dugula. Eta ez internaziona-

lismoa bestela oinarritzen dugulako bakarrik. Ezpada baita beste sentido bat ematen diogulako ere. Internazionalismo sozialistari aldian aldiko errealitateek ematen diote, edo kentzen diote, bere sentidoa.

Bada Marxen anekdota bat, sozialisten Biltzar batetako, internazionalismo mitologiko hori nola arbuiatzen zuen. Arestian italiarrak burrukan ari ziren nazio askatasunaren alde. Frantzesek ez zuten begi onez ikusten hori. Nazioak eta nazio arazoak paseak zirela, predikatzen zuten; oraingoak beste zeregin batzuk zirela. Marxek bipilki ostera zien frantzesoi; naziorik ez dagoela esanez, zuek esan nahi duzuen da, Frantzia beste naziorik ez dagoela (Frantziak ez bait du italiarren problema hori); naziorik ez dagoela, esaten ari zarete, baina ederki hitz egiten duzue Londonen frantzesez, etc.

Horrela ulerturik, internazionalismoak ez du herri nagusien xobinismoa besterik adierazten. Leninek sarri ohar-tarazi du hori.

Polonian, ezagunki, internazionalismoak nazionalista izatea eskatzen zuen, Engelsen ustez, lehenengo nazio arazoa konpondu arte.

Ez dugu derrigor Euskal Herriko kasua Italiako edo Poloniakoaz berdindu nahi. Esan nahi dugun bakarra, da, internazionalismo sozialista politikoa dela, konkretua dela, ez mitologikoa. Errealitate politikoek ematen dizkietela bere sentidoa eta neurriak.

Areago, internazionalismo sozialista ez da internazionalismoaren (edo kosmopolitismoaren) printzipio burges abstraktuaz nahastu behar. Funtsean kristauen eta estoikoen internazionalismo mitologiko bera zen hura, arrazionalismo soinekoz: gizon denak berdinak dira naturaz, antinatural da mugak eta diferentziak sortzen edo begiratzen ari-tzea. Ideiaok erruz predikatu dituzte Ilustratuek, Jeffersonek, Leibnizek, etc. Asmatu zen utopia ederrik aski: Jean Bodinek —*Colloquium Heptaplomeres*, 1588— mundu guzua Errepublika bakarrean bildu nahi zuen. Eta antzeko

utopietan enplegatu dira Crucé, Abbé Saint Pierre, Lessing, Kant, eta abar. Bada, beraz, berrehun urte eta piko, ideiak predikatzen direla. Nahiko denbora, zer balio duten ikusteko.

Honez gero badakigu, natura famatu hori asmazio hutsa dela. Natura "ideal" bat. Zinez *dagoen* natura ezaguarazten duena, forma eta diferentzia ugaritasuna bait da, ez uniformitatea. Interes desberdintasuna ta ugaritasuna, hortakoz. Halare ideiak iraunkortasun harrigarria erakusten digute mendez mende. Oso erraza bait da, esate baterako, mundu guziko proletalgoaren batasunaz eta berdintasunaz hitz egitea, kasu konkretuetako interes eta problema diferentziei kasorik egin gabe. Hots, proletalgoaren "natura abstraktuaz" mintzatzea.

Internazionalismoa predikatzen digun askok, kaskoan horrelakoxe burutapenak darabiltza oraindik. Mundu guzia Errepublika bat. Mundu guzian denak libre, eta berdin eta lege bat-bera. Mundu guzian nazio bat eta hizkuntza bakarra. Klase bat bakarra; h.d., klaserik ez. Komunisten ARRAGOAN, adibidez, horrelako usteak azaltzen ziren: "una síntesis monolingüística universal", etc. Gauza bera predikatzen ziguten sozialistek. Arraultza bat mundua. Usteok dituenak nekez lan asko egingo du nazioaren edo nazio-hizkuntzaren eta nazio "berezitasunen" alde... Kultura "partikular" baten alde, esate baterako.

Ez dira esperantza txarrak, onak badira.

Onak ez dakit, zaharrak bai. Asmuok zailak ere ba omen dira. *Eloge historique de la Raison* hartan Voltairek hala aitortu digu: "*Les lois vont être uniformes. Rien n'est plus à désirer; mais rien n'est plus difficile*".

Pentsabide honi urrutiraino segi genezaioke. Inspirazio orientalekoa dugu, dirudienez, beste gauza askoren antzera. Pentsabide edo teoria politiko jakin bezala, Alesander Haundiarekin sartu da Europa aldera. Erromatarrek —Augustok bereberki—, Inperio kristauaren ameslariek, Napoleonek, etc., berriztatu dute behin ta berriro. Ale-

sander Haundiak “mundu osoko bakea, elkartasuna... herri guziak elkarrekin batera biziaz” nahi zituen. Hauk ziren konkistatzaile makedoniarraren asmoak, Plutarkok dioskunez: “bizidun guzientzat lege bakarra, mundu osoa Dretxo bakar eta berdinez gobernaturik, eguzki bat eta berak mundua argitzen duen bezala...” Jupiter Ammon-en Tenploan zin egin zuen, Jainko beraren kreaturak direla gizon denak. Denak berdinak, hortakoz, eta lege berdinari azpiratuak, azkenean denak interes berdinak dituztenak. Lege bakar hori berak ezarri nahi zuen. Eta berak izan behar zuen agintari bakarra mundu guzian.

Internazionalismoa printzipio sozialista bat izan daiteke. Edo printzipio burges abstraktu bat ere izan daiteke. Edo fede kristauaren ondorio bat. Edo mito bat. Berezi egin beharko da, hortakoz, internazionalismorik aipatzen dugunean, zer internazionalismo den, esaten duguna.

Internazionalismoa gora ta internazionalismoa behera. Baina egunoroko gure praksian internazionalismo problemarik ez dugu, esate baterako, Chicagoko langileekin eta ez Santiagoko antifaxistekin eta ez Buenos Airesko demokratekin deklarazio platonikoetan agertzen duguna ezpada. Problema beste batzuekin dauzkagu. Eta problema horiei “internazionalismo problemak” esaten diegu. Hala ote dira? Adibidez, askok internazionalismoa aipatzen du; baina, aldi berean, ez du onartzen, problemaok zinez nazio ezberdinen elkar aditze eta elkar hartze problema direnik. Eta bat nazio zapaltzailea dela, eta harexek zapaldua bestea. Nazio garenik onartzen digun baino jende askoz gehiago bait da, izpiritu internazionalista eskatzen ari zaiguna... Internazionalismoa eskatzen zaigu, naziorik ez omen garenoi. Gure egoeraren paradosak.

“Internazionalismo” problemak japoneseekin ez baldin baditugu, eta bai espainolekin, ikus dezagun, espainolekin ditugun problemak, internazionalismo problemak ote diren, ala inperialismo problemak ote diren. Inperialismoa ere beti “internazionalista” bait da.

Problemak beren errealitatean hartuaz, internazionalismoak zer esan nahi duen, eta zer eskatzen duen, laster erabaki liteke. Interpretazio diferentziak beti izango dira. Baina diferentziak nondik sortzen diren behintzat, jakin ahal izango dugu. Gure ta gure partzuerren azterketak, gure ta gure partzuerren xede ta jomugen alderapenak, gure ta gure partzuerren historiak eta bion arteko harremanen kondairak, gure ta gure partzuerren interesen konparazioak: horiek erakutsiko digute, gure ta haien interesek benetan koinziditzen ote duten, bion zoria berdina ote den eta bion etsaiak berak, eta gure burruka zenbait eta nola internazionaldu behar den, funtsean burruka bera delako; edo internazionaltzetik ez dagoen, burruka berezia delako. Internazionalismoa horixe besterik ez bait da: errealitatean internazional *dena* burrukan ere internazionalki aurrera eramatea. “Herriak benetan elkar daitezten —ikusit dugu esaten zuela Marxek— interes berdinak izan behar dituzte”. Eta Engelsek: langileek elkar hartu behar badute, beren etsaiak berdinak direlako eta beren interesak berdinak direlakoxe da. Hori, hein batetan, egia da: alegia, egia da, bai langile japonosari buruz eta bai langile espainolari buruz. Baina problemak ez bait daude hein hortan! Dauden heinean eta konformidadean planteatu behar...

Hainbeste aipatzen den internazionalismo hortaz, benetan gure interesei dagokiena, langileei komeni zaiena, eta abar, besterik ez balitz adieraziko, apenas izango litzateke hain zail, elkar aditzea.

Internazionalismoaren historian badaude, izpiritu internazionalista guti agertu duten sozialisten kasuak herri ttipi zapalduetan. Zergatik ukatuko dugu hori. Baina internazionalismoaren historian konstante bat hau da, beste hau: herri zapaltzailetako sozialismoak ez duela arrunt izpiritu internazionalistarik batere erakusten herri zapalduetik. Baina hori beti *a posteriori* aitortu da. Burruka bitartean beti berdin gertatu da: herri zapaltzaileko so-

zialistak beti herri zapalduko burrukariei erasiaka eta masiaka aritzen zirela, internazionalista izan behar dela, nazio arazoak burgeskeriak direla, etar abar. Gero, izpiritu internazionalista falta zitzaienak, salatzaile haiek berak zirela, aitortzen da, eta patxada-patxadan segitzen da, ezer gertatu ez balitz bezala. Beti halaxe izan da.

Txekoslovakian, Finlandia-Suomin, Polonian bertan, hala izan da. Sobiet Batasunean ere, Leninek aitortu zenez. Berdin Algerian, etc., eta Vietnamen bertan, hastapenetan. Euskal Herriaz ere hala esan du Dolores Ibarrurik: Alderdi Sozialistak ez zuela nazio arazoa ulertu; eta mogimendu nazional guzia burgesen eskuetan utzi zuela... Orduan, internazionalismoa besteei eskatu adina berek ignoratzen zutenak, sozialistak ziren. Historia ez omen da berritortzen. Baina historia berritortzen ari da, bai, guziorien begien bistan. Sozialismo "zaharrei" mogimendu nazionalak berriz ere eskuetatik ihes egiten die. Eta nola ez, nazio arazoari buruz ageri duten erabateko pasibitateaz; erreze-loz eta gaitzerizgoaz ez denean.

Azken urteotako euskal literatura polemikoan behintan berriro gogarazi da hori: sozialismoak huts egin duela nazio arazo gehien-gehienetan; internazionalismo aitzakiaz beti. Nahiko erakusbide atera da, orain kasu gehiago aipatzeko: Txekoslovakia, etc. Ordua da, hainbeste aipatzen den internazionalismo hortan, zerbait ustel ez ote dagoen, pentsatzen hasteko.

Eta, bai: zerbait ustel dago. Eta haxe da usteldura: printzipio metafisiko bihurturik dagoela internazionalismoa. Horrela, berriz, praksian, beti *haundien alde bakarrik* balio du. Kasi ez da posible teoria abstraktuenetan ere situazio bat bururatzea, internazionalismoak haundiari sakrifiziorik esijitzen diona ttipiaren alde.

Sozialismoak asko eboluzionatu du azken urteotan. Agian inor gutik sinesten du, gorago aipatu ditugun mitotetan, iadanik: Errepublika bakarra mundu guzian; hizkuntza guziak elkarrekin urtu ta bakarra sortu, etc. Baina pen-

tsatzeko ta juzkatzeko habitoak ez dira aldatu. Pleguak eta jarrerak. Internazionalismoa ez zaio errealitate konkretuari erreferitzen, oraindik filosofia unibertsal bati baizik. Mitoak utzi dira, baina ez metafisika. Mito haiekin sortu zen munduaren metafisika, historiaren metafisika.

Hala esaten da: historia lege unibertsal batek gidatzen du. Progresoak. Gauzak ez dira nolanahi gertatzen; gertaera bakoitzak bere kausak ditu. Kausaok beti klase forman agertzen dira historian. Klase burrukaotan klase bakoitza beti bere buruaz bat eta berdin da edonon. Orain proletalgoa bat eta bera da mundu guzian eta elkar hartu behar du...

Esan dugu, berez arrazoipide zuzena dela hori, zuzen erabiltzen bada. Alegia, langile euskaldun eta espainolaz adina balio duena langile euskaldun eta japonenez. Langile euskaldun eta espainolari buruz internazionalismoak beste kontenido bat baldin badu —eta badu, zer duda— arrazoipideak ere konkretuago izan behar du, esan bezala. Hori da, inoiz apenas egiten dena. Espainol eta japonen baten arteko diferentziek ebidenteak bait dirudite; euskaldunaren eta espainolaren arteko diferentziak, aldiz ez dira batiere ebidenteak jende askorentzat.

Hortaz, ba, internazionalismoa mitologiko izan daiteke. Erljioso izan daiteke. Burges arrazionalista izan daiteke. Eta, gainera, metafisiko izan daiteke. Eta guzi horietan ez da oraindik internazionalismo sozialistik.

Internazionalismo metafisiko-moralaren adibide seinagarriena estoikoak dituzkegu. Filosofia estoikoak eragin handia du mendebaleko pentsamentuan. Lehenengo, bai Erroman eta bai kristautasunaren gainean izan zuen eraginaren bidez. Gero, Ilustrazio garaian ezagutu zuen Berbizkunde bidez. Estoikoen atzetik goaz. Filosofia estoikoaren egitamuak nabari zaizkio gure pentsamentu sozial eta politikoko guziari. Pentsamentu honetan metafisika (filosofia) eta mitologia sarri nahasten direla, gauza ezaguna da. Aipa dezagun, estoiko behinenak ez zirela jatorriz grekoak, ez-

pada bai siriar, fenizio, babilonio, kartagines edo Medite-
rraniako Uhartetarrak. Eguzkialdeko mitoetan oso jantziak.

Estoikoak ditugu, internazionalismoaren teoria garbi
bat bururatu duten lehenak. Beraz, interes berdintasunaren
teoria osatu dutenak. Honelaxe: munduan gauzak ez dira
nolanahi gertatzen; lege orokar eta beharrezko batek gi-
datzen ditu oro gertakariak. Lege hau da munduaren, his-
toriaren arrazoimena (*Logos*). Lege horren arabera bizi
dela gizona, *dagokion* bezala bizi da, zuzen bizi da eta,
gainera, derrigor historikoaren arabera bizi da. (Derrigor
historikoa - *heimarmene* - probidentzia da orobat - *pronoia*).
Lege hori egile da, ez egole: berak egiten du ta eratzen
du mundua. Arkitekto bat dela, esango digute. Artisau bat
dela. Baina, batez ere, lege hura ezagutzeak eta hari segi-
tzeak argitzen etaosatzen du gizona. Hortan datza bertu-
tea ere. Lege hura nahitaezkoa bait da; eta guzia eta oro
governatzen du. Eskemaotzek aurkituko dituzu berriro ma-
terialismo historiko klasikoan.

Eguzkiarekin konparatuko da lege hura. Lege hura da
justiziaren iturri. Zuzentasunaren eta zorionaren iturburu.
Eta huraxe da, politikan ere nola jokatu behar den jakiteko
arau. Legeak diharduen bezalaxe ihardun behar bait du
gizonak. Legeak governatzen duen bezala gobernatu mun-
dua, eta horra governu zuzena. Lege horrek agintzen due-
nez bestera jokatzek, sortzen ditu injustiziak, zorigaitzak
eta kalamitate guziak. Zizeronen hiru hitz nagusitan bil-
daiteke hau dena: *ratio* → *lex* → *administrari*. Horrela iris-
ten da, Lege hari obedituaz, harmonia unibertsala.

Lege hori, lehenengo, beharrezkoa da. Zuzen-zuzen
bere bidea darama. Geure gogoz ala gogoz kontra, baina
gizonon esku ez dago lege hari nahitaez jarraitzea besterik.
Konparazio batekin adierazten dute: gurdi bati loturiko
zakurra bezala gara; gurdiari geure gogoz segitzen badiogu,
hainbat hobe, aisa goaz, gurdiak berak laguntzen digu; se-
gitu nahi ez badiogu, alferrik tematuko gara tiraka ta erres-
taka, gurdiak eramango gaitu, nahi ala ez, eta oinazea

bestarik ez dugu irabazten. Gure gogo sujetiboa munduaren gogo objetiboari egokitzea eta lotzea da, hortakoz, irtenbide zuhur bakarra.

Bigarren, lege hori unibertsal eta guzientzat berdina da. Esklabo ala nagusi, greko ala eskita, ez dago alderik.

Mendebalean eskema honexekin gabilta aspaldian. Legea zer den eta non ageri den, eritziak aldatuko dira. Baina eskema bera —eta eskema metafisikoa da— ez da aldatuko. “Legeak” izena aldatuko du, Legea bera ez da aldatuko. Egitamu metafisiko hori gordeko du pentsamentuak. Historiaren filosofia guziek.

Non ageri da lege hori? Zer da historia gidatzen duen *Logos* edo arrazoimen objetibo eta eguzki hori? Hor daude diferentziak. Baina ez oinarrizko eskeman.

Estoikoek monarkia “ilustratu” batetan ikusten dute Legea bete eta betearazteko sistima hobereana. Zenonek esaten zuen, Filosofo-Errege bat litzatekeela Gobernuak ideala. (Antigonos Gonatas despota makedoniarraren adiskide zen bera.) Halaber Senekak halako Kaiser bat lortu nahiko du, Neronen hezkuntzaz. Marko Aurelio bera izanen da Kaiser filosofo. Plinio gaztearen laudazioan Trajanori, ederki azaltzen dira berriro ideiak: Kaiserraren egin-kizuna munduaren ordenu zuzena begiratzea da; Eguzkiak bezala, Kaiserrak herri guzien ontasuna ta aietasuna garrantizatzen ditu. Nola? Guzientzako lege zuzenez. Komerzioa bizkortuaz: lurralde batetan falta dena beste batetik ekarraraziaz, ondasunak banatuaz eta guziei zabalduaz. Bakea gordeaz. Estatuan —erantsiko dute pitagorikoek— lira jotzaileak hari ezberdinak harmonian joaz bezala, herri guziak harmonia oso-osoa gobernatuaz, Kaiserra *Logos* kosmikoaren pertsonifikazio da.

Kristauek esango dute *Logos* hori Jaungoikoa dela. Sortzailea. Eta Gobernu zuzena Jaungoikoaren legeak betearaztea dela. Horrela dihoakigu Erdi Haroa.

Gogara dezagun, laburki, Erdi Haroko “internazionalismoa”, euskaldunei mila gerra eta kalamitate sortu zientz

gero. Nolarebait Erresuma politikoak Jainkoaren erreinua-
ren espilu edo antz bezala bururatu dira Erdi Haroan. Ze-
ruan Jainko bakarra eta Jainkoaren erreinuan Artzain bakar
bat bezala, Erresuma politikoan Errege bakarra *autoritate
sokratua* izanen da; Errege bakoitzaren gaisetiko Kaiserra,
hain zuzen. Kaisergoa sokratua zen. Kaiserra konsakratu
egiten zen. Kaiserra da *Logos* politikoak. Eta Abogardo Kar-
lomagnoren teologoak irakasten zuenez, Kaiserrak herri eta
gizon guziak “Jesukristoren Gorputz bakarrean” biltzen
ditu, “giza lege bakar bateko erreinua osatuaz”: gizon gu-
ziak bait dira Jesukristoren Gorputzeko menbru, gizon gu-
zientzat lege berdinak mundu osoan. Gorputza bat, legea
ere bat. Teoria honek internazionalismoa eta gizaki guzien
berdintasuna finkatzen zuen. Baina badakigu, Konkista
Dretxoa ere oinarritzen zuela: Kaiserrak, eskubide osoa
ezezen, obligazioa zuen kasik; bere mendeko ez ziren he-
rriak konkistatzeko (kristau ez ziren herriak batik-bat),
gorputz mistiko hartan herri eta gizon guziak Jainkoa bai-
tan elkar zitezen... Frankoen gerrak euskaldunekin denok
dakizkigu. Historian behin ta berriro eta ia beti, prakti-
kamente beti, konstatatzen den bezala, internazionalismo
teoria inperialismo teoriarekin nahasten da... Espainiak
ere, “indio gaisoak Jesukristoren Gorputzeko menbru bi-
hurtzarren”, konkistatu zituen Indiak.

Burgesiak predikatu duen internazionalismoa, zein
erraz bihurtu den inperialismo biluz eta huts, ez daukat ira-
kurleari agertu beharrik. Eta beti hala izan da, praksian:
internazionalismoa eta inperialismoa bizkiak dira beren mo-
delo teorikoen aldetik.

Ilustrazioko filosofoek esango dute, *Logos* hori lege
naturala dela. Eta Gobernu ona, lege naturala konplitzen
duena, dela. Gizartekera zuzena ta bidezkoa, *ordre natu-
rel* hori gordetzen duena, da. Lege unibertsala ebanjelioa
izatetik, Lege unibertsala ordenu naturala izatera etorri
gara. Eboluzio bat dago: teologiatik filosofiara. BAINA oi-
narrizko eskema metafisikoa, mitologikoa, gordeaz.

Ideiaok arras konformista kontserbakoiak izan daitezke, autokratikoak. Eta iraultzagileak halaber. Segun nola erabili. "Lege unibertsalaren" izenean edozein legekerari eta aginpide ezarriri balioa ukatzea erraza bait da. Hor dago Lege honen anbiguitatea: berdin du barnean, segun nola hartu, autokratismoaren hazia, nola iraultzaren hazia.

Antzinatean, filosofia honekintxe Asia Ttipiko esklabo iraultza haundia daukagu, Aristoniko buruzagi zuena. Esklabo erreboltatuei *heliopolitarrak* zeritzaien: Eguzkiaren hirikoak. Eguzkia, esaten zuten, berbera da nagusi eta esklaboena; gizon guziak berdina dira, guziak eguzki batek argitzen dituen bezala. *Eguzkiaren Hiriarena* utopia sozialisten irudi arrunta izango dugu handik aurrera. Campanellaren *Civitas Solis*, *Idea Reipublicae Philosophicae*, aipa daiteke. Alesander Haundiak, berriz, ikusi dugu, bere inperialismorako zerabilen arrazoipide hori bera.

Kristautasunak berdintasuna guzian Jainko semetasunean ipini du. Kristautasunak ere badu tradizio iraultzagile sozial bat: Ioakin de Fiore, *fratticelloak*, Tomas Münzer, etc. Tradizio hau orain berriro indarberitzen ari dela, ematen du, Hego Ameriketara bederen. Baina, jeneralean, modu kontserbakoiaren erabili izan du Elizak berdintasun unibertsalaren printzipioa.

Dretxo Naturalaren interpretazioak, orobat, alde batek kontserbakoiak eta bestetik iraultzagileak agertu dira. Kontserbakoi: ekonomista inglesen eta fisiokraten teorian, batik-bat. Natura nagusi da, burua makurtu eta menperatu egin behar zaio; dauden harremanak eta gizarteke-
rak (klase diferentziak, etc.) naturak halaxe nahitakoak dira. Iraultzagilea: naturak gizon guziok berdin egin gaitu, etc. (demokratismoa). Ideiaokin egin zen iraultza burgesa. Alde baterako nahiz besterako erabil daiteke ideia bat eta berbera. Kasu honetan *naturaren* ideia.

Sozialismoan ere ideiaok anbiguitate berberaz jarraitu dute. Honekin internazionalismoaren arazoan sartzen gara berriro. Internazionalismoa iraultzagile izan daiteke; eta

egoera batzuen kontserbatzaile ta erreakzionario izan daiteke. Hori ez da ahaztu behar.

Ikus dezagun oinarrizko eskema hura lehenengo, labur-labur. Zer da historia gidatzen duen *Logos* hura, arrazoi hura? Produkzio legeak. Hots, klase burruka. Horrek determinatzen du historiaren ibilbide objetiboa. Gurdiari lotuta goazen zakurrak gara, gogoz ala gogoz kontra.

Gauzak —esaten da— ez dira nolanaahi gertatzen. Historia es dabil edonola. Badu ordenu bat eta harmonia bat. Gertakari guzien abarrarte nahasiak badu bere gerria eta historia bihurriak badu bere ardatz garbia. Lege beharrezko eta orokar batek gidatzen ditu gertakariak nahiz historia eta lege horren arabera doa progresoa. Gurdiari lotuta bezala goaz: “gizon-emakumeak beharrezko eta beren gogoz gaindiko zerari (produkzio indarraren mailari eta tankerari) menperaturik ari dira”, idatzi du Marxek. Marx da historiabidearen eta progresoarean ardatza argitu duena; “zientifikoki” aurkitu duena historia daraman Lege orokarra. Produkzio baldintzek eratzen dute gizarte bakoitzaren tokian tokiko egitura sozial-ekonomikoa; oinarri honen gain eraikitzen da legeri, politik, ideologi gainegitura. Zer-izan ekonomikoak determinatzen du zer-uste ideologiko guzia: gobernukera zuzenik zer den, zer den Dretxoa, etc. Zer-izan ekonomikoa aldatu ala, bere atzetik darama beste dena. Horrela doa historia, maila batetik bestera. Lege onak eta zuzenak, azken finean, bide honi dagozkionak dira. Jokabide zuzenak, bide hau errazten dutenak. Justizia, progresoari laguntzen diona. Libertatea, beharrezkotasun objetiboa ezagutzean datza, eta abar. Gurdiari gogoz segitzen dion zakur izatea da burubide bakarra. Eskema ezagunak ditugu hauk guziok. Lege unibertsalak gidatzen du historia. *Logos* batek. Derrigorrak, hots, probidentziak. Eboluzio bat dago berriro: filosofiatik zientziara heldu da eskema metafisiko hura.

Teoria honen beste alderdi batzuk zehaztu beharrik ez dago orain: batez ere, produkzio gisaren desarroiloa dia-

lektikoa dela; historiak ere dialektikabidea daramala, hortakoz. Eta abar.

Historiaren ibilia produkzio gisak erabakitzen badu, produkzio gisan inportanteak dira (produkzio) harremanak. Hots, azkenean, produkzio ondasunen jabe zaren ala ez. Jabe bazara, nagusi zara. Ez bazara, morroin zara. Hau da, produkzio moldean zer leku hartu, klase bat ala beste zara. Beste klasea zure etsai da beharrik. Menpean zauzkana. Zupatzen zaituena. Nolatan zupa zindezke? Produkzio ondasunen jabea bera delako. Horregatik, berak erabaki dezake zer den zuzen eta oker, zer egin, zer utzi. Edo, hobeto, historiak erabakitzen duena zer den zuzen, zer egin, eta abar, beti nagusiaren alde da: berak bait ditu progresoreen tresnak.

Eman dezagun morroin zarela. Proletario. Zein izan daiteke proletarioaren interesa? Bistan da: produkzio ondasunen jabetzea. Mundu guziko proletario guzien patua bat eta bera da. Interes berbera dute. Etsai bera. Eginbide bat... Jakina baietz! Proletalgoaren definizioak berak ematen du hori! Gauzak horrela definituaz eta mugatuaz, planteo maila hortan, ez dago duda izpirik ere. Horrelaxe izan beste erremediorik ez dago eta horrelaxe da, izan. Gauzak horrela planteatuta, gauzak horrelaxe dira: gauzaren planteamoldeak egiten ditu gauzak holakoxeak.

Internazionalismoaren proklamazio asko ez da maila "metafisiko" honetatik errealitate xehera jeisten: mundu guziko proletarioek etsai bera dutela, etc. Egia, noski. Baina oso guti esan nahi duen egia. Orokarregi delako. Berriro esateko: Japongo burgesia, izatez, Japongo proletarioena bezain euskal proletalgoaren etsai bait da, izan; baina euskal proletalgoaren buruhauste ta burruketan ia inoiz ez da suertatzen burgesia haren izenik, ez aipaldirik. Hori bait da problema. Bestalde, planteo maila honetan, mundu guziko proletarioak ezezik, menpeko guzi-guziak daude egoera berdinean, proletario izan ala ez.

Errealitateak beste muga batzuk ditu, beharbada gizonok mugatuago garelako ideiak baino.

Beraz, hori dena internazionalismo "metafisikoa" da oraindik (truko hutsa ez denean!). Gure artean sarti aurkitzen dugu. Bera aurkitzen dugu sarriena. Ez da harritzekoa, euskal ilteratura polemikoak azken urteotan gehien kritikatu duen gauza bat, marxismo "metafisikoa" izan bada. Marxismo erlijiosoa, esan ohi denez. Izan ere, gustatzen bazaigu eta ez bazaigu: marxismoaren modu batzuk, aztertu, eta erlijiosoak ageri dira.

Internazionalismoa erruz aipatzen da. Baina zer internazionalismo da, ahoz-ahoz eta hitzetik hortzera dabilen hori: mitologikoa, erlijiosoa, burgesa, metafisikoa ala benetan sozialista? Nik uste: denak nahasten dituen.

Ikus dezagun praksian. Zeinek aipatzen du gaur gehiena internazionalismorik? Eta zeinek hartzen du *bere alde*, bere bentaja delakoan? Sintomatiko da hori. Eta xit ohargarri da hori: gaur internazionalismoa gehien aipatzen dutenak, eta *beren alde* bentaja bezala hartzen dutenak, "haundiak" dira beti ttipien kontra. Sobiet Batasunak Iugoslabiaren kontra nahiz Italiako, Frantziako eta Espainiako Alderdi Komunisten kontra, beti internazionalismo printzipioa ateratzen du. Alderdiok ez omen dira internazionalistak. Eta Espainiako Estatuan komunistek euskaldun sozialista abertzaleoi, horixe bera esaten digute: ez gara internazionalista. Beleak esaten zion xoxoari... Jauntxo ideologia huts bihurturik dago internazionalismoa! "Internazionalismo printzipioa sakratua da", esaten du Carrillok serio-serios. Egungo internazionalismoa hobeto akusatzerik ez dago...

Hori gertatzen da beti printzipio metafisikoekin: sakratuak izaten direla. Mundu desakralizatu batetan bizi gara, ordea.

ZAMA ASTUN BATEN AZPITIK

Mogimendu nazionalak eta sozialak, XIX.gn mendean, bi korrante kontrario gertatu ziren. Eta marxismoa ere, Marxena, antinazionala gertatu zen, kondizio haietan. Honela sortutako tradizioan, marxismoak, nazio arazoa ulertzerira iristeko, zama astun bat bota beharko du gainera.

Euskal Herrian ere abertzaletasuna eta sozialismoa (berezi marxismoa) elkarren etsaiak gertatu badira, ez da fenomeno orokarrago baten ondorio eta parte arrunta besterik izan. Espero dugu, halare, abertzaletasun/sozialismo (marxismo) antinomia horren garaia pasea dela, erakundetan (PSOE-n, PNV-en, PCE-n), arrazoi historikoengatik, luzapenik oraindik eduki arren.

Nazionalismoaren eta internazionalismoaren artean kontradiziorik ez dagoela (derrigor) erakusteko, nazionalismoa zer den, ikusi beharko genuke. Konplexitate haundiagoak utzita, esan dezagun, nazionalismoa, nazio bakoitza bere buruaren jabe politiko altxa dadin mogimendua dela. Orain abertzaletasuna eta nazionalismoa ez ditugu berezten: abertzaletasunak, aberriaren burujabetasun politikoa duela xede, ulertzen dugu.

Marxek, ordea, errealitatea interpretatzeko duen aparatuan, ez dauzka "nazio", "aberri", konzeptu horiek (1).

(1) Hobeto esan, periodo historiko iragakor batetarako bakarrik erabiltzen ditu: burgesiaren aro historikorako.

Gizarte berria, sozialista, eraiki behar duen klaseak, proletalgoak, munduari burgesiak ezarri dion egitamua desegin eta gaindiatu behar duenez gero, nazionalitate (nazio) arteko mugaketak ere gaindiatu egingo dituela, pentsatu dute, beste gabe, Marxek eta Engelsek. Hau da, nazioak ez dituzte burgesiaren produktu bezala baino kontsideratzen. Gizarte berrian nazioak eta nazionalismoak desagertu egingo dira.

Nazioari begira daudenak, Marxek zeritzanez, "burgesak eta beren idazleak" bakarrik dira jadanik. Gainerantzean, librekanbioak, desarroilo teknologikoak, kulturaren hedapenak, gaindiaturik daukate nazioa, bai faktore material gisa eta bai psikologiko gisa. Bat eta bakarra bilakaturik omen dago mundua. Elkarrekiko dependentzia ekonomiko geroz eta haundiagoak nazioen artean, mundu merkatuak irekitzen dituen edonolako harremanen ugaritasunak nonahiko jendeen artean, funtsean "berezitasun" nazionalak oro xahutu omen dituzte: produkzioak nahiz kontsumoak, karaktere geroz eta unibertsalagoa dute. Eta, prozesu honen buruan, gaurko literatura lokal eta nazional ugarien beren lekuan, Marxek uste duenez, literatura unibertsal bat ere sortuko omen da, bakarra mundu guzian. Nazioak objetiboki gaindiaturik daudela, esan badaiteke ere, subjektiboki burgesiak nazioari oso atxekirik darrai (zenbait interesengatik) eta bere atxekitasuna langile artean zabaltzea ere lortu du (engainuz). Berez, ordea, proletalgoak ez du prejudizio eta herstukeria nazionalik: proletarioen "hezkuntza eta mogimendu guzia esentzialki humanitaria, antinazionala da". Langileek ez dute beste interesik, nazio guziak anaiatzea baino. Eta egin ere horixe eginen dute, jabego baldintza kapitalistak, beraz, esplotazioaren kausak, desegin orduko: Marxen aburuan horiek bait dira nazio arteko konfliktoen eta, beraz, nazionalismoaren, sustraiak...

Ikus daitekeenez, "nazio" eta "nazionalismo" k sentido negatibo bat dute Marxentzat (proletalgoari gagozkiola),

konzeptuen beren mailan jadanik: “nazio”k herstukeria adierazten du; “nazionalismo”k esplotazioa eta nazio arteko borrokak... Proletalgoaren egiteko historikoa, nazioaren arazorik gabe bururatzen da: nazio arazoak eta nazionalismoak behin eta betiko superatzeko xedez, hobeto.

Ohar asko egin beharko litzaioke guzti honi: Marxek «nazio»rekin ulertzen duena, ez da guk ulertzen duguna, etc. Ez Marxen nazio konzeptua, ez kontextua, dira orain darabiltzagunak. Ekiboko asko sortzen da, hortakoz, Marxen pasarteak beste gabe aipatuz. Baina hori dena esan samarra dago.

Marxek ez duela «ulertu» nazio arazoa, orobat, topiko samarra bilakatu da. Beste gauza bat da, halare, marxismoarekin ez dagoela ulertzerik nazio arazoa (edo bada-goela)... Segun zein marxismorekin! Arazoak bizantino samarra dirudi. Baina bizantino ez beste edozer gauza da, ondo begiratzen badugu.

Sentido historiko batetan, kontua konstatatzea besterik ez bada, erantzunak ez dirudi zaila: marxismoak, egon denak (Marx, Engels, Lenin), egon den situazio eta molde konkretuetan (Ingalaterran, Alemanian, Errusian), egin izan dituen planteamenduak literalki hartuta, apenas esan daiteke, oso postura positiboak izan dituenik nazio arazori buruz, guk planteatuta daukagun bezala. Eta, ikusi ere, ikusten dugu, zein posturataraino ailegatu diren, de fakto, tradizio horren barruan, XIX.gn mendean hasi eta geure egunotaraino, marxismo ofiziala eta leninismo ofiziala, Euskadiko arazoan bertan.

Baina, agian, marxismoa ez da, eta leninismoa ez da, Marxek eta Leninek paperetan utzi dutena ahalik literalen errepikatzea. Eta, orduan, oso problematiko bihurtzen da, marxismoa zer den erabakitzea, situazio konkretu bakoitzean egiten dena ez bada. Eta, orduan, marxismoa eta abertzaletasuna elkar daitezkeen ala ez daitezkeen, problema praktikoa da, eginez ala ez eginez erabakitzen dena, ez printzipiozkoa eta alde zurretik jakina... Arazo teoriko be-

zala, ekibokoz jositako arazoa genuke hau, hitzen sentidoa bera ilun geratzen bait da.

Errealitatean, bietatik daukagu (Euskadin, alegia): marxismo nazionalista (abertzalea, independista) eta marxismo antinazionalista. Klasikoa, marxismo antinazionalista da. Marxismo abertzalea, entseiu berria da Euskadin. Eta ez neke gabea.

Marxismoa eta abertzaletasuna espresio teoriko biribil eta koherente batetan elkartzea, ez da voluntarismo hutsez egin litekeen gauzarik. Zaila da, marxismoak tradizionalki izan duen tankera guziari dihoakiolako, barren-barreneraino (ez da tesiren bat gehiago eranstea bakarrik, gehiagarri gisa); eta, elkartasun horretan, marxismoak nolako marxismo resultatzen duen, ikusi beharko bait da. Izan ere, logika guziei burla egitea da, eta marxismoaren barne lotura eta koherentzia ezezagutzea, nazio arazoaren axolarik bate-re gabe taxutu den marxismo tankera bat eskuliburuetan ikastea eta, *gainera*, abertzale izatea. Abertzaletasunarentzat, historikoki hartuta, abertzaletasuna marxista bilakatzek adina inplikazio dauzka, marxismoarentzat, marxismoa abertzale bihurtzek. Inplikazio sakonak, marxismoa, tradizionalki, arras beste sentido batetan desarroilatu izan denez gero.

Marxismo tradizionala nekez iritsi da, berandu iritsi da eta gaizki iritsi da, iritsi denean, nazio arazora. Adibideak ugari dira: Irlandakoa, Poloniakoa, Txekoslobakiakoa, etab. Hona hemen G. Hauptek: «Dégager les divergences et les convergences dans l'attitude des représentants des divers courants marxistes face à la question nationale revient en premier lieu à dégager les phénomènes de transformation des mentalités et des sensibilités. L'indifférence, l'incompréhension envers le problème national, le refus de l'aborder qui dominant jusqu'à la fin du XIX siècle sont de précieux révélateurs. Lorsque la théorie marxiste bute sur le mouvement national, l'amorce d'une compréhension de l'importance politique du phénomène est encore excep-

tionelle parmi les socialistes, même là où ils y sont directement confrontés, là où la question nationale se situe au centre même de la politique, de la praxis. Tout comme à l'époque de l'A.I.T., la majorité des socialistes nie la nécessité d'inclure ce problème dans ses préoccupations, de lui accorder une attention spéciale. Ils se contentent d'analyses fortuites procédant d'une vision simpliste, méconnaissant le moment national et son importance pour le mouvement ouvrier”.

Zergatik ezintasun, edo zailtasun, hori? Arrazoi diferenteengatik, baina, funtsean, marxismoak —bere jatorrizko formulaketan— aberri konzepturik ez duelako. Eta aberri gabe abertzaletasunik ez.

Marxistek, O. Bauerek seinalatzen zuen moduan, “kosmopolitismo utopiko” bat profesatu izan dutelako tradizionalki:

Ainsi, l’“internationalisme utopique” ou “cosmopolitisme utopique”, attitude fixée dans la seconde moitié du XIX siècle qui tient l’indifférence nationale, le refus d’aborder le moment national pour synonyme d’internationalisme s’avèrent tenacement enracinés dans la structure mentale social-démocrate. Considérée par O. Bauer comme “la prise de position la plus précaire et la plus primitive envers les luttes nationales du monde bourgeois”, cette attitude, alimentée par des motivations différentes, prend des formes et des expressions variées. Ses manifestations vont de refus de prendre en considération une problématique révélée par la bourgeoisie qui ne concerne que les classes dominantes, à la sous-estimation d’un phénomène considéré comme historiquement dépassé et artificiellement entretenu par la bourgeoisie. Derrière cet écran sur lequel se projette souvent un ouvriérisme rigide, se cache le désarroi des militants devant un phénomène extérieur au mou-

vement ouvrier et auquel ils se voient confrontés, tout comme se camoufle le nationalisme des socialistes des nations dominantes. Derrière l'internationalisme utopique s'abrite un mouvement replié sur elle-même, dépourvu de toute conception propre concernant la question nationale et que frappe d'immobilisme une mentalité collective prisonnière des illusions héritées de la bourgeoisie libérale, et conditionnée par l'universalisme démocratique. Car, attitude significative, le "cosmopolitisme utopique" n'est pas le tissu de la mentalité collective qui est fait d'emprunts à la philosophie des lumières du XVIII^e siècle ou à l'idéologie libérale de 1848. D'où la perpétuation d'une approche ethico-libérale de la question nationale, d'une conception de la solidarité internationale qui présuppose l'égalité abstraite des droits nationaux, de la conviction que le programme de la démocratie résoudra automatiquement cette question subalterne. Elle est définie essentiellement comme un problème linguistico-culturel et ce jugement commande les solutions qui sont préconisées.

"L'ambivalence spécifique" de la mentalité traditionnelle se révèle dans l'interaction réciproque de ses différents éléments constitutifs. Fréquemment, ces deux attitudes antinomiques, l'internationalisme utopique et l'émotivité nationale sous sa forme jacobine ou quarant-huitarde, aboutissent au même résultat: la question nationale est niée, elle est évacuée des préoccupations profondes des socialistes. D'où l'ambiguïté des sensibilités "vestigiales" qu'exprime l'idéologie électrique sous-jacente, une adaptation socialiste de l'idée de l'universalisme démocratique: le rêve d'un avenir où les peuples seraient une grande famille vivant fra-

ternellement ou celui d'un monde devenu "l'universelle patrie des nations indépendentes et amies" (Jaurès).

Cette conception se retrouve dans l'attitude envers les nations opprimées de la II Internationale qui se définit comme «le défenseur de tous les opprimés sans distinction de culte ou de race». Dans les attendus de sa condamnation de l'oppression nationale, elle est moins guidée par des principes fondés sur l'internationalisme prolétarien que par des considerations humanitaires et une sympathie "naturelle" envers les peuples "civilisés opprimés". Seules les motivations vont subir des changements. L'idée d'une fraternisation des peuples sera remplacée par les notions de justice et de progrès humain. "Pour que nous puissions sympathiser avec la lutte d'émancipation et même y consacrer nos forces, il faut qu'elle soit porteuse d'un intérêt culturel"; tout peuple capable d'une vie culturelle nationale, déclare Bernstein, doit être digne de l'intérêt et de la sympathie de la social-démocratie dès lors qu'il ne se présente pas comme une entrave "au développement libre des grands peuples de culture européens hautement civilisés"... (G. Haupt, *Les marxistes face à la question nationale: l'histoire du problème*, in "Les marxistes et la question nationale", Arg. Maspero, 1974).

Filosofia demokratiko-burgesaren ondare izan arren, marxisten kasuan, "kosmopolitismo utopiko" guzi honek bere doktrina tankera propioa du, bere gorputza, marxismoak abertzale izatekotan, berplanteatu beharra daukana: klasearen lehentasuna (nazioari buruz), etab. Hori dena planteatzen ez duen marxismoa (abertzalea), onenean ere sinkretismo nahasi batetara helduko da, edo nazio arazoaren planteamendu moral eta humanitari batetara hel-

duko da. Seguruenik, ordea, ez da sagar-gorri-marxismo batetatik pasako: kanpotik gorri, barrutik xuri.

Marxismo abertzale bat, modu ezberdinetan arrazona edo legitima daiteke: leku batetan —Euskadin, esate baterako— klase borrokaren marko berezi eta autonomo bat dagoela, esanez, edo konfliktibitateak maila partikular bat lortu duela, etab. Kotsiderazio zuzenak eta beharrezkoak, duda gabe. Baina: hori dena, taktika eta borroka berezi batzuk bai, baina marxismoaren abertzaletasuna legitimatzeko ez da aski. Aber-tzaletasuna ezin ezer bestek legitima lezake, azken finean, aberriak berak baino.

Euskal Herrian, badirudi, marxismo abertzalea —espresio teoriko baten bila dabilkiguna oraindik— aberria besterik ezagutzen ez zuen sozialismo batetatik (ETA-ren hasieretan), aberririk ezagutzen ez duen marxismo bate-tara, doakigula (“PTV” formularekin abiatu zena). Zinez abertzale izango bada, ordea, marxismoak ere aberri bat behar. Eta hor dago komeria: tradizioak tabu bihurtu dion eremu batetan sartu behar marxistak. Euskal marxismo abertzale bat, nahitaez, hemen euskal komunitate nazional bat badagoela ezagutzeak, ez bestek, oinarri le-zake.

Marxismo abertzaleak, zinez bata zein bestea izan nahi badu, marxismo eta abertzale, ez dauka hemen klase borrokaren espezifikotasunak nola ageri diren bakarrik reflexionatzerik (baina BAI HORI ERE!): Euskadi komu-nitate —hizkuntza, kultura, historia, etab.— nazional bat, aberri bat, izateari, reflexio marxista egoki bat aurkitu beharko dio.

Ondorengoan, ba, aberri konzeptuaren inguruan zen-tratuko gara. Ez, noski, marxismo abertzaleak desarroilatu beharra daukan puntu bakarra horixe delako: praksian ez bada, formulazio teorikoetan, beldurra bezala nabari delako baino hemengo marxismo abertzalean (egia da, borrokan ere badiharduela, marxista baino abertzaleago da-tekeen “marxismo” batekin), kapitulu hori bere kontsi-derazioetan argi eta garbi asumitzeko.

PROLETALGOA —IZAN DAITEKE ABERTZALE?

“*Iraultza* ala hil!” , esaten da Euskadin, nazio borrokan lehertuta dabilela. Eta nazio beregain eta independente den Kuban, “*Patria* o muerte!” Lehenengotik dirudien baino gutiago da harrigarri. De fakto, konzepzio iraultzaile batetan, *iraultza* eta *patria* terminu trukagarriak izan litezke. Eta ez Hirugarren Munduko borroka antiinperialista batetan bakarrik (beti eskema Hirugarren Mundutiarretara jotzen dugula, ematen bait du, sozialismoa eta abertzaletasuna elkartu nahi ditugunean), beti baino.

El socialismo, en cuanto sociedad —irakurtzen diogu A. Kosing nazioaren teoriko komunistari— se presenta en forma de patria. Cada uno de los países del socialismo es una forma concreta de la patria socialista.

Besteak beste, sozialismoa aberri erreberritze da. Sozialismoa ere ez da airean landatzen, sustraiak zeruetan, lur-lurrean baino. Eta aberria gizonaren giza eta natur ingurua da: “la patria es así una síntesis compleja de lo natural, étnico, nacional (desde que existen las naciones) y de lo social clasista. Ofrece la base, el medio y el espacio en que los pueblos y naciones y, naturalmente, también las clases, desarrollan su lucha”.

El tipo de patria, su carácter social, es caracterizado por la correspondiente formación social y estatal, de la que dependen asimismo el contenido y el tipo histórico de la nación (Kosing).

Sozialismoa nahi izatea, aberri sozialista nahi izatea da. Iraultza egitea —nola ez dugun mundu guzian batera egiten— aberri bati bere antolaera ekonomiko eta sozio-politiko zaharra iraultzea eta berria osatzea da.

Gizonaren sentimenturik sakonenetakoa deritza Leninek abertzaletasunari. *Sentimentu gisa* —erantsiko du A. Kosingek— abertzaletasuna gizaki guziei berezko eta komuna zaie, arrunta, gizon guzieren unibertsala da eta oso neurri eskas-eskasean ideologikoki markatua, klase ideologiak berak ere... Beraz, preideologikoa edo estraideologikoa, nahiago duzuna.

Konziientzia politiko edo proiektu gisa, abertzaletasuna ideologikoa da eta uste, ideia, sentimentu eta tradizio ezberdinak biltzen ditu. “La idea de la patria une a los hombres de un país, con los más estrechos lazos de solidaridad, en todo lo que se refiere a los intereses de este país en contraposición a los intereses de otros países” (Plejánov).

Sentimentu abertzalea unibertsala eta arrunta delako, eta gizonaren sentimentu bihotzeneko eta bizienetakoa delako bestalde, da posible, abertzaletasun politiko eta ideologikoak ere, historian maiz ageri zaigunez, klase eskema eta logika guziak haustea eta hankaz gora jartzea; edo klase borroka dinamizatzea. Gure “marxista” asko, ideologia maila puruan esplikatu nahi izaten bait ditu abertzaletasuna eta klase borroka, gero dikotomia eta alternatiba absurduetara ailegatzen da: Klase-nazio, *aut aut*. Praksian, ordea, gauzak ez dira horrela, konplikatukoak eta nahasiakoak dira.

1. Izan ere, maiz ikusi dugu historian, botere arrotzak zapal dutako herrietan batez ere, burgesia, parte on

bat behinik-behin, ahazturik bere interes partikularrak, komenentziak eta abantailak bazterturik, hondasunak eta familia eta ohorea eta bizitza bera borroka abertzalean sakrifikatzen. Euskadik badaki hori apur bat (José Antonio Agirre, Etxebarrieta, etc.; Arana Goiri bera guzien aurretik).

2. Alderantziz, maiz ikusi ditugu langile eta laborari semeak gerran, burgesiak biztu dituen gerra inperialistetan ere, edo Gurutzada absurduetan, entusiasmo eta heroismo benetan abertzalez beren odola isurtzen “aberriaren alde”. Burgesiak engainatu egin dituela, esaten dugu. Baina, nolatan da hori posible? Gizona gizon denezko guzian, gerrarik denez gero munduan, beti menpekoak eta zapalduak bait dira, “engainaturik”, hiltzen dutenak eta direnak, eta sinestu ezinezko entusiasmoz eta heroismo bildurgarriz egin ere. Beti kate berriak irabazi besterik ez omen dute egiten; baina beti gauza bera berriro egin, besterik ez dute egiten ere. Ideia ilun bategatik errazago hiltzen dela, esango luke zinikoak, ideia garbiagatik baino. Eta, izan ere, agian halaxe da. Eta “ideia garbi” bat sekula ez da abertzaletasuna, ideia indartsua baino: barne-barnean sentimentu konponente bortitz batekin.

3. Sentimentu abertzaleak —are xobinistak— eskuinak eta ezkerak halaber ezkontaraz ditzakeela, Espainian sarri ikusi dugu. Euskaldunon kontra, adibidez. Ezkerra maiz bihurtu da Espainiaren batasun apostolu eta gurutzari. Eskuina, Espainian den bezain eskuin mutur izanik, prest egon da ezkerrekin esposatzera —Bizkaiko monarkikoak, adibidez— abertzaleak aspirtzeko. Euskaldunok oso dibertitzen gaitu harako Calvo Sotelorenak, guretzat fanatismo espainol nazionalista iadanik klasiko baten paradigma guzi bat bait da, eta ez eskuinaren eksklusiboa, zoritxarrez: “Yo, entre dos Españas, roja la una y rota por el separatismo la otra, me quedo con la España roja”...

4. Sozialismoaren klasikoek *nazio zapaltzaileko* sozialistei utzi dizkieten abisuak ondo garbiak eta ondo zorrotzak dira: “El centro de gravedad de la educación interna-

cionalista de los obreros de los países opresores tiene que estar necesariamente en la prédica y en la defensa de la libertad de separación de los países oprimidos. De otra manera no hay internacionalismo. Tenemos el derecho y el deber de tratar de imperialista y de canalla a todo socialdemócrata de una nación opresora que no realice tal propaganda" (Lenin). Lenin gaisoa... Azken urteotan zenbat aldiz egon da Euskadi "estado de excepción" etan, ibili da greban, erreboltan eta demostrazioetan, eta zer egin dute sozialistek eta komunistek, beren boletinetan hitz ederrak publikatu besterik? "Terroristak" hitzetik hortzera kondenatu besterik? Zer propaganda eta kanpaina egin dute langile espainol artean "en defensa de la libertad de separación de los países oprimidos"? Ez, nazionalistenak ez dira hemengo nazionalistak. Okerrago dira, nazionalismoa eskularru xuri-xuriz kondenatu egiten dutenak, horiek...

5. Ez dago engainatzerik eta ez ilusioak egiterik. Abertzaletasunean, nazionalismoan, iturri askotatikoa ideia, sentimendu eta tradizio elementuak biltzen dira. Ur asko; eta horietatik asko, ur zikinak. Nazionalismoaren anbiguitatea ez da internazionalismoarena baino tipiagoa. Euskaldunok ezin ahantz genitzake gure nazionalismoaren historiak eza-gutu dituen arrazismoa, etab.

Idea abertzalea baino lehenago eta barrenago, sentimendu abertzalea dago, bere indar eta bere anbiguotasun guziarekin. Sozialismoaren garaitiarako bertarako, abertzaletasuna faktorerik bortitzena da: ikus Sobiet Batasuna, Txina, Kuba, Vietnam, Angola... Gerra "abertzaleak" denak. Irrazionala litzateke, bestelako jokabiderik eskatzea -jokabide "arrazionalagoak" edo, klase borroka garbiagoak edo. Gizonak, hein batetan, aberria bere "natura" bezala duela, aintzat hartzen badugu bakarrik, ulertuko dugu, abertzaletasuna zergatik den gizonaren eta kolektibitateen sentimenturik sakonenetakoa eta aberria, klase borrokan bertan, faktore indartsuena.

Leninek ohartu zuen bezala, zuen Engelsek hori ohar-

tu, Poloniako kasuan. Badakigu, Engelsek estrategia orokar baten arabera epaitzen zituela funtsean nazio arazoak. Eta Poloniaren independentzi alde bazegoen, ez zela arrazoi “demokratikoengatik”; itxaroten zuelako baino, Poloniaren independentziak “hiru despotismo militar haundien” arteko batasuna (Errusia, Prusia, Austria) hautsiko zuela. Halare, kontsiderazio taktiko horik gaindiaz dituen oharrik ere, utzi digu Engels zaharrak, nazio arazoak eta aberztaletasuna soil *utilitatearen* eta *probetxuaren* aldetik bakarrik begiratzea eragozten diguna:

Todo campesino y trabajador polaco, que de la apatía despierta a la participación en asuntos de interés común, en primer lugar tropieza con el hecho de la opresión nacional. En todas partes choca siempre con ella como primer obstáculo en su camino. Eliminarla es la condición básica previa para todo desarrollo sano y libre. Socialistas polacos que no pongan la liberación de su país como primer punto en su programa, me parecen como socialistas alemanes que no quieran exigir primero la abolición de la “Ley sobre socialistas” (1) y libertad de prensa, reunión y asociación. Para poder luchar hace falta primero tener tierra bajo los pies, aire, luz y espacio para los codos.

Egia da, noski, Marx eta Engelsek (eta Leninek, etab.) nazio arazoa beti klase borrokarekin erlazioan eta proletalgoaren ikuspegitik epaitu dutela. Jakina baietz... Baina hori, askotan, ia beti, nazio arazoak berak proletalgoarentzat berezko baliorik eta signifkaziozirik ez balu bezala, presentatzen zaigu. Egon hor dagoen eta, horregatik, aintzaketat hartu beharra dagoen, baina bestela proletalgoari

(1) «Sozialisten Legea»: propio sozialisten aurka Bismarckek 1878 eta 90 artean eman arazitako lege eta dekretu berezien bildumari esaten zaio (Leyes de excepción). Bilkura, elkargoa, prentsa eta ageriko aktibitate oro galerazten zitzairen sozialistei; bakoitzari bere txartela esijitzen zitzaion. Legeok, halare, ez zuten mogimendu sozialistaren zabalak eragotzi ahal izan.

zuzenean deus ez doakion, zerbait bezala. Proletalgoak, berez, nazio arazoan interes "taktikoak" besterik ez balitu bezala, - haik burgesiaren *kontra* "zuhurki" aprobetxatzeko soil. Areago, bai Marx/Engelsek eta bai Lenin/Stalinek maizenik egin izan dituzten nazio arazoaren planteamenduak, koiuntura berezi batzuentatik, planteamolde taktiko soilak izan direla, hori ere nahiko egia da (sarri egin zaie-larik, hortakoz, oportunismo akusazioa). Baina egiago, eta egiena, haien jarraikile "marxistak" omen ditugun horietxek direla, inpresioa beti egiten dutenak, nazio arazoetan interes taktikoa besterik ez dutela. Horiek dira, marxistak nazio arazoan interes taktikoak baino edukitzerik ez daukala, zabaldu dutenak.

Posible ote da abertzaletasun marxista bat? Edo marxismo abertzale bat? Historikoki marxismoa ez da nazio arazoaren inguruan sortu: ez nazio arazoaren teoria bezala eta ez **nazio arazoaren** soluzio bila. Nazio arazoarekin konfrontatu behar izan duenean, baldinkizun espezifikiko eta konkretu batzuetan egin du. Eta, Marx eta Engelsek batikbat, idazki txit zirkunstantzialetan bakarrik, pasadizoan, sarri gutunetan, erabili izan dute gai hori. Beraz, marxismoaren sortzaileen dauzkagun testuek berek, baldinbazko tankera probisorioa dizute.

Ez dago esan beharrik, *nazionalismoaren* eta *separatismoaren* aurka, beti egon dela tradizio marxista guzia, Marx eta Engels hasi eta Rosa Luxemburg, Kautsky, Renner, Bauer, Pannekoek, Strauss, Lenin, Stalin, Trotsky, Nin eta izan diren beste guziak, ahobatez. Halare, nazio arazoak eta abertzaletasunak ez die guziori balorazio berdina merezi izan.

Ezin esan daiteke marxismoak nazio arazoan interes "taktikoa" baino ez duenik. Marx eta Engels bera —goiko Engelsen testuak erakusten digun moduan— kontsiderazio taktiko hutsetatik maiz pasa dira beren eritzietan. Irlandari buruz, "abstrayendo de toda justicia internacional", proletalgoak Ingalaterran bertan garaitu ahal izateko, au-

rretik Irlandaren askatasuna behar dela, esango digu Marxek. Lehen-lehenik taktikoa da arrazoi hori, proletalgoaren aldetik ikusita. Baina "abstrayendo" harek berak adierazten duenez, badago beste arrazoa ere, abstrahitu beharrik ez dagoena, justizia internazionala alegia, hots, arrazoi demokratikoa, nahiz ez den abstrakt erabiltzeko. Arrazoi demokratikoa berez kondizionatua da: nazio bat zapaldurik egotea ez da aski, nazio zapalduaren edozein askatasun borroka ontzat emateko. Nazio zapalduari askatasun borrokan laguntza zor zaio: baina haren borroka demokrazia-
ren irabaziren bat adierazten badu bakarrik. Hori, nazio zapalduaren ikuspegitik. Zapaltzailearen ikuspegitik, ostera, arrazoi demokratikoak balio orokarra dizu, Marx/Engelsen esaldi sonatu haik argi eta garbi adierazten digutenez: "Ninguna nación puede ser libre si continúa, al propio tiempo, oprimiendo a otras naciones"; "El pueblo que subyuga a otro pueblo forja sus propias cadenas"... Ez dago dudarik, helburu bezala behintzat, hartara bideak beti zuzen ez ikusi arren, Marx eta Engelsek beti bilatzen zizutela "la emancipación de todas las naciones oprimidas".

Marx eta Engelsek ez zizuten nazio arazoa behar bezala ulertu: historiak erakutsi du. Gaizki eta oker ere planteatu zizuten: horra, seinale, "historia bazterreko herrien" teoria... Baina beti ere gogoan hartu behar, zein testuingurutan ari ziren: nolakoak ziren, ezagutu zituzten nazionalismoak, zapaldu nahiz zapaltzaileenak, etab. Zer funtzio betetzen zuen gizarte hartan nazio arazoaren planteamoldeak. Haien teoriaren moztasunak ez du betekizunik negatibo hutsa. Batzuetan, haien teoriako elementu positiboenen ondorio da; beste batzuetan, elementu negatiboren batzuen obra ere bai. Gogoan izan behar da, eskasia hura konpentsatzen duen konzeptu askoren artean garabiltzatela Marx eta Engelsek: nolarebait, iraultza proletarioaren beren konzepzioak, espero zuten Estatuaren heriotzeak, etc., nazio zapalduen liberazioa inplikatzeko zuten. Post factum badakigu, iraultzek, orain artekoek behinik-

behin, ez dutela holakorik ekarri. Baina hori ez da derri-
gor Marx eta Engelsen planteamoldeen errua. Haien teo-
riako beste elementu batzuek, oso XIX.gn mendeko tipi-
koak, negatibokiago kondizionatu dituzte haik biak nazio
arazoaren balorazioan: Marx eta Engelsen aburu optimistak
progreso ekonomikoari buruz, haien entitate haundi zen-
tralizatuen miresmena, haien mundu guziaren berdin-ba-
tasun konzeptu kasi mitikoa, etab., gutienez nazio ttipien
nazio arazorik ulertzeko faktore negatiboak dira.

Baina gaur ezein marxismok ez du jarraitzen munduan
euforia zentralista eta unitarista, ekonomizista haiekin, pro-
greso ekonomi zentralizatzailea eta liberazioa bateratuaz
esate baterako, gaurko munduari buruz epaitzerakoan ale-
gia. XIX-gn mendeari dagokiola, progreso ekonomikoak,
zentralizazioak, etab., beste balio bat zizuten duda gabe.
Gaur, bitartean eskarmenturik ere hartu dugu ta, badakigu,
kontzentrazio eta zentralismo prozesoa, hasiera batetan
agian bai, baina gero ez dela batere askatzaile.

Egun ia topikoa bihurtzen ari da Marx eta Engelsen
eskasiak nazio arazoarekikoan aitortzea. Batzuek, marxis-
moa gonbatitzeko darabilde hori. Beste batzuek, marxis-
moa, lekuan lekuko egoerari dagokionez, egokitzeke.

Luis Crespok honela dio:

La cuestión nacional ha sido abordada por el mar-
xismo desde sus primeros momentos, ya incluso
en la época clásica con los escritos de Marx y En-
gels. Sin embargo, un planteamiento teórico ri-
guroso con aparato científico adecuado, no aparece
hasta los primeros trabajos elaborados por los teó-
ricos social-demócratas (Kautsky, Bauer, Renner)
que introducen nuevos conceptos que, por otra
parte, hasta hoy no han sido recuperados. Y es
que la teoría política marxista ha trabajado exhaus-
tivamente conceptos como los de modo de produc-
ción, clases sociales, formación social o Estado,

concediéndoles un estatuto epistemológico claramente definido. Cosa que no se ha realizado con el concepto de nación o de nacionalidad, dado que “no se ha valorado una idea: la de que cada pueblo (y cada pueblo es, para mí, una nacionalidad o cada nacionalidad es un pueblo) tiene unas características psicológicas, étnicas, lingüísticas... peculiares, y este hecho da lugar, a lo largo de la historia, a una serie de características históricas propias que permiten interpretar los hechos históricos y que, por lo tanto, se les ha de conceder importancia”, según expresó el historiador Josep Termes en su intervención en un coloquio de historiadores celebrados en Barcelona en mayo de 1974. La falta de conceptualización científica de la nación o su conceptualización deficiente —como en el caso de Stalin— se debió sobre todo a una urgencia política y táctica del movimiento socialdemócrata que se plasmó en torno a la teoría de la autodeterminación de las naciones, expuesta por Lenin. Pero para asumir teóricamente el problema hacía falta recuperar los textos llamados del austromarxismo socialdemócrata, punto de partida básico para un planteamiento científico...

Euskadiri dagokiola, esan beharra dago, austromarxistak, Arana Goirik zituela iadanik inbokatzen; eta hemengo sozialistak zirela, orduan austromarxismoa arbuiatzen zutenak, euskal arazoari aplikatzeko.

Egun, haundi-maundi hartuta, bi postura berez genazake: nazio zapaltzaileko marxistena eta zapaldukoena.

Nazio zapaltzaileko marxistek (eta, haiekin, zapalduko sukursalistek edo estatalistek), nazio zapalduari buruz betiko tesiekin jarraitzen dute. Baina, tesi haik, zerbaitek oinarritzen zituen (Estatuaren, klase batasunaren, progreso ekonomikoaren eta gizarte moldeen erakuntzaren, nazionalismoaren... konzeptuek). Gertatzen da, bada, guziotan

eboluzio haundia daramatela marxista horiek, "eurokomunistek" bereziki. Eta guzi horrek oinarritzen zuena, nazio arazoarekiko teoria, ukitu ere ez dutela egin nahi... Ez dituzte atera nahi, beren eboluzioak berak eskatzen dituen ondorioak.

Nazio zapalduko marxista artean, batzuek marxismoa abandonatzen dutela, ikusten dugu (anarkismora pasatzeko, adibidez). Besteren batzuek, marxismo oso komodo bat asmatu digute: marxista gara, aitortzen dute, baina nazio arazoan ez ditugu onartzen Marxen edo Engelsen eritziak... Orain, marxismoa osotasun bat da, sistema bat, eta "zati" bat kanpora uzten bada, edo lekuz eta funtzioz aldatzen bada, konjuntuko beste elementu guziak korritzen dira, sistema guzia aldatzen da. Beraz, akklaratu beharko ligukete, beren marxismoa zertan gelditzen den. Lan zaila eta arriskutsua hori.

Marxismoa eta abertzaletasuna uztartzekotan, bistan dago, pentsamendu marxista tradizionala izan dena, itxuraz nazio arazoarekin zerikusirik ez duten puntuetan ere, berpentsatu beharra dagoela. Adibidez —sarri esana da— Marxek egin duen gizonaren eta klaseen erredukzio funtzionala faktore ekonomiko "soiltara", konplementatu beharra dago gizonaren eta klaseen aldian aldiko eta lekuan lekuko baldintzapenen teoria konkretuagoekin. Kasu baikoitzean ageri den elementu "konstelazioa", ikusi beharko bait da.

Marxismoaren konzeptu asko eta pentsamendu marxistan korriente zen anitz uste eta ebidentzia berpentsatu beharra, ez da sortu, noski, nazio arazoaren aldetik bakarrik. Althusserek, etab., nazio arazoarekin zerikusi gabe egin dituzte beren "errebisioak". Halere, jeneralean, marxismo guztiok irekiagoak dira, tresneria hobez hornituak, nazio arazoa, marxismo klasikoak ohi zuen baino positiboago aztertzeko eta baita zientifikoago ere.

Nazio arazo aldetik, *eboluzio* hau eragin duen *lau faktore* aipa genezake.

1. Lehenik, esperentzia stalinistak, autoritarismo hartan konprometaturik agertu den konpleso guztia berrikustera, obligatu du: klase eta Alderdi konzeptuak, batasun proletarioa, internazionalismoa, progreso ekonomikoa, gainegiturak, etab.

2. Bigarren, abertzaletasuna eta marxismoa uztartu nahi dituztenek, Hirugarren Mundua sarri aipatzen badi-gute, ez da, soluzioak, eginda, kafea edo bananak bezala, Hirugarren Mundutik inporta ditzakegulako (agian ilusio hori ere izan du zenbaitek, Maok liluraturik bereziki). Batez ere da, ongienik Hirugarren Munduan agertu delako, Europako historiaren interpretazio bila elaboratu diren konzeptu eta eskemen eskasia eta flakia. III-gn Internazionalaz gero, marxistak zuzenets zitzakeen Hirugarren Munduko nazio askatasun borrokak *anti* bezala, hots, inperialismoaren kontrako borroka bezala. Haien borroka abertzalea ontzat ematen zuten marxistek, baina Europa-ko klase borrokatik: inperialismoaren aurka zihoalako. Hori, gauzak Europatik ikustea da. Arrazoiak beti ere Europan edukitzea, Hirugarren munduan zer egin eta zergatik. Gero, Hirugarren Munduko abertzale haik, geroz eta gehiago, marxista bilakatu dira berak. Luzarora, abertzale eta marxistaontzat ez da aski, beren borroka *anti* huts bezala ulertzea; beren borrokaren euskarri eta legitimazioa ez zela antiinperialismoa bakarrik, nabarmendu da. Hirugarren Munduko "marxismo abertzaleak" bere legitimazio positiboa bere baitan baduela, ageri da. Abertzaletasunaren edukin positiboak ("aberrigintza" konzeptuan bilduko ditugu) beren balioan estimatu beharra ikusi da, hortakoz, "interes nazionalen" mespretxu orokar tradizionala utziaz.

Ho Txi Minhek, adibidez, vietnamdarren borrokaren alderdi antiinperialista baino gehiago markatuko du alderdi propio abertzalea, inperialismo arazotik independente. Nazio vietnamdarra familia bat dela, azpimarkatuko du; bere bizitza berak erabakitzeke eskubide sakratua eta oinarrizkoa duela; behin eta berriro tradizio nazionalak aipatuko

ditu, tradiziook zaindu eta landu beharra gogoratuaz (vietnamdarrek hizkuntzaren alde egin duten lan haundia eza-guna da); vietnamdar arraza, vietnamdar ohiturak eta historia, heroi nazionalak, inbokatuko dira: “ez bait dago (nazioaren) beregaintasuna eta askatasuna baino gauza baliotsuagorik”. Nazioa —arrazonatu du— familia bat da; eta ez dago familia nazionalaren aurreragoko obligaziorik, batasuna (lurralde batasuna ere), askatasuna eta beregintasuna guztiaren gainetik eta aurretik defendatzea baino. Nazioko seme guztien eta edozein klasetako obligazioa hori da. Horregatik, vietnamdar guzti-guztiek, proletario, laborari ala burges, Fronte Nazionalan elkar hartu behar dute... Ho Txi Minhek gehien aipatzen duen arrazoia ez da antiinperialismoa, aberria da (1).

Simple samar, honela adieraz daiteke, marxismoan nabari den eboluzioa: II-gn Internazionalarentzat, iraultzak Europa industrialean gertatu behar zuen eta nazio arazoek ez zuten inportantziarik, kasu bakanen batetan ezik (Po-

(1) Esajeratua iruditzen zait, Iztueta/Apalategi-k, *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian*, 1974, egiten duten Ho Txi Minhen erabateko erredukzioa III-gn Internazionalako tesi hutsetara. Hausturarik ez bada ere, eboluzioa nabar-nabarmena iruditzen zait niri. Ho Txi Minh, duda gabe, III-gn Internazionalan koadratzen da oso-osorik. Baina, marxismoaren historian, Ho Txi Minhen signifikazio partikularra ez datza bere «ortodosian» III-gn Internazionalari buruz, errepresentatzen duen eta eragin duen eboluzioan baino. Ho Txi Minhekin, III-gn Internazionalaren izpiritu lineal eta kontsiderazio sinpleetatik asko urrundu gara. Klase eskema simple eta unibertsal hartatik alegia. III-gn Internazionalarentzat, nazio (kolonia) baten askatasun borroka zuzenesten zuen kontsiderazio bakarra, haren antiinperialismoa zen (burgesia ahultzen duela: Marxen Irlandarekiko arrazoi bera funtsean) eta, ondo begiratuta, *guztiz arrazoi europarra da*: nazio borroka haik, izan ere, proletalgoa Europan lehenbailehen nagusi dadin, onartzen dira. Inportante, beti ere, Europako proletalgoaren garaipena da: nazio borroka batek proletalgoa Europan nagusiarazteko balio duen ala ez, horiek dira III-gn Internazionalaren kontsiderazio nagusiak. Maorekin hasi, Ho Txi Minhekin jarrai eta Hirugarren Munduko mogimendu abertzale marxista guztiekin azkenik, errepertzen dugun desarroiaren, ordea, Europari buruzko kontsiderazioek geroz eta indar gutiago dute; nazioaren beraren arrazoiek geroz eta gehiago. Nazioaren baitatik argudiatzen da. Nazioari berari doazkion kontsiderazioak, ageri dira inportanteenak bezala. Benetako «nazionalismo marxista» batetarantz doa eboluzioa. Eboluzio hau, Manabendra Nath Royek —Leninen aurka— proklamatzeko zuten sentidoan joan da, ik. J. Azurmendi, *Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa*, 1971, 84.

lonia, Irlanda) eta guztiz kondizionalki. III-gn Internazionalarentzat, iraultzak Europan gertatu behar zuen, baina inportantzia haundikoak ziren nazio borrokak, kolonienak bereberki, kapitalismo inperialista porrokatzeko. Azkenik, Hirugarren Munduak (Txina buru dihoala) errepresentatzen duen marxismoarentzat, iraultza, gertatzen den tokian gertatzen da, Europak ez du primutasunik eta pribilejio historikorik. Saia bedi bakoitza bere aberrian iraultza egiten, hortakoz. Aberria, oinarrizko kategoria bilakatu da iraultza teorian, lehenago ez bezala. Inperialismoa ahultzea, iraultza egiteko arrazoi bat izango da, baina inola ere ez aintzat hartzen den bakarra kapitalismoaren hondamendia funtsean bat-bateko eta erabateko bezala kontsideratzen zenean, egiten zuten bezala. Iraultzak baditu bere arrazoiak Asian bertan.

3. Bestenaz, antz-antzeko eboluzioa somatzen dugu mendebaleko Estatu sozialistetan beretan. Iraultza ez da esplosio bati darraikan lurrikara bezala, bat-batean mundu guztira zabaldu. Estatu batetan egin zen. Gero beste batetan. Astiro-astiro ari da zabaltzen. Bitartean, Estatu bakoitzak beregain jarraitzen du; bakoitzak bere erara behar dizu bere gizartea irauli. Estatu sozialisten artean ere interes diferentziak indartuz doaz. Estatu bakoitzak bere orijinaltasunari begiratzen dio; bere abertzaletasuna desarroilatzen dizu. Estatu bakoitzak bere "baliogo nazionalak" begiramenduz kultibatzen dizkigu: hizkuntza nazionala, tradizio nazionalak, konzientzia nazionala, literatura nazionala; eta, esate baterako, folklore nazionala bera, musika eta dantza nazionalak, etab., inon ez dago Estatuak berak zaindu eta begiratuagorik, Estatu komunistetan baino. Esan nahi baita, kulturaren eta, jeneralki, "gainegituren" planteamendu artxiklasista sinple asko guztiz baztertu dela, praksian behintzat. Eta, hain zuzen, kultura eta tradizio nazionalak, hizkuntza, konzientzia nazionala, hain errealtate inportantzetat eta balio positibotzat hartu behar badira iraultza ostean, aurretik ere zerbait bazirela, pentsatu beharko da...

Europako Estatu komunistaok, beren ohorezko puntua bezala destakatzen dizute beti, berak hain abertzale sutsuak izatea. Ez dugu ahaztuko, beti Alemaniak, Errusiak, Turkiak edo Austriak mehatxaturik aurkitu izan direla gehienak historian, beharbada gaur Txinak mehatxaturik sentitzen direla eta lurraldeotan abertzaletasunak beti paper partikular bat jokatu duela eta balio kasi erlijiosoa duela oraindik ere. Dena den, aberria eta abertzaletasuna, Marxen pentsamentuan ez bezala, oinarrizko kategoriak dira egungo marxismo klasiko guztian. “Eurokomunismoetan” hainbat garbiago somatzen da eboluzio hori. Frantziako AK baino “abertzaleago” ez da erraza izatea.

4. Marxismoaren eta abertzaletasunaren uztarketa eka- rri duen laugarren faktore bat, aipatuko dugu labur-laburki. Eta da, gizarte zientzien aurrerapena (neurri handian marxismoak berak eragina), edo datu berriak. Etnologia eta prehistoria, adibidez, ia oso-osorik Marxez gero des- arroilatu dira. Psikologia, linguistika (psikolinguistika eta beste konposatuak, halaber), zer esanik ez. Euskal Herrian, bere buruaren konzientzia ia galdurik zuen herri honetan, etnologoek lan handia egin digute, gure herri nortasuna ager eta ezagutarazten. Txillardegik eta, bestalde, herri nortasunean hizkuntzak dizun inportantzia destakatu digu- te. Esan daiteke, herri konzientziaren tradizioa faxismoaren pean ia edukin gabe gelditu bada ere (ez euskal historia- rik, ez literaturarik, ez erakunderik edo euskal tradizio po- litikorik, ezagutzen dizu, eskola faxistetatik iragandako umeak), zientzia berrion laguntzaz herri nortasunaren kon- tenidoak atzera berraurkitu ditugula.

Azkenik, beharbada ez da faktore artean kontatzekoa, baina kausa inportante bat, nazio arazoaren eta marxis- moaren bategintzarako, situazio sozial berria eta nazio ara- zoaren beraren eboluzioa da, lurralde industriatsuetan be- hintzat. Gaur Quebecen, Eskozian, Euskadin, ikusten du- zun “nazionalismoa”, ez da tradizio nazionalista zaharren berbizkunde soil. Beltzak insistitzen duen bezala, gizarte

industrial honen nazionalismoa bere-berezia da, gizarte honexek ematen dituelarik kausak. Ortzik, halaber, faxismoaren naturatik partituaz esplikatuko du egungo euskal abertzaletasuna, haren balio iraultzailea era berean argituaz (2).

Azken finean, abertzaletasuna marxista, edo eta marxismoa abertzale, bilakatzen hasi da Euskadin.

“Puede un comunista, que es internacionalista, ser al mismo tiempo patriota? - galdetzen zuen Maok, eta erantzun: Sostenemos que no solamente puede, sino que debe.”

Maok baino lehen eta gero ere esaten zena duzu hori. Plejanovek esaten zuen: “el internacionalismo socialista es compaginable con la actividad más celosa, más incansable a favor del país nativo (sorterri)”. Leninez gero, proletalgoaren birtute printzipalenen artean abertzaletasuna beti aipatzen da.

Abertzaletasunaren oinarria konzientzia nazionala da. Zertan ageri da konzientzia nazionala? “La conciencia na-

(2) Ortzik, *Los Vascos*, 1976, or. 211-212: «El fascismo no constituye una nueva etapa del desarrollo capitalista; supone una nueva etapa del desarrollo de la lucha de clases en el seno de la fase monopolista del capitalismo... El único enemigo cuya organización e ideología teme a muerte el capitalismo es la clase obrera. Cuando aquél se siente amenazado por ella, recurre al fascismo, a un sistema basado en la represión violenta en el que el capital monopolista no comparte su poder político ni ideológico con nadie, no existiendo más Partido que el Partido único que sirve sus intereses ni más sindicatos que los controlados por él... El nacionalismo fascista eleva a su punto máximo la irracionalidad del nacionalismo de la fase imperialista [nazionalitate ttipikiak arras zapatuko dira, nazio batasunaren mitoa indartuko da, etab.]... Al ser el fascismo estatal creación de la burguesía monopolista, la situación por él creada permite a la clase obrera de las minorías nacionales —hecho totalmente nuevo y posibilitado sólo por el fascismo— encabezar una alianza nacional que agrupe tras de sí a las restantes capas burguesas nacionalistas; alianza dirigida contra el capitalismo financiero y contra el aparato estatal fascista a su servicio, y que persigue al mismo tiempo la consecución de los objetivos socialistas de la clase obrera y la liberación nacional... Los esquemas leninistas de la primera fase, perfectamente adecuados a una etapa anterior de la lucha de clases en el capitalismo y a una situación nacional distinta, no son ya aplicables. El proletariado no puede ya asumir ante la cuestión nacional una actitud de neutralidad. La lucha de las minorías nacionales se convierte, como la de las colonias —aunque de un modo totalmente distinto— en parte de la revolución socialista mundial; y el marco del Partido de la clase obrera no puede ser ya el del Estado, sino el de la minoría nacional».

cional se manifiesta, por lo general, en contenidos tales como la conciencia de pertenecer a una nación y el sentimiento de unión íntima con la misma, en la conciencia nacional de sí mismo, en la disposición y voluntad de defender los derechos e intereses de la nación y contribuir a su desarrollo, en el orgullo por las realizaciones y conquistas de la nación, por su aporte a la cultura mundial, al progreso social (orgullo nacional), etc., pero también en la vergüenza por los fallos históricos de la nación” (A. Kosing).

Proletalgoa konzienteak ba al du konzientzia nazionalik? Sentitzen ote da nazio batetako seme, nazio horri barne-barnetik atxeki, nazio horren historiaz identifikaturik, lotsatzeraino edo harrotzeraino, etab.? Proletalgoa klase internazionala da, ez da inoiz ere “nazionalista”: baina bai nazionala.

Konzientzia nazionallean, “harrokeria nazionala” dateke puntu anbiguoena. Euskaldunok “euskara zaharraz” harrotzen bagara, gartzelaniaren edo frantzesaren dotoreziez eta dohainez ez dira gutiago harrotzen bestek. Euskadi munduko parajerik ederrena baldin bada, Espainia ez da gutiago, eta *la douce France*, ez iezadazu aipa... Senti ote dezake harrokeria nazionalik proletalgoak? Leninek erantzun digu:

¿Es que a nosotros, proletarios gran-rusos con conciencia de clase, nos es ajeno el orgullo nacional? ¡Ciertamente no! Amamos nuestra lengua y amamos nuestro país nativo (sorterri), nosotros somos quienes más trabajamos para que *sus* masas trabajadoras (es decir, nueve décimas de *su* población) [begira azpimarkatu horik, Leninenak bait dira!] sean elevadas a una vida consciente, para que sean demócratas y socialistas. Nos duele más que a nadie el ver a qué violencias, opresión e injurias someten los esbirros zaristas, hacendados y capitalistas nuestro hermoso país nativo (sorte-

rri). Nos sentimos orgullosos de que estas violencias encuentren resistencia entre nosotros mismos gran-rusos... Nos sentimos llenos de orgullo nacional, pues la nación gran-rusa ha engendrado asimismo una clase revolucionaria; ha demostrado asimismo que ella es capaz de dar a la humanidad grandes ejemplos de lucha por la libertad y el socialismo...

Bai, nazio Errusi-Haunditarra buru da inperio ksaristako herri eta nazio guztien artean. Klase iraultzaile borrokariena berak eman du: langile Errusi-Haunditarrak izan dira 1905-ean Alderdi benetan iraultzaile bat sortu dutenak (proletari mogimendua errebisionismotan beratzen hasia zelarik). Nazio Errusi-Haunditarrak Radistxev bezalako pentsatzaile burges liberalak eman ditu bere garaian, besteak feudalismoaren lainopetan zebiltzan artean. Dekabristak bezalako iraultzaileak sortu ditu... Nazio adoretu bat izan da beti. Errusi-Haunditarrak beren nazioaz harroharro daitezke duda gabe. Ederra da beren lurraldea. Ederra eta aberatsa beren mintzaira... Horrela Leninek.

Badakigu harrokeria horiek denborarekin nora eramaten duten. Sobiet herrien artean gidaritza Errusi-Haundiari dagokiola, esango da (eta Lukácsék berak ontzat emango du arrazoi hori - bestalde, PSOEzialista espainolek halakoxe gidaritza bat Gaztelari aitortzen zioten denbora berbertan): zeren eta historia ditziratsuen eta progresistena berak bait du; literatura gehiena eta hoberena berak; kultura aberatsena, etab. Eta errusiera pribilejiatuko da; H armada-buruzagitza Errusi-Haunditarrez osatuko da (astronautak Errusi-Haunditarrak izanen dira)... Eta Errusiar Inperioa bildu zuten konkistatzaileak heroi haundiak izan direla, ikasiko da eskolan; haiei buru egin zietenak, konkistatuak, beste nazionalitateetan, jauntxo atzerakoi hutsak. Heroi positiboak Albako Dukeak eta Esparteroak dira; Zumalakarregiak erreakzioaren buruzagi.

Ez, Lenin ez zen hortaraino ailegatu. Hortaraino, geor-

gianoa ailegatu zen, Leninek aipatzen eta aupatzen zituen nazio Errusi-Haunditarraren abantailak eta gloriak aipatuz beti ere. Gutierrez arriskutsu bait da, Radistxev edo dekabristak (3), edo Lenin bera edo boltxebikien Alderdia, *nazio batek* ematen dizkigun erakusbide eta eredu kontsideratzea, *nazioak* sortu dituen gizanditzat jotzea eta horientatik harrokeria nazionalik sentitzea. Euskal Herrian, behintzat, Foruengatik eta, ez da inolako “xobinismorik” eta “harrokeria nazionalik” toleratu... (Jakina, badakigu, hemengo marxista-leninista batzu, proletario garbiago eta internazionalistago direla, eta leninistago, Lenin baino!).

Gutierrez arriskutsu da, zapalkuntza eta esplotazioa ere “gure sorterri ederrari” egin zaion irain bezala kontsideratzea...

Baina ikusten dugu, Leninek, iraultza proiektua, langile klase abstraktu bati gabe, sorterriari, aberriari, nazio Errusi-Haunditarrari, erreferitzen diola. Lurralde eder bat duen nazioari, intelektual batzuk eta historia jakin bat, hizkuntza maitagarria... dituen nazioari. Klase proletarioak, izan ere, badu sorterri bat. Badu —askatu eta irauli behar duen— aberri bat, inola ere eta sekula ere Estatuarekin berdintzen ez dena. Estatua ez da sekula proletalgoaren aberririk izan. Proletariak badizu bere lurralde ederra, hizkuntza maitagarria, bere komunitate etnikoa (klase guzietan, gainera, baina *bere* komunitate), bere tradizio kolektiboak, herri historia, kultura, bere kultur eremuko intelektualak eta artistak, honen denaren sentimentua eta harrokeria, - bere aberria eta aberri zaletasuna. Proletario egiazko eta bizia, historikoa, ez bait da, proletarioa justu proletario bezala beste denetik berezten eta proletario bezala soil-soil ezaguarazten duen definizio formalen batek, xifra gorri baten moduan, erakus dezakeen izaki eskematikoa, edukin historiko gabekoa, ideologiko hutsezkoa.

(3) A. Radistxev, 1749-1802, Ilustrazioko errusiar idazle burgesa, Rousseaturen eragin haundiaz. Dekabristak: elkargoa klandestinoetan bildutako errusiar aiton-eme eta ofiziale liberalen bilkura, 1825-ean Nikola I-goari, Koroazioa ospatzerakoan, errebelatu zitzaizkionak.

ABERTZALE ETA INTERNAZIONALISTA

Marxismo-leninismoaren edozein eskuliburutan esaten da, hemen ia inoiz esaten ez dena: alegia, internazionalismoa eta abertzaletasuna (“patriotismo”) banaezinezko bikotea direla. Batak ez duela bestea gabe izaterik. Edozein Estatu komunistatako eskola liburuak miatzen dituzula, Sobiet Batasunekoak ala Txinakoak, Poloniakoak ala Kubakoak, internazionalismoa esplikatzen den kapituluan, berehalaxe aurkitzen duzu abertzaletasunaren aipamena: internazionalismoak eta abertzaletasunak elkar osatzen dute.

Abertzaletasuna —irakurtzen duzu liburuotan— sorterri maitasunaren azalpena da; konzientzia nazionalaren eta aberriaren balorazio positiboaren espresio. Abertzaletasuna justua da, betikoa edo da, ederra da, etab. Aberria da, aldiz, herriaren obra sozial, politiko eta kulturalen espazioa; herriaren burruken eremua orobat. Herri bizitzaren eremua, toki eta historia. Aberria, guti-gorabehera, herriaren zer-izan historiko guzia duzu. Abertzaletasunaren sujetu ere herri oldeak omen dira, abertzaletasuna hain zuzen konzientzia nazionalaren espresio duzunez halaber —“nazionalismoaren” sujetu sekula herri oldeak ez diren bezala, ordea. Nazionalismoaren sujetu klase bat da: burgesia. Abertzaletasunak eragiten die jende oldeei, ideia haundiak eta iraultzagileak berenganatzera, bere-bere egitera eta artean espresatzera, kultura nazionala eraikiaz, etab., etab.

Ez da, oso egokiak iruditzen zaizkigulako; baina marxismo ortodoxoan “abertzaletasunaz” eta “nazionalismoaz” eman ohi diren azalpenak, berriro gogoratzea komeniko da, konzeptuak argitzeko bederen.

Hemen, Euskadin, gaztelaniaz hala euskaraz, abertzaletasun eta nazionalismo, gehienbat sinonimo edo balio berdinekotzat erabili izan dira eta erabiltzen dira. Hola, Leninen edo Marxen testu asko aldatu ere da gure situazioa zegoen-zegoenean, inolako egokierarik, ez argitasunik eman gabe, haiek “nazionalismoaz” esana hemen “abertzaletasunari” aplikatuaz eta gauzak desegokiro nahastuaz.

Baina begira dezagun: zein da abertzale Euskal Herrian? Burgesiak, Euskal Herrian, ez dio behin ere esan bere buruari nazionalista, ez abertzale, izan ere ez da eta. Euskal burgesia ez abertzale da eta ez nazionalista, hots, “euskal nazionalista”. Espainol nazionalista izan da tradizionalki.

Marxistek abertzaletasuna eta nazionalismoa zeharo berezi ohi dituzte (patriotismoa eta nazionalismoa), bi gauza diferente bezala ezezen, kontrario bezala ere.

Berezkuntza hori ez datorkigu Marx eta Engelsgandik. Gero sortua da. Baina berezkuntzak egiten hasi, Marx eta Engels berak hasi ziren nolabait, nazionalismoa gogor kondenatzen bazuten ere, nazionalismoaren barruan erak eta moduak berezten zituztenean. Gero “nazionalismo” esanahi negatiboan eta “patriotismo” positiboan erabili ohi dira.

Abertzaletasuna, esan bezala, jende oldeen edo herriaren beraren aberri maitasuna da, aberriaren dohainen eta aberastasunen maitasuna, aberri konzientziaren agerkuna.

Marxistek esaten (kondenatzen) duten nazionalismoa, ez da, guk nazionalismo/abertzaletasun esan ohi duguna. Definizioz berez, nazionalismoa —zentzu marxistan— ideologia burgesa da beti, berez eta nahitaez. Hau da, ogia ogi den bezalaxe, da hori: izena horrelaxe mugatu da eta eman da, eta “nazionalismoa burgesa da” esaldiak, berez beste esanahirik ez du horixe baino. “Santiagoren zaldi zuriak

kolore zuria du” esatea bezalatsu da, hortakoz. Nazionalismo, izen historiko bat da, konzeptu baten tankera horretakoxe mugaketa. Nazionalismoa nahitaez burgesa da marxistentzat, burgesiaren “patriotismo” espezifikoa baka- rrik esaten bait diote marxistek, ez besteri, nazionalismo.

Makina bat nahasketa sortu zaigu konzeptu diferen- ziotatik, edo konzeptu nahasteotatik.

Asko eztabaida liteke izendapen eta konzeptu mugapen horren egokitasunaz. Nire ustez, bederen, nahasketa ge- hiegi sortzen du eta sortuko du aurrerantzean ere, gazte- laniaz “patriotismo” hitzaren usadioak bere legeak bait ditu, marxistekin zerikusirik gabe ezarri direnak mintzai- ran. Euskadin, gutienez, abertzale esateko “nacionalista” esanen da, nik uste, aurrerantzean ere; eta “nacionalismo vasco”, etc. Hemendik kanpora ere, galde genezake, Sobiet Batasunaren politika patriotiko bakarrik ote den ala baita nazionalista ere. Baina hori gure usadioaren arabera ihar- dutea da; alfer-alferrikako galdera litzateke ortodoxia mar- xistan: nazionalista, ezin izan liteke Sobiet Batasuna. Ha- rriak bemolean ezin egon daitezkeen bezalaxe. Edo zorio- nak metrorik eta kilorik ez duen bezalaxe, tristurak abia- darik ez duen bezalaxe, euria elurrik ez den bezalaxe.

Hori oso kontuan hartzekoa da. Izan ere, gure artean alderantziz jokutzen dugu ia beti: abertzaletasunik soma- tzen dugun orduko, burgesa dela, erabaki ohi dugu segi- tuan burgesia abertzalerik somatzen baldin badugu baka- rrik, esan ordez, hori nazionalismo dela. Burgesiaren aber- tzaletasunari marxistak nazionalismo esan ohi dio; baina edozein “nazionalismo”, hots, patriotismo, burgesa denik, ez du esaten marxistak, gure sasimarxistek izan ezik. Ho Txi-Min abertzale da, ez nazionalista; Castro abertzale da, ez nazionalista. Mintzamolde marxista ortodoxoan alegia.

Gu, ordea, lehenengo konzeptuak okertu, eta gero es- plikazioak ezin zuzenduta, gabiltza.

Honela, Mogimendu Komunistak (orain MC-EMK) ez du begi onez ikusten, langileak nazio arazoan enplegatzea,

hori burges demokraten eginkizuna iruditzen bait zaio. Beraz, kexu da, ETA-ko langileek zeramatzen jokabideaz: “Incluso nuestros militantes de las fábricas se veían a menudo dedicados a tareas que no eran propias de un obrero revolucionario, sino más bien de un demócrata burgués que lucha contra la opresión nacional”. Nazionalismorik ez, baino abertzaletasun garbientzat hartu beharko litzatekeena, euskal kulturaren aldeko lana bera, burgeskeria iruditzen zaio Mogimendu Komunistari: “... La tendencia burguesa y feudal-burguesa se encubre con la consigna de *cultura nacional*. Los ultrarreaccionarios y clericales, y tras ellos los burgueses de todas las naciones, hacen sus sucios y retrógrados negocios en nombre de la cultura nacional”... Burgesiak eta feudal-burgesiak euskal kultura nazionalari asko lagundu dionik, guk ez dugu inon ikusi, baina holaxe izango da, MK-ak hola esaten badigu (Stalin baitan irakurrita noski).

Marxismo borobil-borobilak asmatu ditugu benetan. Abertzaletasun oro erreazionario eta retrogrado bihurtzea, bestek ez, eta guk lortu dugu, sekulako gure filosofiekin... Ez bait dugu nazionalismoa eta abertzaletasuna ezertan berezi.

Beraz, nazionalismo, burgesiaren “patriotismoari” esaten zaio. Herri oldeek beren patriotismoa dute eta horri ez zaio nazionalismo esaten: abertzaletasun edo patriotismo esaten zaio. Marxisten mintzamoldea hori da. Gustatzen ez bazaigu, mintzamolde hori utzi besterik ez daukagu. Baina, orduan, usadio marxista klasikoa utzi dugu. Gure arteko xit iraultzaile eta xit marxista batzuek, halare, “nazionalismo iraultzaileaz” mintzatu izan dira, “proletalgoaren nazionalismoa” adierazi nahiz... Marxismoa gorabehera, ikusten denez, gartzelaniak bere moduak inposatzen ditu, Euskadiko iraultzaren teorian.

Zergatik asmatu da mintzamolde hau? Aitor dezagun, Sobiet Batasunak duela mintzamolde edo konzeptu berezkuntza hori horrela inposatu. Badu bere legitimazio histo-

rikoa. Mundu guziak hesiturik eta herstuturik, eta gero Hitlerek eraso zioenean bereberki, Aginpide sobietarrak sentimentu abertzaleak supiztu zituen, agresioari buru egiteko Sobiet Batasunean sentimentu abertzaleak biziki indarberritu ziren. Bigarren Mundu Gerra Napoleonen aurkako "Gudu Abertzale Haundia"-rekin parekatu zuen propaganda ofizialak. Sobietarrak abertzale, erasotzaileak nazionalista, egin zen berezkuntza. Internazionalismoari nazionalismoa kontrastatzen zitzaion, ez patriotismoa. Batbatean, nazionalismoaren kondena gogorrenarekin batera, abertzaletasunaren laudorio gozoenak abestu behar ziren.

Halare, arrazoiok azkenean urrunago sustraitzen dira. Zergatik burgesiari nazionalista eta nazionalismoari beti ere burges erizten zaion, Marxen eritzietan oinarritzen da. Marxentzat nazioak burgesiaren produktu dira; nazionalismoa burges da. Beraz, berriz ere, konzeptu hau ere, nazioarena, guk ohi ez dugun bezala erabilia, mugatuta, daukagu. Aparte ikusiko dugu. Nolanahi ere, harrez gero joera bat bezala sozialismoan gelditu da, nazioari buruzko ardurak eta kezka oro errezeloz edo hartzeko; problematika guzi horri buruz arras negatibo paratzeko joera ez denean. Nazio arazoa eta marxismoa ez da, lehenak gu nahastu gaituen, problema; bere lehen-lehenengo egunetik dakar korapilo hori marxismoak. Gure aurretik beste asko legez, gu *berriro* nahastu gaitu; ez gu lehenengo.

Horrenbestez, lehen konklusio bat eskuratzen dugu, beharbada tautologia hutsa dena, baina, esatea, Euskal Herriari inportante izan litekeena: proletalgora patriota izan liteke; behar ere du patriota izan, hots, abertzale. Proletalgora ez da eta ezin izan liteke "patriota burges", hots, nazionalista, burgesiak engainaturik ezpada.

Izan ere, zer da nazionalismoa? Nazionalismoa klase berezi baten "abertzaletasun" berezia da; burgesiaren ideologia denez gero, burgesiaren klase interes partikularren araberrako abertzaletasuna. Beraz, ez da herriaren/aberriaren interesen araberrako abertzaletasuna, klase burgesaren

interes mugatu eta berezien arabera eta espezifikoa baino. Burgesiak *bere klase interesen eta nazioaren berdinkuntza* bat egiten du eta hori da nazionalismoa, terminologia marxista klasikoan behintzat. Ikus dezagun nazionalismoaren esplikazio klasikoa.

Burgesiaren lehenengo interesa, nazio merkatuaz bera jabetzea eta nagusitzea da, besteren eragozpen gabe. Burgesia nazionalak lehiakide eta etsai ditu beste nazioetako burgesiak: kapitalistek elkarri merkatua jan nahi bait lio-kete. Orduan, burgesiak, "bere" nazioa beretzat aseguratu nahi du, - merkatua, lan eskua, lehen materialak; eta berea ongi aseguratutik, besteen merkatu eta lehen materialiez jabetzen saiatzen da. Nazio bateko burgesia mehatxu bat da bestekoarentzat, gustora jango bait luke haren merkatua. Kapitalak ez du aberririk; baina kapitalistak herri guzia jartzen du haren interesak zaintzen, kapitalistaren "nazioa" zaintzen, kapitalistaren interesok eta nazioaren interesak bat eta bera direlakoan eta kanpotik mehatxaturik daudelakoan. Kapitalistaren interesak nazioaren interes direla, sinestarazten dio jendeari. Eta, izan ere, heintxo batetan hori horrela denez, edo hala dirudenez, handik hara "nazionalismo burgesa" sortzen da: hau da, ideologia burgesak bere nazionalismoa du (eta, zentzu hertsian, marxistak honi bakarrik esaten dio nazionalismo). Burgesiak, bere interesak lehiakideen amenazotik hobeto zaintzeko, herri guzia bihurtzen du haren interesen zaintzaile. Eta herriak burgesia zaintzen du, nazioa zaintzen duelakoan; burgesiaren alde bizia ematen du, eta laguna hiltzen du, nazioaren alde hiltzen delakoan eta duelakoan. Eta "nazioa" mugaz, aduanaz, inportazioen zergaz eta errenteriaz bil-biltzen eta hersten da, burgesiari komeni zitzaion bezalaxe.

Nazionalismo burgesaren adibide polita etxean dauka: nazionalismo kontzertu ekonomiko-zale eta, neurri batetan, nazionalismo Estatutuzalea ere, "abertzale fiskal" deitu duguna. Herriak bere burujabetasuna esijitzen du. Burgesiak burruka hori aprobetxatzen du, Gobernu zen-

tralagandik, ez herriak nahi zuena, eskuratzeko, baina bai kontzesioak ateratzeko, bere klase interesei komeni zaizkien pribilejioak. Herriak dagien autonomi burruka, burgesiak *bere* —ez herriaren— autonomia pribilejiatua lortzeko aprobetxatzen du.

Beraz, abertzaletasunaren eta nazionalismoaren subjektuak berezi ditugun moduan, abertzaletasunaren objektua eta nazionalismoaren objektua ere berezi ohi ditu literatura marxistak. Abertzaletasunaren objektua, xedea, herri osoaren ona da, burujabetasuna, herri ondasun materialen eta izpiritualen desarroiloa. Nazionalismoarena, klase baten ona da: burgesiaren pribilejioak pribilejiatzea, herri osoak zaintzen dizkion eremu ongi zaindu batetan, hots, “nazioan”.

Burgesiaren interes partikularrak, nazio interes arrunt orokar deklaratzeko dituzten nazionalismoak. Nola egiten duen? Aurreritzi eta sentimentu nazionalista tradizionalak baliatuz: harrokeria nazional, beste herrien destainu, etab. Hau da, nazioak elkarren etsai bihurtzen ditu. Nola duen posible holakorik egitea, historiari ulertzen da.

Nazionalismoa, klase jakin partikular baten ideologia jakin hori, nazioa zein nazioarte klase bakar baten ikusgune meharretik juzkatzen dituen, ideologia historiko bat da. Une historiko batetan agertua, baldinkizun historikoen arabera aldatuz eta desarroilatuz ibilia eta burgesia desagertu orduko harekin batera ezkutatzekoa. Baina, hasiera batetan, nazio kapitalisten sorrera garaian, nazionalismoak bazuen alderdi progresista bat: edukin iraultzaile demokratikoa. Eta, alde horretatik, burgesiaren interesak nazio guziaren interesak ziren. Kasta feudalei nazioa kontrajartzen zien; absolutismoari demokrazia. Klase progresisten espresio zen. Une honetan nazio interesek, hots, herri guziaren interesek, zinez burgesiaren interesekin bat egiten zuten; nazionalismoak eta abertzaletasunak ere neurri handian bat egiten zuten hortakoz. Hasieratik bertatik zegoen, halare, elementu erreazionarioz kutsaturik, nazio guzien berdintasuna eta anaitasuna ignoratzen zuenez gero. Bere egin-

kizun progresista bete eta kapitalismoa inperialismo haroan sartu zenetik, nazionalismoa erreazionari eta antidemokratiko hutsa bihurtu da. Haren lehenagoko alderdi positiboak, orain, proletalgoaren abertzaletasunera pasa dira.

Abertzaletasun proletarioak edukin demokratiko eta iraultzailea du. Proletalgo unibertsalaren ikuspidez baliatzen da; beraz, ez ditu nazioak elkarri buruz-buru kontrajartzen eta elkarren etsai agertarazten. Horregatixe, nazionalismoa bera juzkatzekoan ere, inportantzia haundiena ematen dio, nazionalismoa nazio zapaltzaile batena den ala nazio zapaldu batena. Nazio zapaltzaile baten nazionalismoa erreazionario hutsa da. Nazio zapalduaren nazionalismoak, aldiz, elementu erreazionarioz nahastuta egon arren, aurrerapen sozialari laguntzen dio eta, funtsean, kontenido demokratiko bat nahitaez adierazten du... Egungo Autore marxista ortodoxoei, behintzat, hala irakurtzen diegu. Tesi hau Leninen (1914-eko) aipaldi batez bermatzen dizute: "Nazio zapalduko EDOZEIN nazionalismo burgesek [hots, nazionalismo burgesek!] dizu edukin demokratiko arrunt bat, zapalketaren *aurka* zuzendua, eta edukin hau guk *inkondizionalki* apuiatzen dugu".

Har dezagun kontuan, Lenin hori esaten ari zeneko situazioa. Inperio errusiar ksarista —nazio gartzela— nazionalitate oso ezberdinak biltzen zituen Estatu zen. Eta Estatu feudal-absolutista zen. Nazionalitate zapaldu inportanteenetan asaldaturik zebilen *burgesia*: Polonian, Finlandian, Ukrainan, etab. Estatu ksaristaren egitura feudal zaharrak ez zihoazkion gehiago, bidean zetorren gizarte eraberrikuntzari. Nazionalitate zapalduetako burgesiak independentzia nahi zuen, bere desarroiloa ongi eramateko. Leninek, burgesoi apuiatu egin behar zitzaicela, esaten du. Ez, noski, burgesak zirelako; ksarismoaren aurka esijentzia demokratikoak zituztelako baino: h.d., beren esijentziak, herri guziaren onerako zirelako, burgesia horien onerako baziren ere lehen-lehenengo.

Proletalgoa ere ksarismoaren aurka ari zen eta prole-

talgoak ere esijentzia demokratikoak zituen. Beraz, proletalgoaren burruka eta burges nazionalistaon burruka bateratu egiten zen neurrian (arerio berdina, helburu demokratiko —neurri batetan— berdina), proletalgoak burgesoi lagundu egin behar ziela, esango du Leninek... Hauxe zen, beraz, Leninen situazioa. Leninek, bistan da, ez zien burgesoi, burges direlako, lagundu nahi. *Situazio honetan*, ez du erabateko erantzunik eman nahiko ere, proletalgoa independentziaren alde dagoen ala ez dagoen. Independentzia, de fakto, burgesiak ari duen burrukaren helburua bait da. Metafisika irudituko zaio, behin eta betiko erantzun absolutorik eman nahi izatea. Leninek ez du independentzia *berez eta absolutuki* balio positibotzat hartzen. Lenin errealista da. Oso ondo kontsideratu beharra dagoela, esaten zuen, independentziaren alderdi positiboak eta negatiboak, kasu bakoitzean: alegia, burgesok lortzera zihoa-zen eta lehen-lehenik *berentzat* lortuko zuten independentziak, zer alderdi positibo eta zer alderdi negatibo ageri dituen. Eta, hain zuzen, alderdi positiboak eta negatiboak, ez burgesiarentzat berarentzat, herri osoarentzat baino; hau da, lehen-lehenik, proletalgoarentzat. Beraz, Lenin ez dago inkondizionalki independentziaren alde; Lenin ez dago inkondizionalki nazionalisten alde, hots, “abertzale burgesen” alde. Bai ala ez, proletalgoari komeni zaionaren arabera ikusiko da, kasu bakoitzean zer pentsa independentziaz. Era berean, proletalgoak laguntza kondizionatua emango dio burgesiari honen burruka nazionalean. Izan ere, proletalgoak ezin onar dezake, esate baterako, bere interes guziak hondatzera lihoakeen independentzia formula bat. Begien bistakoa da hori.

Guk, Leninek bezalaxe, sozialista abertzaleok, ez dugu balio absolutu kontsideratzen politika nazionala; eta ez diogu inoiz laguntza inkondizionalik eman edozein euskal politika nazionalí. Zenbait “abertzalek” hori nekez uler-tzen badu ere, abertzale sozialistaok ez gaude edozein “poli-tika abertzale” apuiatzeko.

Irakurleak badaki, nola, Euskal Herrian, Leninen irakaspentok: independentziaren arazoa proletalgoaren interesen ikusaldetik erabaki behar dela, etab., kasi Leninen zentzu kontrariora bihurtu izan diren. Politika abertzalearen boikot inkondizional bat egiteko erabili bait dira etengabe. Politika nazionalistari ez zegoela inkondizionalki laguntzerik: hemen politika zeharo espainolista egiteko arrazoi bihurtu da... Alegia, zeharka gutienez, oligarkiaren “politika nazionalari” laguntza inkondizionala emateko aitzakia: “politika nazional” burges hura hemen beti espainolista bait zen, Finlandia edo Poloniakoaren kontrara. Burgesia nazionalistari ez dagoela inkondizionalki laguntzerik, esaten zuen Leninek; eta, hemen, “nazionalismoari” ez inkondizionalki laguntzearen, inkondizionalki burgesiari lagundu zaio...

Leninen akklarazio batzuk, hemen, politika abertzalea boikotatzeko erabili dira de fakto. Burgesiaren esijentzia praktikoei —independentzia— proletalgoak *printzipioen politika* kontrastatzen diela, esaten zuen: hemen predikutzu epel-epel hutsa bihurtu da hori, zapalkuntza oro kondentatzen dela, pribilejio nazional oro kondentatzen dela, etab. *Printzipioen politika*, predikutzu debotuen politika bilakatu da. Leninek esaten zuen, nazio arazoan proletalgoak printzipioa abstrakt defendatzen zuela: hau da, printzipioa zinez defendatzen duela, beti defendatuko duela printzipioa, baina kasu bakoitzean ikusi behar dela, esijentzia konkretuak nola formulatu. Hemen, ordea, *abstrakt* hura arrunt eta anbiguo bezala ulertu da, handik edozein oportunitate ateratzeko; eta *praksiari kontrastatuaz* bezala ulertu da, “autodeterminatzeko eskubidea” guziz abstrakt proklamatzeko, baina praksian ezer ez egiteko, egunoroko praxia den autodeterminazioan. Leninek esan du, proletalgora nazionalismo guzien aurka dagoela: eta hemen, problema daukana hura izanik, bere politika “nazionalista” bezala formulatzen duena, Euskal Herria da; orduan, axalaxalean geldituaz, euskal politika nazionalaren aurka bi-

hurtu dira sasileninistaok, egiaz nazionalista burgesiaren politika espainolista dela, erreparatu gabe. Proletalgoa ezin alia daitekeela burgesiarekin; eta, abertzaletasuna burges dela suposatuz beti ere, proletalgoak ez duela nazio arazoaz kezkatu behar, konkluditu da... etc. Hemen gertatu dena, da, marxista pijoena, burges koxkorrak genituela, bai jatorriz eta bai pentsamoldez. Kosmopolita eleganteak.

Alde guzietatik Lenin aitzakia huts bihurtu da, nazio arazoan proletalgoari pasibitate absolutua praktikaizteko; praksian euskal politika nazional oro boikotatzeko, printzipio deklarazio filisteo batzuetan anparatuaz nabarmenegi espainolista inperialista ez agertzearren.

Lenin esaten ari zena, direkzio kontrarioan zihoan: nazionalitateen independentzi eskubidea, une honetan burgesia ari da proklamatzeko eta erabiltzen; guk, horregatik, ez daukagu inkondizionalki apuiatzerik; baina printzipioa bera, abstrakt, orain burgesiak aprobetxatzen duen arren, printzipio demokratikoa da eta guk inkondizionalki eta aktiboki onartzen dugu. Proletalgoak, burgesek proklamatzeko dituzten eskubide demokratiko guziak eta gehiago, bait ditu bere gain hartzen. Nazionalitateen independentzi eskubidea ere bere gain hartzen du hortakoz. Proletalgoak bere programan hartzen du nazio zapaldu guziak askatzea eta independizatzea; hori beste batek egiten badu, burgesiak alegia (halaxe gertatuko dela, bait dirudi momentu honetan), proletalgoak ez du edonola eta edonoiz eta beti ontzat emango; baina, hori aparte, proletalgoak irmoki eta deliberatuki nazionalitateen autodeterminazioaren alde saiatu behar du bere aldetik.

Zer esan nahi du, proletalgoarentzat independentzia ez dela absoluturik, proletalgoak ez duela independentziaren alde edozein kasutan eta inkondizionalki jokatu, etab., guzi horrek? Egia esateko, ezer gutxi, edozeinentzat zentzu komunekoa litzatekeena baino gehiago. Esan nahi du, Euskadiren independentzia lortzera doana, hipotesi batetan, Chavarri bada, esate baterako, edo Pilar de Ca-

reaga bada, ba, proletalgoak bi aldiz pentsatu beharko lukeela, momentu hartan eta kondizio horietan, independentziarik komeni ote zaion... Bistan da: ez proletalgoak eta ez beste inork nahiko du independentziarik, lehen baino okerrago jarraitzeko.

Hain gauza simplea baldin bada, zergatik azpimarkatu du hainbeste Leninek holako simplekeria bat? Iruditzen zaidanez, Leninek berak ez du azpimarkatu gauza hori, hemen etengabe horixe esaten beti ari zaizkigunek adina. Eta, batez ere, ez du azpimarkatu, horiek ematen dioten sentidoarekin. Baina azpimarkatu beharra, beharbada gehiagozuen Leninek, hemen dagoen baino. Orduan Errusiatik independentzia esijitzen ari ziren burgesia poloniar, finlandiar, etab. nazionalak, independentziak nazioa nahitaez beren eskuetan utziko zuen zihurtasun osoz, eskubide inkondizional eta absolutu bezala proklamatzeko bait zuten independentzi eskubidea. Burgesiak independentzia edozein kasutan eta kondiziotan esijitzea, gauza erraza zen eta batez ere politikoa zen, de fakto edozein kasutan eta kondiziotan ere nazio independenteko nagusitasunak bere eskuetara etorri beharko zuen momentuan. Kontestu hartan, proletalgoak independentzi eskubideari balio absolutu eta inkondizionala aitortzea, absolutu eta inkondizionalki burgesiaren morroin jartzea zen. Proletalgoak, ordea, momentu hartan nazio independentearen buru ezin bera bilaka zitekeela, ondotxo jakinez, printzipialki onartzen zuen halare independentzi eskubidea, baina ez zuen batere zihurtasunik, independentziarekin berak irabazten ala galtzen irten-go zuen: segun nolakoak izan kondizioak, independentzi modua, etab. Eta ezin egon zitekeen beste gabe edozein independentziaren alde, absolutuki eta inkondiziozionalki.

Askotan, independentzi eskubidearen kondizional/inkondizionaltasun puntu hau, modu metafisiko xeblebre samar batetan eztabaidatuta ikusi dugu hemen... Okerrago dena, independentzia proletalgoarentzat absoluturik ez dela,

esaldiak, proletalgoari bost axola zaiola, sentidoa hartu du askotan. Hori, ordea, hitzen sentidoa aldrebestea da.

Hau da: badu burgesiak politika nazional independista bat, proletalgoak printzipio mailan onartzen, baina praktisian beste bide batez, bere estrategiaz, bere bidetik, lortu nahi duena. Helburua, nazionalitate bakoitzaren burujabetasuna, proletalgoak ez du persegitzen burgesiak baino gutiago. “Guk (marxistaok), sozialismorako burruka iraultzalea, *nazio arazoari buruzko programa iraultzaile* batekin elkartu behar dugu”.

Guk —darrai Leninek— Renner eta Bauerren aburua (“autonomia nazio-kultural” ohi deritzatenak) erreakzionario direla, erakutsi behar diogu jendetzari, herri oldeei; bestekoz, ordea, NAZIO ZAPALDUEN BURUJABETASUNA, SEPARAZIOA, ESKATU BEHAR dugu, eta ez hizki-mizki eta esaera esate arrunt belasketan, ez deklamazio ahuletan, ezta ere nazio arazoa konpontzea sozialismoa etor dadin arte luzatuaz, baina bai argi eta garbi eta zehatz formulaturiko egitarau edo araupide politiko batetan eskatu ere; eta nazio zapaltzaileetako “sozialisten” koldarkeria eta hipokrisia propio eta espreski salatuz gainera.

Leninek ez zuen erdi-merdizkako proposapenik nahi sozialista artean; tesi garbiak eta ongi definituak eskatzen zituen nazio arazoaz. Horregatik ekingo dio Kautskyri, edozein burges liberal bezain demokratiko neurritsu gelditzen delako:

Ahoz eta hitzez bakar-bakarrik dago (Kautsky) nazioen autodeterminazio eskubidearen alde. Hitz-punttaz bakarrik dago Alderdi sozial-demokrata, nazioen autonomia edozein aldetatik eta azpi-sugekeria gabe (risum teneatis amici, - ez farre egin, mutilak!) errespetatu, begiratu eta galdatzearen alde [Kautskyk berak, hala zegoela, esaten bait

zuen]. Baina benetan, obretan, sozial-xobinismo nagusiaren gustuari egokitu dio bere programa nazionala, hau okertu, herbaildu eta moztu egiten du, ez ditu nazio zapaltzaileetako sozialisten eginbeharrak behar bezala erakusten eta finkatzen. Arago, halare, nazio bakoitzarentzat “Estatu beregain-tasuna” eskatzea gehiegi litzatekeela, esanez, hain zuzen printzipio demokratikoa bera eskarniatzeraino eta faltsetzeraino heldu da. Haren eritzi jakintsuari jarraitzekotan “autonomia nazionala” aski litzateke!!! Galderarik garrantzitsuena hain zuzen, burgesia inperialistak ukitzen ere uzten ez duena, Kautskyk baztertu egiten du: alegia, nazioen zanpaketan oinarriturik eraikitako *erresumen mugen galdera*. Kautskyk kanpora bota du Alderdi sozial-demokrataren araupide nazionalan garrantziarik haundien-haundiena zuen puntua, burgesia-aren atsedean eta lasaitasunerako. Burgesalgoa gertu bait dago, egon, nazioen edozein “eskubide berdintasun” eta edonolako “nazio autonomia” agintzeko, honela langileria legetasunaren barruan geldidadin eta Estatu mugen arazoan xalo-xalo burgesalgoari burua makur diezaion. Kautskyk darakuskigun programa nazional sozial-demokrataren adierazkera ez da iraultzailea, erreformista da (1).

Zer esanen dugu: Leninek absolutoki eta inkondizionalki nazionalitateon independentzia esijitzen zuela? Ez. Baina bai, hemengo bere buruaren marxista-leninista bataitzaile askok ez bezela, Leninek politika iraultzaile garbia

(1) Mogimendu Komunista berriz ere postura kautskyanoetara itzuli edo zaigu apika: «Mientras que para el nacionalismo la cuestión de las fronteras estatales es una cuestión fundamental, para el Partido comunista se trata de un problema secundario, pues —sin dejar de laborar por crear comunidades cada vez mayores y más estrechamente unidas— lejos de alimentar divergencias si las fronteras han de pasar por aquí o por allá, lucha precisamente por eliminar esas divergencias en el seno del proletariado y del pueblo buscando siempre la solución más favorable para la unidad obrera y popular» (*Komunistak* 3, or. 19). Leninista baino kautskyanoagoa bait da hori.

eta konsekuentea eskatzen ziola sozialismoari nazio zapalduen independentzi alde.

Leninek, erreparoa jarri ditu, baina ez da beti aitzaki-maitzaki eta baina eta baino ibili, berak gogorki salatu dituen erreformistak eta xobinistak bezala.

Jarrera hau, alde batetik Leninen demokratismo radikalaren ondorio da, ikus daitekeenez. Bestetik, bai nazionalitate zapalduon eta bai proletalgoaren etsai komunaren kontsiderazioak ere horretaraxe behartzen duela proletalgoa, esan digu Leninek: “nazio zapalduko edozein nazionalismo burgesek dizu edukin demokratiko arrunt bat, zapalketaren *aurka* zuzendua...” Halare, nire ustez, laburregi gelditu da hemen Lenin: formula negatibo soila dugu oraindik. Nazio zapalduen nazionalismoak —nazionalismo dela kontu eginik ere, hots, burges— ez du edukin demokratikoa zapalkuntzaren *aurka* doalako bakarrik, eta ez horregatixe hain zuzen gehiena, baizik eta zerbaiten *alde* doalako: nortasun nazional baten alde. Leninek, bera nazio haundi eta zapaltzaile batetako izanik, berari eta burkideei zihokien alderdia aipatu du. Alderdi horregatik, nazio *zapaltzaileko* sozialistek inkondizionalki apuiatu egin behar dute nazio zapalduaren burruka zapaltzailearen *aurka*. Nazio *zapaldukoak* bertakoak, ordea, gutien ikusten duena *aurka* horixe da; eta beti begien aurrean duena, da, zeren *alde* diharduen. Hori bait da nazio zapalduko sozialisten eginkizuna: abertzaletasun positiboa. Euskadik ez du nahi askatasuna inoren *aurka*. Bai, bere alde. Zapalketa bukatzek ez du sentidorik, hura bukatuaz gero desarroilo positibo bat posible bihurtzen delako baino. Eta hori da, nazio zapalduko sozialistak begien aurrean duena. Tamalez, teoria sozialista bururatu dutenak, nazio arazoarekikoan, *nazio zapaltzaileetako sozialistak izan dira denak*, eta nazio arazoak beren ikuspegitik ageri dituen alderdiak eta beren estrategian duen balioa, aipatu dizkigute. Nazio zapalduaren beraren ikuspegitik ageri dituen alderdi positiboak, bistan da, nazio zapalduetako sozialistek berek azaldu eta lan-

du behar dituzte. Marxismo ortodoxoan llaburtxo gelditu bait da hori.

Dena den, konklusio berri hau eskuratu dugu iadanik, formula negatiboan bada ere: zapalketaren aurka, sozialistek nazio zapalduko “nazionalismo” burgesaren bera-
ren edukin demokratikoa (azken finean, burruka nazional burges-demokratikoa bera) positiboki epaitzen dute eta inkondizionalki apuiatu behar dute... Gure artean ez dugu halako inkondizionaltasunik asko ikusi. Kondizio asko eta laguntza guti, bai. Mogimendu Komunistako T. Diez baten sententzia hura, esate baterako, ezker abertzalea gonbatitzeko balio bait zuen: “El nacionalismo, como tal, cualquier nacionalismo, incluido el más *avanzado*, ha de ser combatido indefectiblemente”, etab.

Etsai komunaren kontsiderazioak bere baliotxo du demokratismoaren perspektiban: nazionalismoak esijitzen dituen askatasun demokratikoak (nazionalak, kasu honetan), bestela proletalgoak berak lortu beharko lituzkeenak dira. Baina inperialismoaren perspektiban kontsideratzen dugunean, hartzen du balio haundiena. Mundua bi bloketan partiturik dago: proletalgoa, kapitalismo inperialista. Inperialismoa ahultzen duen dena proletalgoari onuragarri zaio. Nazionalismo burges bat, burges izan arren, onuragarri zaio proletalgoari eta proletalgoak lagundu egingen dio, inperialismoa makaltzeko. Batez ere Hirugarren Munduak erakusten du ikusmolde honen inportantzia; eta sortalde komunistako literaturak egunotan biziki destakatzen duen alderdia duzu hau, nazionalismo burgesa positiboki baloratzeko. Nolatan lagun diezaioke Sobiet Batasunak Afrikako edo Asiako zenbait Estatu atzerakoiri? Nazioo nazionalismoa sarri “burgestzat” jo behar bait da. Baina edukin demokratiko progresista du eta mogimendu proletario internazionalistak —Sobiet Batasunak, adibidez— la-

gundu egin behar die, inperialismoaren aurka doazenez gero (2).

Beraz, 1. nazio burrukak edukin eta xede demokrati-ko batzu baditu, proletalgoari biziki interesatzen zaizkionak, 2. proletalgoaren etsaiari egiten dio buru nazio burrukak ere; eta hirugarren kontsiderazio mota bat gelditzen zaigu oraindik: nazio zapalduko abertzaletasunaren balorazio positibora, ortodoxia marxistan, internazionalismoaren kapitulutik hel gintezke. Izan ere, internazionalismoaren oinarria, nazio guzien askatasuna eta berdintasuna da, herri guziak askatasunean eta berdintasunean adiskide daitezten eta elkar. Elkartasunak ez du zentzurik, adiskidetasunean egina ez bada; adiskidetasunak ez du zentzurik, askatasunean lortu ez bada.

Engelsek Laura Lafargueri gutun batetan (1893-ko ekainaren 20) adierazten zioen moduan: "... elkartasun internazionalik egon daiteke bakar-bakarrik nazioen artean, haien esistentzia, autonomia eta independentzia barne arazoetan, internazionalitate konzeptuan bertan inkluditurik egonez gero". Bestela ez internazionalismorik eta ez demokraziarik dago.

Poloniaz diharduela, orobat, beste batetan: "zinez, ez zitekeen bi erizpide diferenterik sor, Europako formazio nazional haundiek duten eskubideei buruz, beren baitako arazo guzietan berenez erabakitzeke, aldamenekoen sarturtenik gabe, horrela besteren askatasuna murrizten ez duten artean behintzat. Eskubide hau, barne askatasunerako baldintza oinarrizkoenetakoa zen guzientzat... Europako nazio haundien independentzia politiko eskubide honek,

(2) Pentsabideok desarroilatuz saio interesgarriak egin dira Euskal Herrian, nazio arazoa eta marxismoa elkartzeko. Joera honetan daude, batik-bat, Krutwig eta Beltza. Baina, beste era batetara, baita Ortzi ere, ik. *Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA*, «Epílogo. Reflexiones sobre socialismo y patriotismo vasco», eta *Los Vascos, ayer, hoy y mañana*, III-gn parteko lehen kap., «Patriotismo vasco, socialismo e internacionalismo (la teoría socialista ante las minorías nacionales)». Entseiuok ez dute beharbada guziz lortuak irten. Baina abertzaletasuna reflexionatzeko bide guziz merezigarria da, sakondu eta osatu beharrezkoa aurrerantzean, inola ere ez abandonatzekoa.

europar demokraziak onartuak, oneritzi osoa behar zuen aurkitu langile klasearen aldetik ere, bistan denez”.

Internazionalismoaren oinarria hori da: nazio bakoitza jaun eta jabe dela bere buruaren. Printzipio demokratikoa, nazio bakoitza bere buruaren jabe izateko eskubidedun dela, bere egiten du langile klaseak ere.

Engelsek, badakigu, nazio haundientzat bakarrik onartu du printzipio honen balioa. Bi arrazoirengatik. Bat ko-untarala: bonapartismoaren (eta ksarismoaren) aurka joatearren, une hartan autodeterminazio printzipio horretaz aprobetxatu nahi zutenak inperialistaok izaki. Beste arrazoa Engelsen filosofia da; konkretuago, bizitzeko gauza ez omen diren “historia bazterreko herrien” ustea: bizitzeko gauza ez diren naziook, independentzia eskubiderik ez dute... Baina hau da uste bat, egun marxista ortodoxoek ere aipatzen ez dutena, Engelsen forma hartan behintzat. Beraz, Engelsen arrazoiek egun ez dute balio, nazioen independentzia printzipioa, internazionalismoaren oinarri gisa, nazio haundietara soil mugatzeko. Nazio haundien zein ttipien independentzia, internazionalismoaren presupostu da.

Begira dezagun berriro, nola Engelsen oharrok ere —goragoko Leninena berdin— gurea ez bezalako egoera batetatik sortuak ditugun. Guk, egoera larri honetan, independentziari zentzu positiboa ematen diogu: independentzia ez da, bestek ez dezala nire arazoetan burruntzalia sar; ezpada ni neu burujabe eta bortitz izan nadila neure arazoak burubidatzeko. Engelsentzat independentziak defentsa bat adierazten du, hauzokoen abusadioak ebitatzeko; gogoan zituen nazioak beren baitan aski bortitzak bait ziren. Guretzat norberaren ahalmen positiboak adierazten ditu independentziak, nork bere eginkizunak ongi betetzeko. Kanpotik bestek ez eragozte, presupostu bakarrik da honetarako. Euskaldunak egoki esaten du: burujabetasuna.

Beraz, internazionalismoa eskatzen digute euskaldunoi; eta guk ere horixe eskatzen diegu, eske ari zaizkigunei:

internazionalismoa. Hori bait da internazionalismoak esijitzen duena: nazio bakoitzak bere nortasuna aska dezala, indar dezala, sendo eta bikain dezala, harekin elkartasuna besteentzat ere aberasgarri eta sendogarri izan dadin.

Zapalkuntzaren *aurka* baino gehiago nazio nortasunaren *aldeko* burrukak, independentzia positiboak, hots, NAZIOGINTZAK, duen zentzu positiboa, ulertu gabe eta onartu gabe konsekuentzia guzietan, internazionalismorik eskatzea, guretzat absurdu da. Nazio haundi eta zapaltzaileetako sozialistek nazio zapalduen burrukan ez dute besterik positibo ikusi ohi, burruka hori, berak bezala, inperialismoaren aurka doala baino. Beren estrategian sartzen den ikuspidea horixe bait da. Baina ez dute aintzakotzat hartzen, gu, geure ikusgunetik, berak berenetik bezalaxe, inoren aurka baino gehiago, inoren alde ari garela; ezer desegin baino gehiago, zerbait egin nahi dugula. Desegin, haiek eta guk, gauza bera desegin behar dugu: inperialismoa. Baina egin, haiek haiena eta guk gurea egin behar ditugu. Eta, alde horretatik, haientzat problemarik ez dena —ez direlako nazio zapalduerik— problema haundi da guretzat. Hor motz gelditu da teoria sozialista klasikoa nazio arazoarekikoan.

Alfer-alferrik da besteri internazionalismoa eskatzea, norberak ezer egiten ez badu, elkartasun internazionalista posible izan dadin. Eta lehen-lehenengoa bestearen egoera eta bestearen premiak aintzakotzat hartzea da. Egiterik ez dagoena, batek bere burua besteen neurri eta arau bihurtzea da. Marxek sozial-xobinista frantzesi egotzen ziena, horixe bait zen.

Hain zuzen, gure arteko sozialismo klasikoaren keko-mekoak eta leloak arrazoi bat gehiago dira guretzat, internazionalistagatixe, abertzaletasunean irmotzeko. Internazionalismorik ez da posible, nazio batzuk haundi-maundi, nazio bezala problema gabe eta besteen problemen ardura gabe, badira, eta internazionalismoak zer izan behar duen, berek inposatu nahi badute; beste nazioak, aldiz, aspaldi-

danik ezezagutu, humilatu, zupatu eta zanpatu, guzi horren ondorio guziekin; eta haundiei interesatzen zaien moduan elkartu beharrik haiekin gainera. Zer besterik nahi beharko luke ttipiak, haundiaren elkartasuna eta laguntasuna baino! Haundiak baino premiago du. Nahi ez bada, ez da elkartasunik ez duelako nahi; zenbait haundirekin zenbait eratan elkartzea, azpiratzea delako baino. Haundia da, haundiek ebidentzia simple hori ez ikustea: elkartasunean interesatuen a ttipiak izan behar lukeela, eta interesatzen ez bada, haundiak badukeela seguru asko zerikusirik.

Leninek euskara garbian esan du: “Esijitu, guk nazio zapalduen autodeterminazio eskubidea, h.d., independentzia, h.d., apartatzeko edo separatzeko eskubidea, esijitzen dugu; ez, ordea, zatiketa ekonomikoan edo Estatutxoan idealetan amets egiten dugulako, baina bai, alderantziz, Estatu haundi-haundiak eta elkartasuna, azkenean nazio guzien bategintza, nahi ditugulako; baina nahi, oinarri zinez demokratikoz, oinarri egiaz internazionalistaz; eta horiek pentsaezinezkoak dira apartatzeko askatasuna gabe”.

Euskadik, ez bakarrik apartatzeko eskubiderik ez du; autonomia puxka bat edo Estatututxo batzuk lortzeko ere, ikaragarritzko lanak eta burrukak erabili behar ditu, ez dakit zenbait hildako, ehundaka torturatu eta milaka preso eta desterratu, kontatu behar; eta hori dena, “cualquier nacionalismo, incluido el más *avanzado* ha de ser combatido indefectiblemente” uste duten sozialisten begi zorrotzek begira-begiraturik, etengabe kritikaturik eta gonbatiturik, inkondizionalki lagundurik izan ordez.

Euskadik barne independentzia positiborik ere ez du, guretzat inportanteago bait da. Nazio desegina da, birrindua, barnetik hautsia, nahastua, konzientzia bera erdi galdua. Euskadi nazio aspaldian zapaldu, kiskaldu eta norgaldua da. Euskadik bere burua berregitea du lehenengo lana. Euskadik horretan aritu beharrik, Espainiako sozialistei eta Euskadiko sozialista espainolei problemak sortzen

badizkie eta molestatzen badie, horrexek berak erakusten du, egon ere zer beharra dagoen, horretan aritzeko...

Euskadiren problema gaitzena da, gaitz ororen sustraia, Dretxoak nazio bezala ezaguturik ez dagoela eta, beraz, ez diotela nazio eskubiderik ere ezagutzen. Ehun eta piko urte da, nazio nortasuna sistimatikoki ukatzen zaiola; eta, ukatzez gain, medio guziekin nazio nortasuna ito ere nahi zaiola. Espainiak ez du onartzen, Euskadi norbera dela, nazio dela. Sozialista espainolen lehenengo eginkizuna izan behar luke, Espainiak Euskadiren naziotasuna ezagun dezala, lortzea. Eta, lehenik, proletalگو espainolak bederen ikas dezala, nazio zapaltzaile batetako proletalگو dela. Ez bait daki hori ere. Eta nazio zapaltzaileko proletalگو konzientzia desarroila dezala. Ez bait du konzientzia hori. Sozialismo espainola, izan ere, Leninekin esateko, xobinista hutsa da. Ez du ezer egin, proletalگوari nazio zapaltzaileko proletalگو den konzientzia bizteko. Aitzitik, nazio zapalduaren burruka abertzalea kritikatzten, okerrak eta makurrak ateratzen, beti xobinista xobinistenak bezanbat lehiatu da. Burges liberalek gehiago egin dute, Espainian Euskadirekiko konprentzio piska bat zabaltzen, sozialistek baino. Eta hor dago komeria: gaur, elkartasun eta batasun internazionalista esijitzen aritzea —beti nazio zapaltzailetik zapaldura; oker guzia “nazionalistaona” balitz bezala!— Euskadiren nazio nortasuna ukatzeko edo ezezagutzeko tradizioari, mende oso bat eta gehiagoko tradizioari, indar ematea da; Euskadi nazio bezala ezagun ez dadin faktore bat gehiago. Internazionalismoa, inperialismoaren harma ideologiko berria gertatzen ari da.

Lehenengo Euskadi nazio bezala ezagutu beharra dago.

Berriz ere Leninek esan digu (1916):

Inperialismoaren gure haro honetan, munduko sozialistarik gehien-gehienak, nazio zapaltzaile eta oraino zapalketa are gehiago zabaldu-zaleetakoak dira [sozialista espainolak ez badira ere akorda-

tzen!] Horregatixe ere, okupazioaren aurkako gure burruka, mamirik batere gabetan gelditzen da, sozial-patriotentzat [hots, kautskyanoentzat] arrisku gabeko ekintza eta burrukatan gelditzen da soil, arik eta argi eta garbitu arte ondo puntu hau: bakes nahiz gudu bidez nazio zapalduaren SEPARAZIOA DEFENDATZEN ETA ZABALTZEN EZ DUEN NAZIO ZAPALTZAILEKO SOZIALISTA, EZ DA SOZIALISTA. BATERE INTERNAZIONALISTARIK EZ DA. XOBINISTA HUTSA DA.

Berriz esan, Lenin ez dago nazioak banatze eta apartatzearen alde. Baina bai, *nazio zapaltzaileko* sozialistek politika radikal, garbi eta konsekuente bat eraman dezaten alde. Nazio zapaltzaileko sozialisten ekintza deliberatu eta garbia, nazio zapalduaren burujabetasun oso-osoaren alde, ezinbesteko presupostu da, elkartasun internazionalistarik eraikitzeko.

Nazio zapalduko sozialistak, aldiz, ez ditu separazioa eta beregaintasuna, burgesiak dagien bezala, helburu eta jomuga bihurtuko, bide kontsideratuko baino. Sozialistak ez du nazioen separazioa eta isolazioa xede, elkartasuna baino, ez duelako merkatu hertsu batetaz jabetu eta lehia-kideei debekatu nahi ere. Proletalgoa internazionalista da, "nazionalismo" ororen kontra dago, bai (hots, burgesiaren nagusigo aurka, burgesiaren nagusigo ideologia bait da nazionalismoa). Nazionalismoarentzat, h.d., burgesiarentzat, independentzia helburu eta jomuga da: funtsean ez bait du besterik esan nahi "nazio askatasunak", burgesiaren aginte eta nagusigo osoa nazioan baino. Abertzaleontzat eta nazio zapalduko sozialistentzat independentzia bide soil da, ez helburu. Elkartasunera bide. "Finlandia, Polonia, Ukraina, Errusiatik banatu eta apartatu egiten badira, hor ezer txarrik ez dago, - entzuten diogu Lenini. Zer dago hor txarrik?... Noruega ere Suediatik apartatu egin da... Herrietan, gero, Noruegako nahiz Suediako proletalgoan, el-

karrengandik apartatu eta gero, elkarrenganako ustantza, konfiantza, indartu egin da...". Finlandiarrek, Leninek 1917-an argudatzen duenez, autonomia soila eskatzen dute, baina hobe lukete askatasun osoa. Bai, esaten digu Leninek, osa beza Finlandiak bere Errepublika, burujabe eta beregain, eta "orduan demokrazia errusoaganako uste ona, konfiantza, indartu egingo da, eta hau hala izan dadinean, orduantxe ez dira haiek separatuko". Eta Ukrainaz, halaber: "Errepublika ukrainar bat bere aldetik eta Errepublika erruso bat bestetik, egon daitezenean, bion artean are konfiantza gehiago eta are elkartasun gehiago egonen da".

Izan ere, gehien-gehienetan —gure kaltetan beti— independentzia eta separatismo berdintzen dira. Errealitatean, ordea, egiaz separatista zentralismoa da; nazioek elkarren nortasuna eta duintasuna ez ezagutzea eta ez errespetatzea. Herriak separatzen, apartatzen, dituena, zanpakea, elkarren mespretxua, mesfida eta bildurra dira. Hain zuzen, *mesfidak eta bildurrak desegiteko, ia bi mendetako burrukek eta zapalkuntzek sortu dituzten mesfidak eta bildurrak eta sentiera inperialistak desegiteko, eta elkartasun zinez internazionalistarik sortzeko, hemen, gure historiarekin, nazio bakoitzaren independentzia da bide bakarra*, 1916-an Leninek Finlandiarentzat eta Ukrainarentzat proposatzen zuen bezala.

Kontrazioan ez daude internazionalismoa eta independentzia: aitzitik, horiek elkar osagarri dira. Kontrazioan "batasun" zapaltzailea eta internazionalismoa daude.

Engelsek eta Leninek nazioen independentzi printzipioa, internazionalismoaren aurretiazko eta oinarri bezala defendatu dute.

Ez dugu ahaztu nahi, Engels eta Leninek zerabilten planteamoldean, hauzitan ez zegoela abertzaletasuna, baizik nazionalismoa. Eta nazionalismoaz ari zirelakoxe, mugapen eta baldintzapen asko jarri diotela independentzia printzipio hari: independentzia hura —Engelsek eta Leninek bu-

ruan zerabiltena, orduan hauzitan zebilena horixe izaki—burgesiaren menpean bait zen independentzia.

Gogora dezagun berriro Leninen situazioa: nazionalitate asko biltzen dituen inperio ksarista bat; nazionalitate zapalduetako burgesia “nazionalistak”, independentzia eske: horien helburu, ordea, nazioa aska dadinean nazio merkatuaz berak jabetzea da. “Nazionalismo”, Leninentzat, hori da eta horixe besterik ez. Lenin nazionalismoaz mintzo denean, horretaz mintzo da eta ez bestetaz. Nazionalismo horrexen alderdi positiboak eta negatiboak dira Leninek azaldu dizkigunak.

Baina guk, Euskadin, nazionalismo esaten dugunean, besterik adierazi nahi dugu, errealitateak ere hemen bestelakoak ditugu eta. Hemen, nazionalismoa, Leninen zentzuan, h.d., burgesiaren nazio politika, espainolismo da eta beti espainolismo izan da. Nolabait esateko, euskal burgesiaren nazionalismoa ez da nazionalista, antinazionalista da. Ez du Euskal Herriaren burujabetasunik nahi; alderantziz, berak suntsitu du Euskal Herriaren burujabetasuna eta xahutu nahi du euskal nazioa.

Leninek ezagutu duen nazionalismo burgesa (=nazionalismoa) eta hemen daukagun nazionalismoa (=abertzaletasuna, burgesiak ezin ikusia eta burrukatua) bi gauza oso diferente dira. Nazionalismo burges hartaz ere Leninek eritzi positiboagoak eman ditu, ordea, eta postura positiboagoak esijitu ditu, hemengo “sozialistek” abertzaletasun herritarraz baino...

Euskadin daukagun situazioa, Leninek eta ezagutu zutenaren justu kontrarioa da. Leninek eta, mogimendu abertzaleaz hitzegiten dutenean, beste gabe suposatzen dute, burgesia dela mogimendu abertzalea gidatzen duena. Halaxe zen garai hartan. Mogimendu proletaria, aparte egon ezezik, minorian zegoen eta ez zeukan batere posibilitaterik, errebindikapen nazionalen buruan bera jartzeko. Alderdi haundiak, burgesak ziren. Baina imagina ditzagun Euskadin momentu batez, hipotesi modura, gauzak, ger-

tatzen ari direnaren alderantziz: hemengo indar sozialista denak bloke sozialista bat direla, - alegia, PSOE, PCE, ETA, ezker abertzaleko talde eta Alderdiak, eta beste berriak: MC-EMK, etab. Eta imagina dezagun Euskadik irabazi duela independentzia. Zein izango litzateke Euskadin indar nagusia? Dударik gabe bloke sozialista. Ez legoke burgesiaren zer bildurrik izan ere bereziki (are, burgesia horrek oraindik bere harmadarik ere ez bait luke izango). "Konpromiso historiko" batetarako aukera hobea lukeen *Italia bella*-rik ez legoke munduan, sozialismorantz abiatzeko! Independentzia gabe ere, oraingo egoera honetantxe: horiek denak borroka abertzale konsekuente batetan konprometatuta baleude, Euskadiko gehien-gehiengoa bilduko lukeen blokean, sozialistak lirateke indar hegemonikoa: ia frankistak bakarrik geratuko bait lirateke bloke hortatik kanpora; PNV-ek, etab., sozialista abertzale horien borrokan sartu beharko lukete... Ez da hori gertatzen. Hemengo sozialisten estrategiak nahiago du Espainia kapitalista bat, Euskadi sozialistarik baino: ez dute Euskadi independienterik nahi, sozialista izateko ere; ez dute estrategia abertzalerik nahi, sozialismoa indar hegemoniko bihurtzeko ere. Posibilitate horiek beren eskemetatik kanpora gelditzen dira (gu gara, sozialista abertzaleok, holako hipotesirik, ametsetan ere, egiteko kapaz garen bakarrak). Euskadiko indar politikoen artean gaur sozialismoa indar hegemoniko kasi zeharokoa ez bada, arrazoia da, sozialistek ez dutela estrategia hori nahi. Beraz, hori da egia: sozialista horiek ez dute sozialismorik nahi, sozialismoa euskalduna bada. Dударik gabe, sozialismo espainola izatea da, horiek nahi duten sozialismoaren kondizio *sine qua non* bat.

Leninek esan du, eta arrazoiez, independentziak ez daukala proletalgoarentzat absoluto bat izaterik. Euskadin, ordea, absolutoa, dependentzia da, sozialistaon eskemetan. Euskadiren dependentzia Espainiatik. Eskema haustezin horren barruan egiten bait dira beti planteamenduak. Es-

trategia espainol batetan. Absolutoa hori da, Espainian sozialismorik dagoenez gero, Gobernu erreakzionariei buruz nahiz Herri Fronteari buruz, Errepublikari buruz bezalaxe Diktaturari buruz. Beti. Beti berdin-berdin. Euskaraz mintzo zirenak gehiengoa zirenean nahiz gutiengoa direnean. Errealitateak aldatzen dira, eskemak ez. XIXgn mendean nahiz XXgn mendean, Estatu honek ehunurte honetan eza-gutu dituen gora eta behera guzti-guztietan, beti konstante, puntturik ere aldatu gabe. Hori ote da independentziaren hauzia zirkunstantzien arabera planteatzea? Zer ote da, hemen, zirkunstantzia historiko eta gorabehera politiko guztien gaintik, sekula guzti eta beti absolutoki firme dagoena: independentziaren dogma “burgesa” ala dependentziaren dogma ez gutiago “burgesa”?...

Ohar bat, beraz: sozialista klasiko horiek, klase planteamendu falta, “interklasismo” akusazioa, egin izan diote euskal abertzaletasun klasikoari, PNV-eri bereziki. Ederki. Baina, 1. sozialista horiek berak —PSOE beti, PCE berriki-klase diferenteen aliantza antifaxista edo antimonopolista batetan pentsatzen dabilta, beren estrategia berri guztia eraikitzeko, eta 2., nazio arazoa dela ta ere, ezin esan liteke klase planteamendu hutsak egiten dituztenik: bestela, Euskadin, proletalga hegemoniko bihurtuko lukeen estrategia hartu beharko lukete, indar sozialista hautsi denak borroka abertzale batetan elkartuz.

Baina hipotesiak hipotesiak dira. Ez gehiago. Konstruktio horrek, halare, non gabiltzan, ikusten, lagun diezaiguke. Izan ere, denok dakigu, hipotesi hori errealitatera abiatuko balitz, gauzak asko konplikatuko lirakekeela. PSOE edo PCE, deskuido santu batez, linea abertzale garbi batetan sartuko balitzaizkigu orain, jesukristoren iskanbilak sortuko lirakeke basean. Beraz, bere logika du, PCE-k eta PSOE-k beti esaten dutenak: abertzaletasunak langileria-
ren batasuna hausten duela. Egia da, PCE-ren eta PSOE-ren optikan eta berorien errealitatean: borroka abertzale/
sozialista bat jarraitu baino lehenago, banatu egingo lira-

teke horien langile masak. Langile asko eta askok ez luke Zentral Komitearen biraketa abertzale bat inola ere onartuko, nahiago luke beste opzio espainolistaren bat. Baina zergatik? Sozialistagatik, - ala espainolistagatik? Bistan dago, euskal abertzaletasunaren *inguruan*, langileriaren —hots, sozialismoaren— erdibikuntza sortzen ari dela, eta aspaldian (ELA ez bait zen bestegatik sortu): baina truko bat da, langileriaren banaketa, euskal abertzaletasun-AK sortzen duela esatea. Banaketa, euskal abertzaletasunaren *inguruan* sortzen da: baina banakuntza sortzen duena, langile batzuen euskal abertzaletasuna adina, gutienez, perspektiba sozialista batetan hain zuzen askoz nekezago legitima litekeen beste langile askoren espainol “abertzale-tasuna” da. Politikeriaren errekurso erraz eta tranpa itsusi bat da, beraz, proletalgoaren batasuna abertzaletasun-AK hausten omen duelako errosario guzti hori. PSOE-ren edo PCE-ren barruan joerarik sortu izan denean abertzaletasun aldera, segituan sortu izan dira teinkak eta krisiak. Soluzioa, joera horiek likidatzea izan da beti... Denok dakiguna da, ondotxo jakin, Euskadiko langile askok ideologia espainolista xobinista herstu-herstua duela: ideologia dominanteak kutsaturik, gehienek; bere Alderdi sozialistak ere besterik irakatsi ez diolako, ez gutik. Beraz, daukaten basearekin, biraketa abertzale bat, hipotesian bururatu dugun bezalakoa, basean puska galantak galduz bakarrik, egin ahal izango lukete, Alderdi sozialista klasiko horiek. Ez litzateke horrela izango, klase organizazio hutsak balira. Klase motibo hutsak eta klase planteamendu garbiak balira horienak. Eta ez, klase planteamendu hutsaren aitzakiaz, beste xobinismo bat ezkututzen dutenak. Zer nolako “klase interesak” dira, Euskadin sozialismoa indar hegemoniko bihur lezakeen estrategia, debekatzen dutenak?

Alderdiak, historia eginaz, beren historiaren esklabo ere bilakatzen dira; eta basea organizatuz, beren baseen esklabo ere bilaka daitezke: zirkunstantzia historikoak aldatu ala maliobratu ezinik. Izan ere, lehenago ez bezala,

egun, Euskadin, abertzaletasuna eta sozialismoa elkartzeko esijentzia bizi-bizia dago. Baina sozialismo klasikoek ezin diote erantzun esijentzia horri, eta sozialismoari Euskadin sortu zaizkion posibilitate berriak ezin aprobetxa ditzakete. Beren historiaren, tradizioen, basearen, ideologia klasikoan, eskemen, zama astunak, immobilismoan lo-tzen ditu. Sortuz eta indartuz dihoan sozialismo abertzaleari akusazioa egiten diote, orduan, beren ezintasunean, proletalgoaren batasuna puskatzen duela. Errealitatea, ordea, da, mogimendu proletari abertzaleak, *bere iraganarekin* eten duela: iraganaldi antieuskaldun klasiko batekin, PSOE-k eta PCE-k inkarnatu duten iraganaldiarekin; nazionalismo espainola gonfirmatu besterik egiten ez zuen ideologia sasiunibertsalista batekin. Hori da hemengo sozialismoan gertatu den haustura nagusia. Haustura bat sortu da, bai, orain arte sozialismo klasikoek monopolizatzen zuten proletalgoan. Langileriak ere bere euskal konzientzia aurkitu duenez gero, ez dago beste biderik, egon ere, proletalgoaren batasun berri bat, maila berri batetan, aurkitzeko: sozialismo eta abertzaletasun esijentzia modernoan mailan. Aurkituko du mogimendu proletari euskaldunak, orain hautsiak, bere batasuna berriro. Aurkituko du proletalgo espainolarekin ere batasun berri bat. Baina ez, orain arte bezala, euskalduntasuna ignoratzearen edo ukatzearen oinarrien gainean —denbora horiek pasa dira, betiko, euskal sozialismoarentzat; alferrik itzuli nahiko da, edo setatu nahi da, orduko arrazoi eta eskemetan— ezpada herri diferenteek elkar errespetatzeko oinarriaren gainean. Proletalgoaren batasuna nahi duenak, eta proletalgoaren garaitzapena nahi dezanak behar luke hura ere nahi izan, hemendik aurrera gelditzen den batasuna beharko du bilatu: Euskadiri berea aitortzen dioen proletalgoaren batasuna. Biak: proletalgoa batu eta Euskadiri berea aitortu. Bigarrena gabe egin nahi izan bait du sozialismo klasikoak lehenengoa. Eta lehenago posible ere baldin bazen hori nolabait, geroz eta inposi-

bleago izango da. Sozialismoak, berraurkitu beharra dauka, garaitzapenera eta Euskadin indar hegemoniko izatera, eraman lezakeen estrategia berria. Ezin hegemoniko bihurtuko bait da sekula, nazio borroka asumitu gabe, honez gero.

Benetan, ez dugu esango, Leninen izkribuetan euskal arazoaren planteamendu sozialista perfektoa irakur daitekeenik, letraz-letra. Baina gure sozialista klasikoei berrirakurtzen dieguna, Leninen hitz asko bezain guti dira Leninen planteamenduak. Batere ez, Leninen planteamendurik. Hitzak bakarrik, handik eta hemendik hartuta: klase borrokaren lehentasuna, proletalgoaren batasuna burgesiaren aurka, herri guztien batasuna, internazionalismoa... Leninek, ordea; “guk, marxistaok —idatzi zuen—, sozialismoaren borroka iraultzailea, nazio arazoari buruzko programa iraultzaile batekin elkartu behar dugu”. Horixe da: 1. Sozialismoaren borroka iraultzailea, 2. aberztaletasun iraultzailea.

Ideiak modu askotara erabil daitezke. Leninek esan du, nazionalitate zapalduen beren eskubideak ezagutzen bazaizkie, orduantxe ez direla *herriak* elkarrengandik banatuko eta separatuko. Alderantziz, elkarren errespetuak herriak elkarganatzan dituela. Ideia hori aipatuaz eta, bere modutxora, polliki aldatuaz, Espainiako Alderdi Komunistak proposatzen du, Euskadiri Estatutua itzuli behar zaiola, hain zuzen *Estatu* espainolaren batasuna salbatzeko... Beraz, herriaren burujabetasuna, independentzia, Estatu batasunaren funtziotan daukagu kontsideraturik: “zuhurrago” da euskaldunekin liberalki jokatzea, bestela gehiegi hasarretuko zaizkigu... Horixe esaten zuen Kerenskik. Eta burgesenak ere hasi dira, Espainian bertan, hori esaten, “euskal problemarik” aintzakotzat hartzen ez badute, beste erremediorik ez bait dute “ETA-ren problema” aintzakotzat hartu baino! Gure ezkerren azkeneko kerenskiada!

Herri bakoitzaren burujabetasuna, independentzia, herri eskubide da. Eta ezeren funtziotan juzkatzekotan, el-

kartasun internazionalistaren funtziotan bakarrik juzka liteke; baina ez Estatu batasun sakratuaren funtziotan. Leninek herrien batasuna zuen begien aurrean; alegia, Estatu bat desegiteak inporta ez ziola, Errepublika berezi eta burujabe diferentetan bizi litezkeen herrien batasuna. Ez, hemen hainbeste enpeinurekin beti salbatu nahi diguten Estatu batasun sakrasantua. Eta Lenini, zenbait kasutan behintzat, "separazioa" iruditzen zitzaion biderik egokiena, batasunera ailegatzeko:

De la misma forma como la humanidad sólo puede llegar a la supresión de las clases a través del período transitorio de la dictadura de las clases oprimidas, sólo puede llegar a la fusión, inevitable, de las naciones a través del período transitorio de la liberación completa, es decir, de la libertad de separación de todas las naciones oprimidas.

ABERTZALETASUNA EZ DA BURGES

Nazionalismoa burgesa dela, esaldiak, egunotan Euskadin erabiltzen den bezala, nazionalismo oro burges dela, esan nahi du eta, urrun-urrundik batik-bat, Marxen nazio teorian oin hartzen dizu. Alabaina, batekoz, Marxen interpretazio literalista, ahistoriko batetatik partitzen du, eta, bestekoz, egiazko datu eta obserbazio historiko askotan oinarritzen da, baina partzialetan.

Nazionalismo guzientzat eskema berbat erabiltzen duenez, nazionalismoa eta abertzaletasuna ez ditu berezten, hasteko. Handik hara, mogimendu nazional guzientzat beti esplikazio bera du. Esplikazio hauxe, funtsean: burgesia bakarrik sentitzen dela abertzale (nazionalista), bere problemen eta interesen soluzioa “askatasun nazionalean” bilatu beharra daukan bakarra ere bera denez gero. Proletalgoak, aldiz, bere problemen soluzioa klaseen deuseztapenean bilatzen du eta klaseen deuseztapena ez da nazionala, nahitaez internazionala baino, klaseak eta klase interesak internazionalak diren moduan. Proletalgoaren interesak ez dira nazionalak, burgesia bera nazional (hots, estatal) den neurrian baino. Nolanahi ere, proletalgoak ez du nazio askatasunean bere problemen soluziorik ikusten.

Nazionalismoa burgesa dela, esaldiak, oinarrian tesi hauxe dizu: nazioak berak ere burgesiaren —kapitalismoaren— produktu direla. Kapitalismoaren produktu badira,

bidezko da burgesiak "bere produktua" maitatzea; areago, bere harma ere ba omen denez gero produktu hori, nazioa alegia.

Nazioa burgesiaren produktu dela, Euskadiko abertzale sozialisten artean ere zabaldu den hitzegiteko moldea da. Berez, zuzena izan liteke mintzamolde hori, konzeptuak ongi berezi eta gero (etnia, herri, sorterri, aberri, nazio, Estatu: literatura marxista espezializatuan ongi berezten diren konzeptuak ditugu). Halare, gure artean behintzat, mintzamolde horrek, ezer argitzeko baino gehiago, dena nahaspilatzeke balio digula, uste dut.

Izan ere, zer omen da nazioa? Ezaugarri multzo batek osatzen duela nazioa, erantzun ohi dugu: hizkuntzak, komunitate etnikoak, tradizio eta ohiturek, lurralde batasunak, komunitate konzientziak... Euskara, batik-bat, burgesiaren produkturik izateko, zahartxo da. Komunitate etnikoak ere zerikusi guti du burgesiaren produktuekin. Tradizio eta ohitura, konzeptuek berek adierazten digute, lehenagotik datozela burgesia baino. Berdin lurralde batasuna: ez digu burgesiak lur hau eman eta ez gure zabalkundea lur inguru honetan mugatu. Komunitate konzientzia, historian gauza oso aldakorra da; baina, esate baterako, grekoen konzientzia helenikoa edo judeguen komunitate konzientzia, aspalditxokoak dira. Auskalo noizkoa dugun euskaldunon komunitate konzientzia, euskaldun/erdaldun bikotea konzientzia horretxan espresio dugu ta... Beraz, nazioaren definizioa bere osagarrietan zatikatzen badugu, ia osagarri bat ere ez dela burgesiaren produkturik, ageri zaigu. Horregatik, nazioa kapitalismoaren produktu dela, esaera, esanahi espezifiko batetan onargarri izan daitekeen arren, gure testuinguruan ez zaigu komenigarri iruditzen, argitu baino gehiago nahastu egiten du ta.

Nazioak halare burgesiaren produktu bezala kalifikatzeko eman ohi diren arrazoi batzuek, ez dute ezer probatzen (Beltza: "En la Edad Media el concepto de nación no

existe” - ezta klase konzeptua ere!) eta mintzamolde horrek zer abantaila lukeen, ez dute erakusten.

Nazionalismoarekin berdintsu gertatzen da: alegia, nazionalismoaren espresio omen diren fenomenuak ere, naziotasunaren osagarriak bezalaxe, burgesia baino askoz lehenagotik datozkigula: beraz; ez direla burgesiaren produktu espezifikorik. Nazionalitateren batek bere burua pribilejiatzea eta beste guzien gainekotzat hartzea antzina-antzinakoa da: horra judeguak, batik-bat, beren buruak Jainkoaren herri hautatua uste zituztenak; grekoek eta erromatarrek barbarotzat jotzen dituzte beste denak; Klodobeoren garaian “frankoak Jainkoaren herria dira”, guzien nagusi eta buru izateko eskubidez hortakoz; Urre Aroko espainolen haundi ustea denok ezagutzen dugu, eguzkiaren azpian espainola bezalako beste gizaseme presturik ez dabilela, uste bait zuten... Aspaldikoa da, herri batekoek bestekoak mespretxatzea: herrien arteko halako burlaz Erdi Aroan bakarrik florilegio ederrak bete litezke. Joera unitarista zanpatzaileak aspaldidanik nabari dira historian: lege bakarra mundu guziarentzat (Alesander Haundia), administrazgo eta hizkuntza ofizial bakarra mundu guziarentzat (Erroma), erlijio bakarra mundu guziarentzat (Konstantin/Justiniano; Mohamed), komunitate etniko bakarra Erresuma guzian (Rekaredok *connubioa* faboratzen zuen Espainia bisigotoan; judeguen persegizioak eta pogromak Espainian VII-gn mendean). Hizkuntza ofizialaren inposapena eta ez ofizialen persegizio zuzen ala zeharkakoak, orobat, aspal-aspaldidanik konstata daitezke eta ez Europan edo Ipar Afrikan bakarrik, baina Inka Inperioan ere... Beraz, nazioa bezala, nazionalismoa ere bere osagarritan banatzen badugu, hauk oso zaharrak direla, ikusten dugu. Eta guzi honetan burgesia tradizio guziz klasiko zaharren segida garbi-garbian ari dela, ezer berririk asmatzen baino. Eguzkiaren azpian deus ez berririk.

Beraz, denok dakigu, oraingo gure zapaltzailea ez dela Alesander Haundia, baina nazio zapalkuntza klase zapal-

kuntzaren eta, zehazkiago, kapitalismoaren ondorio dela, etc., sarri entzuten diren esaerak, txit ekibokoak dira, beren esanahia eta mugak aurretik ondo garbitzen ez badira.

Ez dugu ukatuko, halare, nazionalismo espezifikoko burges bat. Bakarrik, alde guzietatik zentzu nahasketak eta mordoilokeriak aurkitzen ditugula berriz ere.

Historia barnean kontsideratu nahi ditugu eta behar ditugu bai nazioa eta bai nazionalismoa: batez ere historia ekonomikoak determinaturik beren desarroiloan. Hein honetan, ageri-ageriko gauza da, desarroilo ekonomiko kapitalistak ekarri dituela nazioak, beren buruak nazio bezala ulertzera, zentzu modernuan. Alegia, soberano bezala, Aginpidearen iturburu eta sujetu bezala. Nazio batek bere burua zentzu modernuan naziotzat hartzeak sentido hori bait du: bere burua soberanotzat hartzea. Lehenago hori ez zen posible: Aginpidearen iturburua, Aginpidea ematen zuena, Jainkoa bakarrik zela, uste zen eta Jainkoak zuzenezuzenean Erregeri eta Aita Santuari eman ziela bere Autoritate absolutua; gero, Erregek eta Aita Santuak apezpikuari, bikarioari, edo Gobernadoreari, hendoreari, etc., goitik behera, beren Aginpidea partitzen edo delegatzen zutela, beti ere kontzesio moduan ordea. Aginpidea goitik behera legitimatzen zen: Aginpidea Jainkoak du bere; Jainkoak emana du Erregeak; Erregek emana du Gobernadoreak; Gobernadoreak emana du hendoreak; eta hendore edo alkateak emana dizu agoazilak... Iraultza burgesak alderantziz proklamatu du, Aginpidea, goitik ez baino behetik datorrela. Jainkoaren izenean ez, baino herriaren izenean agintzen eta gobernatzen dela. Guziz berjabe eta soberano herria da, Aginpide ororen iturburu eta sujetu. Eta handik hara aterako da, gizadia, Errege eta erreinutan ez, baino naziotan dagoela partitu eta ordenaturik; eta nazio bakoitzak soberano eta bere Aginpide propioa izateko eskudun dela. Hori dena, edo "nazionalitate printzipioa", burgesiak ekarri du, bai. Beraz, nazioa eta nazionalismoa, zentzu modernuan, dretxo politikoaren mailan eta printzipio balioz,

burgesak dira esanahi hortan, nahi baduzu... Baina ez burgesago, beste mila askatasun eta emanzipazio mogimendu eta printzipio baino. Arrazoiez ohartarazi bait dugu azken urteotan, "burgese", gure artean, konzeptutatik insultotara pasa dela zeharo. Zergatik ez da berdin-berdin esaten, "emakumearen emanzipazio mogimendua burgesa da"?

Ekibokoak eta zentzu nahasketak ez dira nazioaren eta nazionalismoaren *konzeptuetan* bakarrik ageri (ikus duzun hortan alegia: nazioa, esan ohi denez, burgesiaren produktu omen dela, baina gero, nazioa zerk egiten duen, osagarri denak burgesia baino lehenagokoak direla). Presupostu oker hortatik ateratzen diren ondorioek, zuzen atereak izan arren, abiagune okerraren gaitz guztiak erakusten dituzte: nazioak, esan ohi denez, burgesiaren produktuak badira, burgesia suntsi dadinean, nazioak ere suntsitu egingo dira... Ondorioa, ondorio gisa, logikoa da. Beraz, iraultza sozialistaren ondoren gizadi guztia-rentzat aberri haundi bakar bat besterik ez dela egongo mundu guztian, pentsatu dutenak, bide utopiko xeble batetatik, baina logikotik, zebiltzan. Arras logiko eta konsekuente da, beraz, MC-EMK, bere konklusioetan. "Las naciones, como todo en este mundo, no son algo estático e inmutable. Nacen y se desarrollan. Y con el tiempo, en una etapa avanzada de la sociedad comunista, se puede prever que llegarán a desaparecer". Horrek ez du balio nazioaz arrunt eta orokarki bakarrik, nazioa zertzen duen ezaugarri bakoitzarentzat konkret ere baizik. Hizkuntzarentzat, adibidez: "... hemos de decir que los comunistas no partimos de una concepción nacionalista del mundo y que entendemos que LA ASIMILACION DE LAS NACIONALIDADES y LA DISOLUCION DE LAS PECULIARIDADES NACIONALES son fenómenos que forman parte de un proceso de unificación económica, política y cultural de la humanidad, DE SIGNO CLARAMENTE PROGRESISTA, en tanto que ha de significar numerosas ventajas para toda la población del

mundo. No dudamos que este proceso culminará en una integración mundial completa (?), que en el plano lingüístico sólo se realizará avanzada ya la fase comunista de la historia humana» (*Komunistak* 2, 1969, 11). PSOE-k, ikusita daukagu, ideia berdinak zerabiltzan. Eta PCE-k ere espero duena, eskema berberarekin, gauza berbera da, hots, “la evolución de las lenguas, que implica la disolución paulatina de unos idiomas en otros más poderosos y, en definitiva, UNA SINTESIS MONOLINGÜÍSTICA UNIVERSAL en un futuro muy lejano (en fases muy avanzadas del comunismo)”... Termiten erreinua. Utopia horien jomuga eta ideala ez da sozialismoa, xinaurri gizartea baino.

Sozialdarwinismo arlote (ezen ez marxismo arloterik ere) horrekin eta eboluzioaren (atzeraka!) konzeptu horiekin, zientzia guztien iraultza galanta bederen laster egingo dugu, beste iraultzarik ez bada ere. Giza arrazak, esan genezake, ez dira ezer estatiko. Historian sortu eta desarroilatzen dira, eta “con el tiempo, en una etapa avanzada de la sociedad comunista, se puede prever que llegarán a desaparecer”. Orduan, duda gabe, zuriak eta beltzak eta oliboak eta horiak, txinoak eta kongolesak, pigmeoak eta euskaldunak, denak sintesi monorrazistiko bakar batetan urtuko dira apika. Baina, seguruenik, orangutanoa, xinpantzea eta gizakia ere azkenerako sintesi batetan elkar batuko dira berriro, diferentzia horiek ere (pre)historian sortuak eta desarroilatuak direnez gero, mundu honetan dena bezala. Eta azken-azkenean, beharbada ez da munduan animalia sintetiko bakar bat baizik geratuko, ur-lurtar-hegazti-arrakastari-ugaztun-arrautzagile-etabar-etabarkaria hura... Pluralismoa, diferentziak, kontrasteak, jasan ezin dituen utopia platoniko-despotikoan gaude. Denak bat izan behar du: Ideia absolutoarekin identiko. Eguzki bat, Logos bat, ordenu bat, hizkuntza bat... Alderdi bat eta *Führer* bat.

Ez da kaskarra, marxistaok “sozialismo zientifikoari”

egin arazten dioten ridikulo zientifikoa. Eta gero marxismoaren krisia nondik datorren esplikatu ezinda ibiliko gara... Zorionez, hizkuntzen ezoluzioaz zerbaiz jakin nahi duenak, ez du marxismora jotzen, linguistikara edo baino. Hobe lukete "marxista" horiek ere.

Adibidez, euskarak eta gaztelaniak beren barneetan eta estrukturetan "sintesi monolinguistiko" batetan urtzeko zein posibilitate daukaten, jakin nahi badugu, ba, Luis Mitxelenari galdetu beharko diogu, esate baterako, eta ez Marxi. Eta harek esplikatuko digu, hizkuntzen estrukturak nolakoak diren, hizkuntzak bata bestean ur ote litezkeen, ala ez, etab. Marxen utopia batzuetatik (h.d., Marxek preokupazio haundirik gabe utopia burgesen eta aspaldidaniko mitoen depositotik hartu dituen ustekizunen batzuetatik) orain lasai-lasai etorkizuneko linguistika bat asmatzea, hizkuntzak nola desarroilatuko diren, edozer gauza izango da, "sozialismo zientifikorik" ez da. Ortodoxia neostalinista txar bat besterik ez, agian. Hura bait zen, hizkuntzen disoluzioaren teorian interesatua zebilena, Sobiet Batasunean errusiara pribilejiatuz eta pribilejioei holakoxe legitimazio sasimarxistak muntatuz.

Egiaz inporta duena, halare, ez da, MC-EMK, PC edo PSOE-k zein teoria linguistiko duten, hizkuntzen eboluzioari buruz, edo ez dakit zer. Alderdi politiko batek ez dauka zergatik linguistikan ere jakintsu izan, filosofian zergatik konfesional izan ez daukan bezalaxe. Linguistikak, zientzia bezala, badu teoria politikoetatik autonomia bat. Horien nazio konzeptua zientifikoki egokiena ala zientifikoki desegoki samarra ote den ere, azkenean ez da preokupatzen gaituena: ez gabilta hemen, elukubrazio ikaragarri zientifikoak egin nahita. Badakigu, militante hoberena ez dela derrigor, gehien estudiatu duena; langile borrokari argiena eta lehialena ez, Marx irakurri duenena. Hutsune teorikoek ez gaituzte gehiegi larritzen, hutsune teoriko orokar ikaragarri baten gainean hasi bait

gara denok, eta denok bait gara, argia daukagunak baino, bila gabiltzanago.

Orientazioa da, kontua.

Guzti horrek inportantzia badauka, arrazoa politikoa da: *espilatzen duten praktsiagatik*, dira inportanteak, teoria horiek; eta, bigarren, *eragin dezaketen praktsiagatik*.

Teoria horiek, praktsi batek eraginak bait dira, bai, aspaldidaniko praktsi batek, baina baita praktsi baten eragileak ere, ikusten ari garenez. Praktsi bakoitzak bere moduko teoria sortzen dizu; teoria bakoitzak bere praktsi modua: elkar egiten dute biok, mendez-mende. Teoria eta konzeptu horietan espresatzen ari zaigun praktsia, aldiz, hemengo sozialismo klasikoaren eta jarraikile berriagoen praktsi antieuskalduna da. Eta teoria eta konzeptu horiek, ez dira akademizismo zuzenago ala okerrako hutsak, “zientifikoak” eta berez neutralak, praktsi luze batek sortu duen bere espresio teoriko justua baino. Teoria horietan, azpian dagoen eta eragin dituen praktsia eta dinamika da, guretzat inportantzia duena. Eta praktsi horrentzat naziorik ez dago: h.d., euskal nazioa da, ez dagoena.

Berdin da, noski, gure nazio konzeptu eta teoriekin: praktsi bat da, adierazi nahi duguna, ez gabiltza zientzietako Nobel Sari bila.

Nazioak beti egon dira, esango genuke guk, burgesia-
ren produktu direla, diotenen kontrastean. Antigoaleko Inperioetan nazioak berezten ziren: nazio ezberdinetako esklaboak, nazio ezberdinetako gudariak Harmada inperialean, etab., ordurako karakteristika tipiko batzuekin ezagutzen bait zen zenbait nazio —feniziarrak holako, judeguak halako— nazioen karakterizapenak betidanik egin bait dira nonbait topiko sinpleen bidez. Grekoek eta erromatarrek, nazioak aski ongi berezi dituzte jeneralean, ez naziotasunaren kriterioak eta ez nazionalitateen ezaguera oso seguruak bazeuzkaten ere, konpreni daitekeenez. Erdi Haroko Unibertsitateetan, ikasleria nazioka banatzen zen: Parisen nafar nazioak bere kolejioa zuen (beraz, Erdi Ha-

roan nazio konzepturik ez zegoela, ez da ondoegi esana, orduko nazio konzeptua oraingoaren bestelakoa bazen ere). Halare, nazioek, errepresentazio edo sujetu politikoaren balio egiazkoa, lehenengo aldiz Konstanzako Kontzilioan (1414-1418) lortu zuten, lehenago Pisakoan entseia egin eta gero: mendebaleko zisma bukatu behar zuen eta Huss kondenatu zuen kontzilio honetan, nazioka osatu ziren delegazioak eta nazioka egin ziren bozketak (nazio inglesa, alemana, frantsesa, italianoa; geroago espainola). Beraz, nazioak sujetu —juridiko, politiko— bilakatu dira: zuzenago, sujetu bezala ezagutuak eta aitortuak bilakatu dira. Sujetu izan, lehen ere bai bait ziren nolabait. Ezagutuak eta aitortuak, ordea, astiro-astiro helduko dira izatera, ez bat-batean eta garbi-garbi.

Jakina, egia da, nazioak ez zirela orain egiten dugun bezala berezten eta banatzen. Problema dinastiko, Nazioarteko Dretxoko, etab. gehiegi nahasten zen, nazioak behar bezala banatzen asmatzeko (nazio alemanaren barruan sartzen ziren, esaterako, poloniar eta bohemiar nazioak). Eta horrek bide ematen digu ohar inportante batetarako: Dretxoaren sujetua zein den, horra problema.

Lehenago nazioak jatorri berdineko jendeak edo ziren: herri diferentek. Nazio konzeptua batez ere ohitura, usadio, erlijio kontuetarako erabiltzen zen, hots, kulturaren mailan. Apenas zen, ordea, aplikazio politikorik zuen konzeptua. Konzeptu politikoak —alegia, Botere eta Aginpide medio, mekanismo eta makinariak adieraztekoak— beste linea batetan zeuden, Aginpidearen iturburua ulertzeko orduko moduaren arabera: Errege, Erresuma, etab. Konstanzako Kontzilioan, boza —beraz, erabakia, autoritatea— nazioak zeukan: naziook erabakitzen zizuten, zein zen Aita Santu on bat eta zein zen heretiko kiskalgarri bat. Beraz, nazioak Autoritatea zuen, Autoritatearen sujetu ziren. Baina zer zen “nazio” hori? Zein zen de fakto Autoritatearen sujetua? “Nazioa”, esaten denean, de fakto printzeak, eliz hierarkia, noblezia, Unibertsita-

teak, esan nahi da. “Nazio frantzesak” erabakitzen du, “nazio inglesak” esijitzen du, esaten da eta aristokrazia ulertzen da, bistan da, nazio bezala. Luterok, oraindik, printzeak dauzka nazio alemantzat. Eta gauzek hola jarraitu dute iraultza burgesera arte. Nazioa, erabakimena zeukana, aristokrazia zen, h.d., nazioak ezer erabakitzea, legeak ematea, etab., hori dena Erregeak aristokraziarekin egitea da. Nazio batek holako fedea edukitzea, edo halako Aita Santuren obedientzia praktikitzea, etab., Erregeak, Unibertsitateak, eliz hierarkiak, nobleziak, bide horiek egitea besterik ez zuen adierazten. Herriak ez zuen ezer kontatzen.

Baina, egun batez, Frantzian, bildu zen Asanblea Nazionala, Estatu Orokarrak, Erregeak bilduta bildu ere, eta, zirimola askoren ondoren, Erregeari beti amen esan ordez, Asanbleak, Nazioak erabakitako bezala erabaki ohi zuena, hirugarren estatuak erabakitzen zuela, gertatu zen. Eta Erregearen borondatearen kontra. Egun hartan, nazioa, hirugarren estatua bilakatu zen. Geroxeago, beste egun batez, Asanblea Nazionalak, hots, nazioak, Erregea eta nobleak eta eliz hierarkia eta ordura arteko nazioa osatzen zuten denak, likidatzea erabaki zuen. Ez zen nazioan beste naziorik geratu, hirugarren estatua baino... Eta ordura artean Erregearen Harmada zegoen tokian, Harmada nazionala egongo da orain. Eta tribunale nazionalak, etab., instituzio publiko denak nazionalak bilakatuko dira, erregetiar ordez. Y. Personek idatzi duen moduan —in *Les Temps Modernes* 324-326, 1973, 124— “dans son nouvel Etat, la bourgeoisie va simplement substituer la Nation au roi”. Edo E. Terrayek ere idatzi duena: “Dès 1792, le roi et les nobles ne font plus partie de la nation, ou, plus précisément, la Nation naît de leur exclusion”. “Nazional” hitzak, hortakoz, antimonarkiko, anti-feudal, antiabsolutista, adierazi nahiko du. H.d., demokratiko eta iraultzaile. Nazioa, klase batzuk (noblezia, eliz hierarkia) ez, baino herria bilakatu da. Alegia, burgesiak herria deritzan hori: burgesia bera gehienbat.

Nazioak, ba, sentido jakin bat hartzen du, demokrati-koa, iraultza burgesaren ondoren. Urteetan, nazional eta demokratiko-iraultzaile, sinonimoak izango dira Frantzian. Iraultza nazionala izango da iraultza burgesa. Sentido honetan esaten zion Marxek proletalgoari, burgesia “klase nazional” bihurtu zen bezala, harek ere klase nazional bihurtu behar zuela.

Eta sentido honekin desarroilatu dira, gero, baita ere, “nazionalitate printzipioa”, “autodeterminazio dretxoa”, etc. deitu direnak.

Dependentzia/independentzia arazoak, bistan da, lehenago ez zeukan sentido nazionalik izaterik eta egon ere ez zegoen problema horiek dretxo propioki nazionalen arazo bezala planteatzerik. Eskubidedunak, nazio baten gainean nagusi izateko, dinastia bat ala beste ziren beti: nazioei, baten hala besteren menpeko izatea, zegokien. Dependentzia batetatik beste dependentzia batetara pasatzea zeukaten gehienez ere (horrela pasa ziren euskal probintzia batzuk Nafarroako Erregearen dependentziazik Gaztelakoarenera). Independentzia nazionalaren konzeptuak, argi dago, herri soberania demokratikoaren konzeptio burgesa suposatzen du bere aurretik. Alde hortatik eta zentzu hortan bakarrik kontsidera daitezke nazioak burgesiaren produktu.

Nazio konzeptuaren eboluzio bat dago, beraz. Baina, konzeptuaren azpian, errealitatea bera da, eboluzioan ari dena. Nazioak betidanik daudela? Baieztape ekibokoa da hori, noski, eta nondinahi, probokatuko du kontraesana. Esplika dezagun, ba, piska bat.

Nazioa, historian zehar sentido diferentetan erabili den konzeptua da. Horrek ez dio asko inporta. Nazio errealitatea ere historikoa da, ez metafisikoa. Baina gizona gizon denez gero —eta izaki historikoa da gizona—, situatu egiten da, muga batzuen artean bere identitatea ere mugatzen du: kalendario bat asmatzen du, denboran situatzeko; leku izenak eta asmatzen ditu, espazioan si-

tuatzeko; eta gizadian ere situatzen da, mugatzen da, identifikatzen da, beste gizonetik erreferentziaz. Hala sortutako espazio sozialak, norbera situatzeko eta identifikatzeko, desberdinak dira: familia, hauzoa, tribua, herria... Baina ez da dudarik, identifikazio erreferentzia inportante batzuk, betidanik, nazioaren osagarri horiek direla, hizkuntza esate baterako: kanpo aldera hesi bat eta barne aldera koherentzia faktore bat (Hala erdibitu dizute euskaldunak mundu guztia bi partetan, alde batetik berak —euskaldunak— eta euskaldunak ez diren denak bestetik, erdaldunak). Faktoreon efikazia ez da beste gabekoa. Baina norbaitek kanpotik erasotzen badu, adibidez, faktoreok berehalaxe aktibatzen dira. Euskal komunitatea ibili zitekeen bere barruan etengabeko gerratan, batasunaren eta koherentziaren konzientziarik batere gabe: baina frankoek eta bisigotoek eraso ziotenean goitik eta behetik, laster iritxi zen euskalduna bere identifikazioa egitera, eta faktore haien gainean hain zuzen. Hiri grekoak ibil zitezkeen etengabeko norgehiagoka harmatuetan beren artean: persiarren mehatxuak helenismoaren batasuna ezagutzera ekarri zituen.

Nazioa, organizazio modu bat da: organizazio soziala eta politikoa; baina, barrenago, intelektuala, sentimentala, kulturala. Mundua eta gizadia diren kaos honetan organizazioa, identifikazioa, ordenua, bilatzen duen izaki arrazional eta sozialaren oinarritzko kategoria kultural eta sozial bat da (gizaditik gizartera ailegatzeko) eta ekintza etengabe bat, azken finean nazioa egiten duena: beti konstante, antzinako tribuetatik Estatu-nazio modernoraino. Nazioa kategoria politiko bat da; baina gizakiaren kategoria epistemologiko bat dela, esan genezake. Identifikazio eremu bat. Hein honetan, agian nazioak berak ez, baina nazioa zerk egiten duen hura, betikoa dela, ikusten da. Gizartearekin batera hasten da. Gizarte zibilaren hasiera da.

Ezaguna da Rousseauk nola esplikatzen zuen gizarte zi-

bilaren sorrera: «Lur pusketa bat hesiz inguratu, eta “hau nirea da” lotsagabeki esan, eta sinestu egiten zioten zozo batzuk aurkitu zituen lehenengoa, huraxe da gizarte zibilaren egiazko sortzailea”, in *Discours sur l'inégalité*. Simple samarra da. “Hau nirea da” esale horrek mugaketa juridiko bat markatu du lurraren gainean, eta gizarte zibila egiten duena, jabetgo mugaketa juridikoa baino gehiago da eta sakonagoa giza izpirituan ezpairik gabe. Gizona abere soziala dela, esaerak, jabetzaduna dela baino besterik esan nahi du. Egia da, ordea, gizarte zibila—hots, zibilizazioa, sozietate bizitza, ordenu soziala—mugaketaz hasten dela. Mugaketa epistemologikoz, kulturalaz, sozialez, juridikoz..., eta identifikazioz. Nazioa ez bait da horrelaxe baino sortu (alegia, guk nazio deritzaguna; ez “nazio burges” deritzana). Horregatik esaten dugu, nazioaren sorrera, gizarte zibilaren sorreran da goela.

Gero, holako nazio edo prenazio antzinateko bat eta nazio moderno bat ez direla situazio berdinean aurkitzen, ageri dago. Orain mila urte Zegamako mendietan bizi zen euskaldun multzoa, bere mendi artean bizi zen eta ez zekien Hazparne edo Elantxobe bazirenik ere munduan: ezin senti zitekeen haiekin komunitate bat. Hortarako, bideak, joan-etorriak, harremanak, behar dira. Hori dena piskana-piskana egiten bait da historian. Komunitatea astiro-astiro zabaltzen da, hots, ailegatzen da bere burua zabalero guztian ezagutzera eta koherentzia lortzera, etxe ingurua baino haruntzago, salerosgoarekin, komunikabideekin, etab. Desarroilatu egiten da historian. Eta burgesia izan da, munduko zoko guztiak elkarri urbildu eta harremanetan jarri dituen. Beraz, “kontzientzia nazionala» eta «mogimendu nazionalak», ulertu ohi ditugun eran, posibilitatu dituen ere.

E. Terrayek “la nation comme ensemble objectif”, betidaniko hori litzatekeena, eta “la nation comme force historique”, berezi ditu: azkeneko hau litzateke, konzien-

tzia eta organizazio maila historiko jakin batzuetara heldurik, errebindikazio nazionalak altxatzen hasten dena. Historikoki burgesiaren haroan hasi bait da hori, baldinkizun historikoak orduan bete direnez gero errebindikapen horiek egin ahal izateko, errebindikazio demokratiko gehien-gehienak egin ahal izateko bezalaxe.

Esaten ari naizenak proboka ditzakeen ekibokoak, barkagarriago dira, seguru asko, "nazioak burgesiaren produktu dira" esaldiak sortzen dituenak baino gure artean. Eta azkeneko esaldi hau kasi dogma baten indarrez nagusitu zaigunez gero, seinalatu beharrezkoa iruditzen zait, eboluzioa eta desarroiloa badagoela, bai, nazioaren gorabeheran, baina ez kreaizorik *ex nihilo*, burgesiaren kreaizioa, baizik eta desarroilo jarraitua, materia konstante baten gainean eta luzapen gisa ematen den desarroiloa. Nazioa ez da burgesiaren ekonomiatik edo sortu; ezta demokrazia bezala ere, antolaera sozial baten "iraultzaz", ordenu baten desegintzaz eta gainazpiraketaz (antolaera monarkiko-feudala hankaz gora bota eta demokratiko burgesa eraiki: aurrekoaren ukazioz eta kontraesanez), baina baitespenez eta desarroiloaz, egon bazegoena sakonduz eta indartuz eta aberastuz, tribu primitiboetatik nazio modernoetaraino.

Nazioa, beraz, ez legoke produkzio prozesorekin "gainegitura" artean kontatzerik; gizartearen oinarri-oinarrizko fenomeno bezala aitortu beharko genuke, nahiz eta, bere desarroiloan, produkzio prozesorekin zerikusirik beti izan, gizonaren esistentzia orok bezalaxe. Nazioa ez da gainegiturarik. Estatu eta Estatu-nazioa dira gainegiturak. Eta burgesak.

Besterik da nazioaren metafisikan erortzea eta nazioa funtsean, betidaniko ezezik, beti berdín dagoen esentziaren bat dela, uste izatea. Horrelako zerbaitetan erori bait zen erromantizismo alemana. Horrela, nazioak "izpiritu nazional" baten inkarnazioak lirateke. Historian zehar, nazioak —axalean— mila gorabehera ibiliko lirateke; bai-

na, barren-barrean, “izpiritu nazionalak” beti konstante eta berdin dirauela. Eta historiako obra haundiak ere, “izpiritu nazional” horrek sortuak lirateke: musika alemana —Mozart nahiz Bach, beraz—, dretxo germanikoa, Goethe, etab., etab., dena “izpiritu nazionalaren” produktu, beraz. Historia “izpiritu nazionalaren” *agerpenen* historia litzateke; “izpiritu nazionala” bera historiarik gabe legoke, bere aldakuntzarik gabe, beti berdin, Jaungoikoa bezala, agerkizun aldakorren barnean.

Euskal Herrian egon da holako zerbait, euskal jeinuan edo euskal senean iturburu sekreto metafisiko batzuk aurkitu nahi zituena, bai euskal demokrazia berezia esplikatzeko, eta bai jabegoaren euskal konzepzio berezia, eta bai ez dakit zer, hori dena historikoki esplikatzeko saiatu ordez. Baina «esentzialismo» nazionalaren kritika aspalditxo egin genuen, berriro hortara itzultzeko.

Nazionalismo konzeptuarekin ekiboko berdintsuak dauzkagu. Eta, esan daiteke, “nazioa burgesiaren produktu da” edo “nazionalismoa burgesa da” bezalako esaldiak, borroka politikoa hain efikazak badira, ekibokoz josita daudelakoxe, dela, eta esaldi horien sentidoa sekula garbi azaltzen ez delako, horrela beren balio absolutoa galduko bait lukete. Beren beldurgarritasunean bait datza beren balio guztia. Orduan ez da komeni, egia oso erlatibotan utziko lituzketen esplikazioetan sartzea.

Agian ez dute negozio politiko txarra egiten, ekibokoen anparoan, distingoak berek egitea baztertu ezezen, inork berezkuntzarik egitearen kontrario gogorrek agertzen zaizkigun horiek, nazionalismoa beti eta nonahi kondentatu beharra dagoela, predikatuz. Ikusita daukagu, PSOE-k, nazionalismo oro ezezik, regionalismoak ere arras kondentatzen zituela. Eta MC-EMK-ko mutilarena ere ikusi dugu: “El nacionalismo, como tal, cualquier nacionalismo, incluido el más avanzado, ha de ser combatido indefectiblemente”. Eta hori ez da Sobiet Batasunean edo idatzi: euskarazko “abertzaletasunari” erdaraz “naciona-

lismo” esan ohi dion Euskal Herri honetan sententzia-tu da.

Logiko da, hasieran eskomunio global bat dagoenean, azterketa baten orde. Aztertu, nazionalismoa zer den edo zeri esaten zaion, aztertuz gero, oso zaila gertatzen bait da kondena hain absolutorik... “Mais le mot nationalisme est utilisé pour désigner des concepts bien différents, tantôt le simple sentiment d'appartenance à une nationalité, tantôt la revendication libératrice d'une nationalité assujettie, tantôt une doctrine [eta holakoak ere oso diferenteak daude!] donnant la primauté aux valeurs nationales dans la vie sociale et politique” (Y. Person).

Ezker kontserbadore bati gertatzen zaiona, da, nazio arazoa tabu bezala duela. Trapu gorriarekin zezenak bezala erreazionatzen duela nazio arazoaren aurrean, segituan itsu-itsu atakatuaz. Aldez aurretik postura arras negatiboa dauka gai horri buruz, beldur dio, despreziatu egiten du (jeneralean, Europako ezkertiar eta progresista guztiak a priori nazio arazoari buruz postura negatibo batetan dauke, zer eta nolako nazio arazorik den pentsatu beharrik ere gabe) eta ez dakiela betiko leloak errepikatzen besterik, ez delako molestatzen arazoa gertuagotik piska bat aztertzen eta ez bere segurantzia hauzitan jartzen ere. Tradizio baten eta ezkertiarren “irudi” obligatu baten segurantzia kolektiboetatik bizi da. Ez du egiten XIXgn mendeko sententzia topikoak kontserbatu eta seinorialki defendatu besterik. Ez du onartzen distingorik eta ez berezkuntzarik... Eta ez dago, intelektualki jokatu nahi bada, borroka zailagorik, higuinez eta sentimentuz kargaturiko topikoen kontrakoa baino, higuinok eta sentimentuok intelektualitate itxuraz disimulatzea konsegitu denean batez ere. Praksian, *Fuerza Nueva*-koen nazionalismoak, edo “ezkertiar” askoren antinazionalismoak, XIXgn mendeko dogma batzuen irrazionalismo berbera dauka oinarrian. Txanponaren bi aldeak dira: dogma kontrarioak bait dira, bai, baina biak dogmak, dogma gisa bakarrik

balio dutenak, ez kontenidoagatik. Biak dira, beharrik, distingo eta berezkuntzen gorrotatzaile. Bakarrik, nazionalismo itsu haren irrazionalkeria edozeinek dakiela, eta antinazionalismo hau arrazional eta zientifiko itxurak eginez presentatu ohi dela, harro-harro eta dotore (1).

Abertzale bai, baina ez nazionalismo XIXgn mende-tiarraren modura, izan nahi dugunok, bi frontetan borroka egin beharra daukagu. Topikoen kontra, eta ekiboko-koen kontra baita ere.

Ez dakit oharrok ezer argituko ote duten. Euskal Herrian, izan ere, terminologia guztia, apropos nahastu nahi bagenu baino nahastuago daukagu, eta ez hitzak (nazio, nazionalismo, etab.) batzuetan gure sentido tradizionalan, besteetan adiera marxista partikularrean, etab., nahaski darabiltzagulako. Eskolarik eskola hitzek sentidoa aldatzen badute, esan daiteke, hizkuntzatik hizkuntzara ere diskurso guztiak sentidoa aldatzen duela: askotan, behintzat, euskaraz esaten direnak eta gaztelaniaz entzuten direnak (nazionalismo/abertzaletasun, etab.) sentido maila diferentetan dabiltzala, egiten du inpresioa.

Euskadin, zorionez ala txarrez, euskaraz eta gaztelaniaz batera eramaten dira eztabaidak, propaganda, kanpainak, informazioa eta dena. Euskadin, aberri esan ala *nación* esan, bertsu nahi izaten da adierazi. Beraz, "nazionalismoaren" kritikak, abertzaletasunaren kritikak izaten dira; "la cuestión nacional" burgesa dela, esaten denean, aberri arazo burgesa dela, adierazten da; eta, deskuidatzen bazara,

(1) Nazionalismo oro kondenatzen duelako, abertzaletasun bretoin oro ere kondenatzen duen bati buruz, Yves Personek honela idatzi du: «Ce dogmatisme est triste et borné. Il se situe au niveau du réductionnisme dénoncé par Rodinson, qui veut ramener des phénomènes sociaux essentiels à des idéologies de classe. Il maintient sottement que la nationalité n'est qu'un épiphénomène structurel à éliminer, ce qui est peut-être le cas de l'Etat national, mais non de la division en nationalités qui est vieille comme l'humanité. Quelle que soit la bonne foi de son auteur, cette position aboutit, objectivement, à consolider le nationalisme étatique établi, en rejetant comme nationalistes, donc impures, les forces qui le contestent. C'est l'expression de l'aliénation profonde que l'idéologie de la classe dominante a infligée à un militant d'ailleurs honnête et sincère», ik. *Les Temps Modernes* 324-326, 1973, 13.

euskararen alde ikastoletan sakrifikatzen ari direnak berak, burges hutsak dituzu...

Zentzu nahaspila hori banatzeak eta zehazteak lan gehiegi emango liguke. Labur-labur bederen saiatu behar, ordea. Argitasunotarako abiagune eta erdigune bezala *abertzaletasun* konzeptua hartuko dugu, nazio eta nazionalismo konzeptuen inguruan sortzen den beste zenbait problema errazago baztertzeko, argitasunaren amorez.

Abertzaletasuna, behintzat, ez da burgesiaren produkturik. Agian proletalgoari ez zaio axolako “nazioa”; baina bai aberria. Proletalgoak beharbada ez dauka “nazionalista” izaterik; baina abertzale izan beharra daukala, marxista guziek esango dizute. Izan beharra daukanik baino gehiago, dela, abertzale dela, eta kito.

Abertzaletasuna, nolabait esateko, “naturala” da; eta, mintzamolde marxista klasikoz esateko, nazioa eta nazionalismoa baino askoz lehenagokoa. Abertzaletasuna gizonaren sentimentu sakonenetakoa eta bizienetakoa dela, esaten zuen Leninek, eta “aberrien” ehundaka eta milaka urtetako bakoitz-bizitzak oinarritu dizula. Beraz, nazioak (sentido marxistan) ez bezala, aberriak ehundaka eta milaka urteotan hor ahor dira; sozialismoa nagusitu eta gero ere noiz-paiteko utopiaren batzuk gorabehera, ez dira xahutuko; “aberri sozialistek” segituko dute.

Terminologia marxistan *aberri* esaten dena —*nazio*-atik bereziaz, hari kontrastatuaz ere— guk “nazio” esan ohi duguna da guti-gorabehera. (Marxistaontzat aberri konzeptuak zentzu guziz positiboa ditu; nazio konzeptuak, aldiz, konotazio negatibo asko du marxistaontzat). Leninek “ingurune edo milieu kultural eta politiko” bezala definitu zuen.

Leninek, *aberriaren* osagarri batzuei, “osagarri eternal” deritzaie: komunitateak okupatzen duen lurraldea eta hizkuntza genituzke horik. Beste osagarri batzuk aldakorrak dira: tradizioak, etab.

Leninen ikuspideetan oin hartuaz eta haik desarroilatuaz beti ere, azken urteotan (“aberri sozialisten” teoria positibo bat egin beharra sortu denean) Autore marxistak biziki enplegatu dira, aberri konzeptua berbaliatzen eta teoria marxistaren baitan indartzen. Aberria zer den, nazioa zer den erabakitzea bezain zaila da, definizio batetan erabaki nahi bada behintzat. Hona hemen, halare, konzeptualizazio bat, Autore sobietarrek egin ohi dutenaren arabera:

Aberria gizarte bizitzako harreman osotasun konpleso bat da, egitامuan oinarrizko hiru osagarriekin:

1. Herriaren lurraldea, herriaren historiaz loturik “uler-tzen” dena; hots, “arbasoen lurra”, hain zuzen *ab-herria* edo *patr-ia* (*father-land*).
Aintzat hartu behar, herri batek nola desarroilatu dituen bere lurraldearekiko ikuskizunak eta sentierak: nola ikusten dituen mendiak, hibaiak, basoak, itsasoa, giroa, ilargia eta eguzkia, etab., mitoetan, ipuinetan nahiz egunoroko bizitzan, bere kulturaren eta psikologia berezian.
2. Aberria, herri batek sortutako lan eta elkartasun ordenamendu jakina ere bada. Hau da, antolaera sozio-ekonomiko eta politikoak. Izan ere, herri bat itsastiarra da, bestea basamortuan dabilenago, artzainago edo laborariago, etc.; eta, gainera, herri bakoitzak bere bakoiztasuna dizu bai lanaren eta bai gizarte harremanen antolaeran. Bere usadioak eta tradizioak sortzen dizkizu.
3. Aberria, batik-bat, herria bera dugu, herritasunaren ezaugarriekin: bere-bere hizkuntza, kultura, tradizioekin.

Irakurleak ikus dezakeenez, *aberri* eta *nazio* konzeptuak ongi bereztea, paperean bertan ere ez da guziz erraza, eta ez Euskadin bakarrik, teoriko marxistentzat ere baina. Autore haik batez ere Sobiet Batasuneko fenomenuei begira eta hango premiei erantzun beharrez banatu eta mugatu

dituzte konzeptuak; nazio eta aberri ere banatuaz, esate baterako abertzale bai, baina nazionale (nazionalista) ez, agertzeko moduan. Euskadin ez da holako berezkuntzarik egin izan eta, hemen, “Euskadi es la *patria* de los vascos” esan, ala “*exigimos el reconocimiento de los derechos de la nación vasca*” esan, beti hari beretik tiratzen dugu, haria eten gabe (1).

Aberria, beraz, gizarte multzo unitario batek —herriak— bere buruarekiko erlazioetan aurkitzen duen errealtate maila bat dugu. Goragoko maila batetan *nazioa* aurkitzen dugu: botere demarkazioak eginak diren heinean. Baina, “nazioa” baino beherago, nazio deritzaiogun konplexo estrukturalaren barruan, aberri mailan, gizarteak zatiaturik aurkitzen dizu iadanik bere burua: klasetan. Aberri konzeptuan antolamendu sozio-ekonomiko eta politikoak aipatu bait dira. Bistan dago, proletalgoak eta burgesiak jarrera diferenteak izango dituztela aberriarekikoan. Horregatik, burgesia beti *nazionalista* da, proletalgoa sekula ez da nazionalista: marxista klasikoek terminologian nazio-

(1) Marxista klasikoentzat —beste askorentzat ere berdin da, baina hemen horrek ez digu axola— *nazioa* mugaz eta errenteriaz inguraturik azaltzen da alboetan (aberria, aldiz, irekia litzateke) eta gizarte multzo nazionalaren gainetik Aginpide orokar propio batez horniturik (aberri, aldiz, konzeptu horizontal hutsa genuke): hots, nazio konzeptuak desarroilo ekonomikoan maila jakin bat eta, zehazkiago, Estatu jakin bat, inplikatzan du terminologia marxistan. Euskadin zenbait eztabaida sortu izan da, Euskadi *nazio* ala soil *nazionalitate* ote den. (Stalinek bere zerehendako ezaugarriren bat falta zitzaionari nazionalitate esaten zion; ezaugarriren zerrenda osoa betetzen zuenari nazio. Soziologo anglo-saksonek Estatu gabekoari esan ohi diote nazionalitate). Konzeptu kontua, ondorioetarako ezer inporta ez dioena. *Nazionalitate* soil dela, defendatzen zutenek, Euskadik inoiz ez duela Estatu bat osatu, azpimarkatzen zuten. (Eta haien kontra irten zutenen batzuek, Erdi Aro iluneko gertakaria dudagarriren batzuetaraino jo ziguten, Euskadi nazio izan dadin, Estaturik ere izan duela, demostratu nahita!). Euskadik ez bezala, Poloniak, Ungariak, etab., izan omen dituzte beren Estatuak. Baina, marxisten mintzamoldean behintzat, naziotarako behar den Estatuak ez da edozein Estatu molde, kapitalismo mailako Estatuak baino. Poloniak etab. noizpait izan zituztenak, ordea, «Estatu» feudalak ziren eta ezin konstitui zitzaizketen herriok naziotan. Era horretan ez dago nazio eskubideak lituzketen *nazioak* (historikoak, Estaturik izan dutenak) eta berauen barruan edo azpian (Estatu plurinazionalan) «minoría» gisa, bizi beharko luketen *nazionalitateak* berezterik. Horretara, «historia bazterreko herri gauza-ezen» teoria baztertura itzuliko ginategi berrira.

nalismo eta xobinismo funtsean berdin bait da; *abertzale*, aldiz, hein batetan, bai proletalgoa eta bai burgesia kome- ni zaienean bakarrik dira abertzale (patriotismo burges / patriotismo proletario); beste hein batetan, proletalgoa bakarrik da zinez abertzale eta beti da abertzale: herri maitale.

Hau konprenitzeko, beste konzeptu baten premian gaude: *sorterria*. “Sorterria”, edo *sorterri-zaletasuna*, poli- tikan guk erabili ohi ez dugun konzeptua da. Baina behar- beharrezkoa egungo nazioaren teoriko marxistak ulertze- kotan.

Ikusi dugu aberria gizartearen harreman antolaerako estruktura bat dela. Eta osagarri batzuk “eternalak” dira, etnikoak edo naturalak; besteak historiko-sozialak.

Aberriaren muina edo egiten dutena, osagarri “eter- nal” haik dira: herria (bere determinazio etnikoez), hiz- kuntza, lurraldea. Hots, *sorterria*. Sorterri konzeptua berez ez da konzeptu politikoa. Prepolitikoa genuke. Baina abe- rriaren alderdi “naturala” berak adierazten du, aberri kon- zeptua politikoa bait da. Eta —esan ohi digute nazioaren teoriko marxistek— *sorterriaren maitasuna* ere naturala da gizon guziongari: norik bere herriaren, hizkuntzaren, herri kulturaren, lurraldearen, maitasuna. Hau dena orokarra eta arrunta da gizon guziongari, edozein klasetako izan. Berez naturala eta preideologikoa da *sorterri-zaletasuna*, gizonak bere sozialtasuna ezagutzea baino ez da ta. Ideologietatik ia guziz aparte dago, klase konzientziak ere ozta-ozta mo- difikatzen du berez. Modifika lezake abertzaletasunean: hots, beste maila batetan inplikaturik dagoenean, alegia, kontsiderazio sozio-ekonomiko eta politikoak tartean sar- tzen direnean. Baina, berez, *sorterri* konzeptuak ez du inplikatzeko halakorik.

Orain, abertzaletasunaren ardatza *sorterri-zaletasuna* da, *sorterriari* zaion maitasun arrunt naturala. *Sorterri-za- letasunak* eragiten dio gizarte multzo bati, bigarren maila batetan, *sorterria* politikoki ulertzeri, hots, aberri gisa. Hau

da, sorterrria bere bizitza ekonomiko, sozial eta politiko guziaren eremu egoki bezala antolatzena; alegia, sorterrria ingurumari naturala, Leninek esaten zuen “milieu kultural eta politiko” bihurtzena eta moldatzena.

Sorterrria oharkabea eta naturalki maite duzu, gehi-ago pentsatu gabe, espontanki, ideologiaren zerikusirik gabe. XVIII-gn mendeko *mujik* errusiar batek eta egungo koljos-laborari batek espontanki berdin maite dizute sorterrria. Eta burges batek eta proletario edo laborari batek sorterrria berdin-berdin maita dezakete, sorterrriaren maitasun espontana eta natural horrekin.

Baina, gero, sorterrri natural eta berezko hori konzienteki zure milieu kultural eta politiko bihurtu nahi duzu: hots, zure aberri. Nolako aberri? Hori da kontua. Eta aberria horregatixe, “proletalgoaren klase borrokan faktore bortitzena” da, Leninen arabera; klase borroka orok du, eta klase borrokak beti du —indoktrinazio ideologiko sektario eta faltso batek okertzen ez duenean behintzat— bere konponente abertzalea: “proletalgoaren klase borrokan faktore bortitzena”.

Sorterriari, hots, bere inguru eta oinarri “naturalari”, antolaera sozio-ekonomiko eta politiko bat ala beste emateagatik ari da gizartea beti lanean eta borrokan. Horixe besterik ez da abertzaletasuna. Burgesiak bere interesen arabera antolaera eman nahiko dio sorterriari; proletal-
goak bere erakoa. Baina holako edo halako antolaerak sortu, antolaeraok nahitaez sorterriari ezartzen zaizkio: herri bat, hizkuntza bat, etab. dauden tokian sortzen dira beti. Eta herri honen, hizkuntza honen, bizitza, kondizionatuz arituko dira.

Sorterriari burgesiak eman nahiko dizkion antolabideak, haren klase egoera partzialak eta alderdikoak determinaturik daude. Antolaera mugaz hertsitu, herstatu, zapal-korra nahiko du: “nazionalista”, eskusibista. Proletalgoak ez du interes partikularrik eta sorterriarentzat antolaera irekia, zinez demokratikoa, nahiko du. Sorterrri librea, abe-

ratsa: gizaseme guziek eta bakoitzak bere milieu naturala bezalaxe ezagun eta goza dezan moduko aberri, bihurtu nahiko du sorterria. Aberri proletarioa, hortakoz, “aberri naturalaren” (sorterriaren) desarroilo politiko eta sozio-ekonomiko “naturala” genuke; aberri burgesa, ostera, “sorterri naturalaren” desarroilo antinaturala.

Esplikazio guziotan hitzez-hitz Autore sobietarrei jarraitzen diegu. Hauxe da seinagarri: Autoreok bezalaxe, nazioari buruzko euskal literaturak ere azken urteotan asko insistitzen duela nazio arazoaren barne-barneko “oinarri natural” hortan; klase guziei doakien eta, beraz, proletalgoa ere konprometatzen duen alderdi hortan. Bakuninekin —guk hemen Lenini jarraituaz berezkuntza berdina egin dugu— Beltzak nazioa “como un hecho a la vez natural y social, fisiológico e histórico al mismo tiempo” ulertzen du. Alderdi natural horri, hain zuzen —herritasun, etnia, esan izan zaio— inportantzia haundia ematen zaio ezker abertzalean. Izan ere, hemen hauzitan dagoena, ez da antolaera sozio-ekonomikoren bat ala beste bakarrik, oinarri haren —sorterriaren— hondamendia ere baino. Eta honez gero hodamendi hartaz, burgesiak ezezik, proletalgoak ere responsabilizatu beharra dauka, proletalgoak batez ere.

Zernahi egiten dugula ere, aberri bat egiten dugu: aberri burgesa edo aberri proletarioa. Ezin egin genezake aberri proletario bat, aberri libre, natural bat, sorterria hondatuaz. Aberri natural bat, sorterri naturalaren desarroilo bezala bakarrik da posible; ez, sorterri naturala deseginaz.

Abertzaletasuna, ba, ez da burges, burgesen abertzaletasuna denean baino. Proletalgoaren abertzaletasuna proletario da. Hots, sorterri naturalari antolaera sozial, ekonomiko eta politiko proletarioa eman nahia da abertzaletasun proletarioa. Hortarako, ez du sorterri naturala desegino, baina burgesiak desegin duena berregingo. Guk beti hortan insistitzen dugu, euskararen hondamendian; baina ez dago esan beharrik, sorterria ez dela euskara hondatuz bakarrik hondatzen: horra ekozidiodia, etab.

Hori bai, alderantziz, egungo nazioaren edozein teori-ko marxistak esango liguke hori: *abertzaletasun falta da beti burges* edo burgeskeriaren produktu. Abertzaletasun falta. Burgesa bait da, bere klase interes partikularren poderioan, guziekiko ona zabartzen duena: berak zabartzen du sorterriari —hots, guzior milieua naturalari— guziok gogobetetzen eta atseginarazten gaituen desarroiloa ematea, batzuek pribilejiatuaz besteen gaineratik. Sorterri naturala bera desegiten dio menpekoari horrela (“proletalgoak ez du aberrik”, burgesak kendu egiten bait dio).

Orduan, lurra ez da guzior lurra (“cuando un bosque se quema, algo suyo se quema - señor Conde”). Ez da guzior “arbasoen lurrik” ere: aristokrazia megalomaniako bategen historia beretzat akaparatu digu (Baztan, orduan, ez da baztandarren lurra, halako ez dakit zein Markesen “casa solar” lekua baino). Hizkuntza ez da guzior hizkuntza, jauntxoek hortan ere jende ttipiaren aldean berezi beharra daukatelako. Eta komunitate etnikoa bera “arraza” bihurtuko da, norbaitzuek “arraza garbiaren” titulua behar dutelako beren pareko nobletxoen aurrean...

Benetan abertzale —esango digute beti Autore sobietarrek— sorterriaren desarroilo natural bat bilatzen duena, proletalgoa da. Burgesiaren abertzaletasuna une batetan liteke guziekiko onuragarri eta progresista, haren errebindikapenak herri osoaren onerako gerta badaitez. Baina lipar llabur batez bakarrik da hori. Gero bere interes partikularretara biltzen da berehalaxe burgesia. Interes partikularrik gabe, guzien sorterria guzior aberri bihurtu nahi digularik, proletalgoa bakarrik da egiaz abertzale.

Jakina: abertzale denean, eta ekonomizismoak eta ideologia burgesak harrapaturik ez dagoenean.

Bere “klase interes” hutsak eta bakarrak burubidatu nahi dituelako, gizarte osoari aberri bat eraikitzea tokatzen zaiola, ahantz dezan proletalgoa, klase partikularista bat gehiago da, gizadiaren historia partikularista luzean. Ez da

proletalgoak izan behar duen klase unibertsala: gizadiaren interesak inkarnatzen dituena. Gizonari gizartean eta munduan bere leku naturala itzuliko dioena.

NAZIOA ASKATU, ABERRIA EGIN

Nazionalismoa/abertzaletasuna zer den, tipo edo eredu bat aurkitzen oso zaila da, nazio borrokaren mota ezberdinegiak dauzkagulako historian. Mila nazionalismo suerte dago. Azkenean, Shaferek dioena: "El nacionalismo es lo que los nacionalistas han hecho; no es un concepto neto y fijo, sino una combinación variable de creencias y condiciones diversas".

Abertzaletasuna ere ez da estatikoa. Behin betiko bere buruarekin identiko, aldaezin, tinko, gelditu dena, dogma bat bezala. Abertzaletasuna ez da gauza berdina Sobiet Herrian, Hirugarren Munduan, Euskadiko nazio eta sorterri deseginean.

Eta ez dira abertzaletasun berdinak burgesiarena eta proletalgoarena. Gure kritiko askok eskematismo horrekintxe operatzen bait du: nazionalismoa nazionalismo da, kito. Beti gauza bera. Nahi bezain legitimo izan, beti ere nazionalismo.

Euskadin aspaldian esaten ari garenez, klase batena ala besterena izan, diferente da abertzaletasuna. Klase bakoitzak bere lekua dizu produkzio harremanetan, gizarte antolaeran. Bere lekuaren arabera, bere interesak. Bere ideologia. Bere ideologiaren arabera, bakoitzak bere abertzale-
tasuna.

Naziek okupaturiko Frantzian, abertzaletasun bat eta berak elkartzen zituen Resistancean De Gaulle eta partisanso komunistak. Baina ez abertzaletasun berdinak.

Komunista espainolak demokratak direnez, bidezko omen da —esaten digu PCE-ko Santiago Alvarezek— “el que, como ocurre también en el caso de las libertades políticas, COINCIDAMOS en la lucha por las libertades democrático-nacionales CON SECTORES DE LA BURGUESIA vasca, catalana y gallega que, aunque con sus fines propios, están a favor de la democracia a nivel de España y de la autonomía nacional a nivel de nacionalidades”.

Hori, guretzat, gutienez ekibokoa da. Proletalgoak, burgesiarekin, elkar hartzen du, izatekotan, baina ez koinziditu.

Hitz hutsetan ez gelditzeko: proletalgoarentzat borroka abertzalearen azken xedea ez da “askatasun demokratiko-nazionalak” eskuratzea, hots, zapalkuntza bukatzea eta marku demokratiko formal batzuk eraikitzea bizitza nazionalerako. Hori ez da presupostu besterik. Lan egiaz positiboa orduantxe hasten da. Abertzaletasunean, inportante-ena ez da, zerbaiten edo norbaiten *kontra* joatea (hortan, beharbada, burgesiaren parte batekin elkar etorriaz), aberri-gintzarako proiektoa positiboki nola bururatzen den baizik. Abertzaletasun proletarioaren arrazoia ez da demokratismoa. Koinziditezkotan, proletalgoak eta burgesia demokratikoak *kontra* hartan koinzidituko dizute: nazioa zampaketa azpitik askatzean. Ez, zeren *alde* dauden: aberrigintzan.

Nazio borroka sarri presentatu zaigu “borroka demokratikoaren” parte bezala (eta, orduan, ez da harritzekorik, proletarioak laster esaten badizu, aurreragoko zereginik baduela). Proletalgoak eskabide demokratiko guziak bere gain hartzen dituela, esango dizute: nazionalak ere bai.

Baina hori dena gutiegi da. Gutiegi delako, ekiboko. Eta ekiboko delako, arrazoi guzia dute, nazio borroka pro-

letalgoarentzat eginkizun sekundarioa dela, esaten dutenek, nazio borrokaren zentzua horrela ulertzekotan.

Izan ere, zein da, eskema demokratista horretan, proletalgoari dagokion papera? Burgesia demokratikoaren ordezkari, edo lagun, edo morroin batena. Proletalgoa, burgesiari buruz-buru eta aurrez-aurre zeharo kontra ez, baino norgehiagokan eta lehian harekin eskuz-esku ageri zaigu honela, itxuraz behintzat. Zein demokratikoago. Edo eta, burgesiak egin behar *lukeen*, baina egiten ez duen, gauza bat egitea tokatzen zaio. Burgesiaren ordezeko gisa. Tamalez sarri presentatzen da horrelaxe: iraultza demokratiko burgesaren eginkizuna zen nazio arazoak zuzentzea, baina ez du egin eta zuk egin beharko duzu... Beste batzuetan, proletalgoak “burgesia demokratikoaren” laguntzaile bihurtu behar duela, ematen du: burgesia demokratikoak ezin bait du bere iraultza bakarrik egin (nazioak askatzea, esate baterako), proletalgoak lagundu egin beharko dio gaiso horri! Leninen mintzamoldeak berak ere, nazio arazoaren konpontzea iraultza demokratikoaren parte bezala agertaraziaz, maiz irudipen hauxe indartu du eta nazio arazoaren soluzioa proletalgoarentzat sekundario dela pentsaraztera, eraman du.

Bai —eta arrazoi zuen Leninek hortan insistitzean— nazio arazoa burubidatzeak, hein batetan, iraultza demokratikoaren zeregina izan behar zuen: alegia, zapalketak eliminatzea. Nazio bakoitzari bere markuak ematea. Beste hein batetan, ordea, burgesiak inola ezin konponduzko arazoa da. Terminologiak nahasten gaitu berriz ere. Gauza bat bait da “nazio arazoa”, eman ohi zaion goiko zentzu espezifikoko eta mugatu hartan (mugaketena eta Aginpide propio batena), eta beste bat guk eman ohi diogun esanahian, hots, aberri arazoa. Herriari, bere “aberrri naturala”, ezin sekula burgesiak emango dio. Ematekotan, “nazioa” eman liezaioke. Baina, sorterrri eta aberri artean, kontinuitate ordez, goian esandako desnaturalizazio haustura egongo da beti. Eta horixe da, marxismoak, metafora batez, nazio burges

demokratiko batetan *bi nazio* dagoela, esaten zuenean, adierazi nahi izan diguna. Burgesiak aska dezake inoren zangopetik nazioa: baina nazioa askatu, bai, eta, baten ordeztu, esku artean bi nazio puska gelditzen zaio... Ezin du herri-kide guzien aberri bakarra lortu, burgesia izateari utzi gabe.

Marxistarentzat abertzaletasuna ez da noizean behingo eta situazio partikularretako jokabidea: agresioaren bat jasanean edo, balioko lukeena. Egunoroko jokabidea da. Abertzaletasunaren izenean eskatzen zaie Txinako laborariei arrotz gehiago; Sobiet Batasuneko langileei galtzairu edo ikatz gehiago. Lan "patriotikoa" da Kuban azukrearen zafra. Proletalgo espainolak, ez dauka zergatik lan egin nazio askatzen, baina bere erako aberria egiten ari da, egiten duenarekin: iraultza sozialaren bidez lortu nahi duen aberri berria. Proletalgo sobietarrak, txinoak, aske daukate nazioa eta eginik (?) daukate iraultza soziala ere, baina beti lanean aritu beharko dute haiek ere, aberrigintzan.

Gauza bat da nazioa askatu, beste bat aberria egin. Aberria egin, nazioa askatuaz, askatu aurretik nahiz askatu eta gero, eta nazio bat bestearekin lotuaz ere berdin, beti egiten da. "Politika egitea" aberri egitea da. Hola edo hala. Gizartea bide batez ala bestez eramatea, aberri egitea da.

Horixe da, agian, nazio arazoaz dihardugunean, aski kontsideratzen ez dena. Proletario izan ala burges izan, aurretiazko gizarte edo harreman egitura batetan, sorterritatu eta aberri batetan, sortzen da gizona. Zernahi ere egin, aurretiazko haiek modifikatzen ari da.

Aberriak, esan dugu, alderdi "eternal" (Lenin) edo "natural" (Bakunin) bat dizu, sorterritatu dituguna, edozein jokabiderek nola edo hala itxuratzen dena: desnaturalki, burgesiaren jokabidez; naturalki, proletalgoarenez.

Zer esan nahi du horrek? Gizona komunitatean bizi da. Produktzioa elkartasunean egiten da. Marxek ondo ikusi zuen, produktzioan, lanean, ari direla, gizonak beren arteko harreman berezi batzuez elkartzen zirela, sendi, klan, tribu, herri, naziotan, lagunarte naturaletan, gizaki bakoitzaren-

tzat elkartasun egitamu hau —bere ezaugarriekin: hizkuntza, etab.— haren natura bezala gertatzen delarik. (“Odol, hizkuntza eta ohituren batasunezko” estruktura horixe delako gizaki bakoitzaren natura bezala; eta gizona dena, izan, horrexek egina duelako: gizarte harremanen bilduma bait da gizabanakoa) (1).

Agian metafisika antza hartzen zaio guzti honi: aberri “eternala”, aberri “naturala”, produzitzailearen “natura”... Gizona —beraz, gizonaren historia, gizartea, kultura, etab.— ez dagoela klase kategoria hutsetan pentsatzerik, esan izan denean (eta azken urteotan sarri esan da, Euskal Herrian, marxismoaren eta nazio arazoaren inguruan hain zuzen), protesta eskandalizatuak sortu dira asko moduzko marxista askoren artean. Gizon konkretua euskalduna, txinoa, kubanoa, dela, esaten zen, eta ez “produzitzaile” hutsa, proletari hutsa. Eta hori, egia franko sinplea bada ere, haserregarria gertatzen zitzaion askori. Ekonomizismoaren zama astunak zanpatzen gaitu; gatibu gauz-kate eskema tradizionalen sare herstuek.

Izan ere, marxismoa eta leninismoa guri mediatu dizkigutenean, tankera ekonomizistan ezean, estatalismoaren filtroetatik ondo iragazita mediatu dizkigute halafede. Marxismoa, leninismoa, Autore frantzes edo espainoletan estudiantu izan ditugu guk gehienbat; komunista frantzes edo espainolen praksian ikasi ditugu. Eta halaxe luzitu da gero hemengo sozialismoa! Marxismoak, egia da, desarroilo teoriko handia eragin du produkzio konzeptuak lantzen eta

(1) «Natural», «eternal», hitz oso desegokiak dira. Soziologilari gehienak nazioaren ezaugarri «objetiboek» mintzatu ohi dira, sarriago, objektu berari erreferituaz. Beharbada mintzamolde egokiagoa duzu hori. Etnia, hizkuntza, etab., entitate objetiboak dira, zer duda. Marxek, behin baino gehiagotan, *El Capital-en* III-gn liburukian adibidez, entitate *natural* izendatzen ditu, eta horiekiko dohainak eta ezaugarriak *características innatas* bezala hartzen ditu (nazioak eta arrazak aipatzen ditu berak entitate natural gisa). Kontuz ibili behar, naturtasun horrekin zer ulertzen den. Inola ere ez du adierazi nahi, arraza eta, Marx baitan, entitate ahistoriko edo antihistoriko direnik; beraz, aldaezin eta historia sozio-ekonomikoaz ikuskizunik gabeko. Hemen, naturala ez zaio historikoari kontrajartzen, artifizialari baino. Bistan dago Lenin ere zein zentzutan mintzatu den aberriaren osagarri «eternalez».

historiaren interpretaziorako tresna bihurtzen. Ia ez du konzeptu horiek besterik landu. Eta bere historian erabili dituen problemengatik ere, kasik ez da konzeptu horietaz baino baliatu. Baina marxismoak badu naturaren konzeptu bat ere, konzeptualizazio oso simple batetan geratu arren gero praksian barruti hau guztia. Alegia, produzitzaileak, produzitzaile ezezen bera ere produzitua denez, badizu natura bat, Marxek “odol, hizkuntza eta ohituren batasunean” ikusi duena, Leninek aberri eternalean. Marxismoaren alderdi hori ez da batere desarroilatu. Alderantziz, erabat zabartu da, edo ezkutatu da, edo, berrikiago, Marx gaztearen gaztekeria bezala erdeinatu da. Alderdi hori likidatu egin da. Kito. Eta susmoak bidezkoa dirudi, marxismoaren murrizketa sospetxoso horrek, bere arrazoiak izan dituela: ideologia estatal dominanteak anti-ideologiari ere bere tankera inposatu dio. Aberri “naturalak” desegin zituen Estatu burgesak, naturaren teoria ere loratu orduko ito du. Estatuaren “bitartez” pentsatzen da beti etorkizuna. Beste leku batzuetan asko inporta ez bazion, Euskal Herrian, sozialismoarentzat fatal izan da ahazpen hori. Leninek aberria eternaltzat jotzen bazuen, eta “proletalgoaren klase borrokan faktore bortitzena” bezala bazeukan aberria, hemen, Euskadin, justu abertzaletasunak sozialismoa inon ez bezala dinamiza zezakeen tokian, sozialismo ofizialak aberriari “sentimentalismo huero” eta “tontería” zeritzan, patxada guztian. “La patria es un error tradicional transmitido de viejísimas generaciones”, eta lasai-lasai.

Marxismoak, nazionalismoak eta nazio arazoak esplikatzeko, konzeptu tresneria egokirik ez daukala, irakurtzen da orain nonahi. Harrigarria ote da? Marxismoa, Estatuetako sozialistek desarroilatu dute. Madrilen eta Parisen. Uste gabe ere, horiek, Estatuan zeuden eta, estatalismoaren bidetik pentsatu dute, produkzioaren desarroiloaren bidetik eta haren produktu politikoenetik, egiten ari ziren Estatuaren ezespina bera, harek inposatu markuetan egin, azkenean estatalismo haren baitespen bihurtzen zela...

Sozialismoa arrotz gelditu zaio herri honi. Etsai bihurtu zaio. Mende erdi tragiko bat, herriarentzat adina tragiko sozialismoarentzat: amorratuki elkar borrokatzen pasa dute denbora, sozialismoak eta abertzaletasunak, bi anaiak.

Marxismo historikoak desarroilatu gabe utzi duen alderdi hori, marxismora etorri nondik etorri den, begiratu, argi genezake piska bat beharbada:: Rousseaugana itzuliz, beraz, - eta, tradizio europar iraultzailean, marxismoak zer nahi duen, berkontsideratu.

Marxismoak gizona askatu nahi du, h.d., bere gizatasun jatorrera itzularazi nahi du. Historian zehar mila zampaketak eta lan, klase, kultura, responsabilitate, birrintaketak, bere buruari arrotz duen gizonari bere natura itzuli (eta "natura" ez dugu era metafisikoan ulertzen). Gizona gizon bihurtu. Gizon naturalaren konzeptua, ordea, aberri naturalarena bezala, Rousseurena da.

Rousseuren "gizon naturala" ez da, Voltairek eta, ridikulizatu nahi izan duten sinplekeria. Europako tradizio iraultzailean sekulako arrakasta izan du. Eta Marx baitan, Engels baitan, Lenin baitan, izan duen eragina, inorentzat sekretorik ez da. Guri, Rousseau ere, espainolen eta frantzesen, h.d., beste arazo batzuekin enplegatzen ziren eta beste galdera batzuei erantzuna bilatzen zieten teorikoen mediazioz heldu zaigu eta agian ez da alferrik izango, Rousseuren alderdi utzi samartu batzuk xehekiago aipatzea.

Rousseuren gizon naturala konstrukzio teoriko bat da. Izan, inoiz ez da izan, holako gizonik. Baina modelo bat da, oraingo gizonaren antinaturaltasuna esplikatzeko. Rousseauk (Engelsek zeritzanez, Hegel sortu baino lehenagotik dialektikoak), gizona nola heldu den hain galduta egotera, esplikatu nahi du. Eta zertan datzan gizon "zibilizatuaren" galdutasuna. Gizona bere naturaren kontrako antolaera sozialetan bizi dela, erantzungo du.

Hemen ere, gu, antinaturaltasunaren kapituluan hasten gara Rousseau ezagutzen. Alegia, jabetza usurpatuaz gizarte zibila asmatu omen zuen harekin. Baina usurpatzai-

learen aurretik badago beste gizarte zibil bat, naturala hura, nolarebait Leninen “aberri eternalarekin” koinziditzen duena, orain guri inporta diguna.

Rousseuren hipotesi heuristikoa bi “gizon natural” mota dago, edo gizon naturalaren bi maila diferente, naturtasunaren bi grado (berezkuntza hau ez ikustetik sortzen bait da, Rousseauk giza-abere primitibora itzularazi nahi omen gaituelako ipuina). Lehenengoan, bakar-bakarrik bizi den basatia daukagu (“homme sauvage”), ez hizkuntza, ez arrazoimen, ez harreman iraunkorrik inorekin (emearekin edo harrarekin ere), ez inolako sozialtasunik, oraindik desarroilatu duena, abereetatik bere nahimenagatik bakarrik berezten dena, ez on eta ez gaizto, premoral: gizabanako hutsa, soil-soila. Gizatasunaren abstrahikuntza bat funtsean. Bigarren, ordea, gizon konkretua dago, naturala bera ere, baina soziala, bere dohain bereziekin: “gizon natural” soziala, jatorrizko bere naturtasuna galdu gabe soziala, hots, “barbaroa”, Rousseauk esango duenez, lehen gizarteko jendea, familiadun, mintzairadun, etab. jadanik, bere sozialtasun eta kualitate moralekin. Gizonok ere naturalak dira. Gizon naturalezko gizarteok, nazio barbaroak, ez dituzte legeek elkar lotzen, baina “moeurs” eta “caractère”. Nazio barbaruok dira gizarte batzuk, ohitura, mintzaira, karaktere, berdinak dauzkatena, eta elkartasunean bizitzeko beste legerik eta elkargarririk behar ez dutenak, elkartasun guztiz naturalean bizi direnez gero. Horrela pasatzen gara, beraz, gizabanakotik gizaartera. Gizaartea “nazio barbaroz” abiatzen da: “de petites nations que peuvent se réunir”, Montesquieuk, lehenago, adierazi zuen moduan. Artzain herriak, Montesquieuren eta Rousseuren ustez. Beraz, lege eta arauetzko *gizarte politikoaren* aurretik, ohitura eta karakterezko elkartasun edo *gizarte naturala* dago: «Los hombres... se réunissent en divers troupes, et forment enfin dans chaque contrée une *nation particulière*, unie de moeurs et de caractères, non par des règlements et des lois, mais par le même

genre de vie et d'aliments, et par l'influence commune du climat". Formazio antinaturalak, jabetza eta, geroago hasiko dira gizarte natural hau puskatzen. Handik sortuko dira legeak, etab., kontrato sozialaren beharra. Hor daukagu, bada, Leninen betiko aberria, gizarte nazionala; Marxek produzitzailearen natura bezala dezinatu zuen "odol, etc. batasuna"; Engelsek, gure Arana Goirik bezalaxe (eta Bakuninek berdin) "arraza" izendatzen zuena. Produkzioaren —edo dialektikaren— "beste alderdia".

Orain alde bat utz genezake, nola gerozko desarroilo dialektikoan progresoa eta gizonaren gainbehera eskuz-esku doazen, Rousseauk, Engelsi asko gustatzen zitzaion modu batetan, azaldu duenez, egungo miseriara iristeraino. "Zibilizazioak", organizazio geroz eta konplikatu eta perfektionatuagoak ekarri ditu. Baina gizona bere sustrai naturalatik arras atereaz. Lan banaketak, bata besteren dependentzia ekarri du (gizon naturalaren dohain eta grina independentzia delarik); jabetzak, morrontza, etab. Denak denen etsai bihurtu dira. Lehen lanerako lagun eta lankide bezala elkartzen zirenak, orain morroin eta nagusi bezala elkartuko dira. Lehen bere lana zuenak, orain bestek emandako lanean aritu beharko du. Lehengo laguna, lehiakide da orain, etc. Gizonaren ontasun naturalak ezer ez dezake egoera honetan: kondizioek nahitaez egoista bihurtzen dute. Elkar bizitzarik posible izango bada, eta denek bata bestea garbituko ez badute eta kaos ikaragarri bat sortuko ez bada, ordenu piska bat egiteko, itun bat behar, kontrato sozial bat asmatu behar, bakoitza bere kondizioetan lotuko duena. Baina gizon zibilizatuok ez dira naturalak, baina "d'hommes artificiels", haren birtuteak ere artifizialki sortu beharra egon bait da, gizarteak nolabait funtziona dezan. Hemen Rousseauk egin duen gizarte burgesaren edo "zibilizatuaren" deskribizioa, Hobbesen edo Mandevilleren berbera da funtsean, eta gero Marxek bereganatu eta sakondu duena, hortaratzeko prozesorearen arrazoiak Marxek askoz zientifikoago aztertu baiditu ere.

Hemen dagoen alternatiba, haxe da: abiatzeko, denak denen kontra dabiltzala, konstatzen da. Orduan, galdera da, ea hori, 1. gizonak *berez* holakoxeak direlako, gertatzen den (Hobbes), gizonak otsoak direlako, ala 2. berez bestelakoak izan arren, zerbaitek hortaratzen dituelako (Rousseau, Marx). Beraz, hola edo hala erantzun, giza naturaren galdera planteatzen da. Alfer-alferrik da marxismoa naturaren konzeptu "humanista" gaberik edo, berrasmatzen enpeinatzea: marxismoa, historian, hauzi horrexen erdi-erditik sortua da; historikoki ez da egia, Marx zaharrak holako konzeptuak abandonatu zituenik, ez inplizito eta ez esplizitoki; plusbalioaren konzeptuak berak, inplizitoki giza naturaren konzeptu bat suposatzen du, balioarena ere suposatuz (absurdua litzateke, arbola bati buruz haren produktuengatik, edo otso talde batetan gertatzen denari buruz lan gutiago egin eta gehiago jaten duenagatik, plusbalio konzepturik sartzea). Beraz, denak denen kontra ibiltzea, gizonak berezkoa duela, esango da: joera pesimista, demokratikoa; edo ez duela berezkoa, kondizioak aldatuz gero bestetara daitekeela, esango da: joera optimista, iraultzailea. Baina beti ere naturaren batekin jokoan. Azkeneko hauek, gizona ibili horrela badabil, *zergatik* dabilen horrela, berez horrelakoa ez bada, erakutsi beharko dute (egoeraren analisia eta kritika), eta zer eginez gero, ibiliko litzatekeen bestela (iraultzaren teoria). Beraz, iraultza *nahirik* baldin badago (iraultzaren automatismoan erori nahi ez badugu), natura konzepturen bat eta balorazioak nahitaezkoak ditugu.

Gaitzaren analisia eta kritika, badakigu Marxek oso bestelakoa egin duela Rousseauk baino. Egoeraren erremedioa Rousseauk nondik bilatzen duen, ikusiko dugu. Marxistek apenas desarroilatu duten beste puntu bat, hau ere. Rousseau konkretuagoa izan da guzti honetan.

Marxistek, tradizio iraultzaile guztiarekin, diotenez, gizonak bere dohain naturalak libre-libre desarroilatu ahal izango ditu gizarte berrian; gizonak arras libre eta natu-

ralki desarroilatu ahal izango dituzte harremanak beren artean, etab. Gizonak bizitza naturala eramango du, hots, dagokiona. Hortarako beharko diren urratsak, *negatiboak*, erraz samar aipatu ohi dira globalki: desegin beharko den guztia; *positiboak*, inork ezin ditu asmatu nonbait: nola muntatu gizarte berria. Marxek oso guti esan du, gauza konkretu zehatzik, muntaketa berri honi buruz. Baina ezin ahantz genezake, Marx, tradizio iraultzaile arrunt batetan zegoela, eta tradizio hortako irudipen arruntak konpartitzen zituela, bere garaiko iraultzaile guztien modura. Beraz, neurri on batetan hain zuen Rousseauk zabaldu zituen irudipen global batzuk zituela geroari buruz, seinalatu beharrezko diferentzia inportanteak badituzte ere.

Gizarte berriak beharko dituen kondizio objetiboak eta subjektiboak berezi ohi dira. Objektiboak, hots, gizonaren naturari dagokion antolaera sozial eta politikoa, Rousseauren ustez gizadia errepublika ttipitan organizatuz eta konfederatuz bakarrik eskura liteke. Estatuko postu denek edozeinen eskuramenean egon behar dute (Leninek, gizarte sozialistan edozein etxekandere Estatu buruzagi izan litekeela, esanez, agintzen zuena). Bestela, Estatu haundi zabaletan, transparentziarik ez dago, demokraziarik ez da posible, gizona ezin identifika daiteke aktiboki osotasunarekin: berriz ere mediazioak, legeak, kontrolak... beharko dira, gizonak ez luke elkartasun naturalik aurkituko. Buru hontan Marxek ez du gauza zehatzik esan, baina, jeneralean, Estatu ttipien kontrarioa zela, esan behar: Rousseauren alderantziz, Marxek irudikatzen zuena, mundu guztia bilduko lukeen Estatu mugagabeak dirudi. Marx basikoki unibertsalista-zentralista zen, teorietan nahiz bere sentiera pertsonaletan. Baina, gaur epaitu ohi denez, Marxen unibertsalismoa, kontsiderazio ekonomikoetan gehiago sustraitzen da, propioki politikoetan baino: izan ere, unibertsalismoa Marx baitan, inon ez dago organizazio problema politiko bezala planteatuta. Unibertsalismoa predikatzen da, baina ez da hitz bat esaten, unibertsalis-

moari zein antolaera politiko eman. Balio ere, unibertsalismo abstraktuak, apenas balio du organizazio printzipio politiko bezala, Estatu zentralista munstroak organizatzeko ezpada. Rousseuren bideanago Proudhon, edo Bakunin, ibili dira. Honez gero, halare, erabakimen instantziak deserdira beharra, gutienez, marxistek ere proklamatzeko di-zute. Tradizio jakobino zentralistaren aurka, Rousseauk arrazoi atera du. Eta marxismoak ere jakobinismo zentralistik Rousseau aldera eboluzionatzen du.

Kondizio subjektiboak objektiboekin erlazioan ikusi behar dira, edo viceversa. Errepublikak ttipia izan behar du: gizonak harekin aktiboki eta naturalki identifikatu ahal izateko adinakoa. Polonia, esate baterako, herri handia da: Rousseauk 33 errepublika ttipitan konfederatzea proposatzen du... Izan ere, organizazio haundi, anonimo bategen nahitaz tiranian bukatzen duela, uste du Rousseauk: lokarri sozialak, ahulak eta nahasiak dira, eta elkertasun hersturik gabe (“sans aucune véritable union”), libertateak ez du defentsarik, gizartea atomizatu egiten da ta. Askatasunaren defentsa hoberena, edozein eraso eta tiraniatatik, elkertasun komunitaria da, errepublika ttipitan bakarrik bait da hori posible. “Il est de la nature d’une république qu’elle n’ait qu’un petit territoire; sans cela elle ne peut guère subsister... Dans une grande république, le bien commun est sacrifié à mille considérations, il est subordonné à des exceptions... Dans une petite, le bien public est mieux senti, mieux connu, plus près de chaque citoyen, les abus y sont moins étendus”, zeritzan Montesquieuk ere. Rousseauk ttipitasuna azpimarkatu du (duda gabe, bere Geneve hiri-republikanoa, Konfederazio Helvetikoan, eta monarkia absolutista frantsesa alderatzen zituelako). Baina, inportantzia duena, haundi ttipiak gora behera, herriak bere burua komunitate sentitzea da, kontrato sozial demokratikoa, “herriak bere buruarekin egingako kontratoa” izan dadin egiaz. Beraz, lehenengoa, beti ere, herria zinez herri bat izatea da (“acte par lequel un

peuple est un peuple”), hots, komunitate bat. Hizkuntzak eta, badakigu, eta hori azpimarkatu ohi dugu guk, gizatalde bat komunitate bihurtzeko, ez duela zerikusi gutiago. Baina hori dena Rousseauk ezin har zezakeen aintzat oraindik.

Oinarrizko baldinkizun hortan bategiten dute gizarte berriaren kondizio objetibo eta subjektiboek: errepublikak komunitate bat izan behar du, elkartasun natural bat, pisika bat “nazio barbaroaren” sentidoan, guztien artean kolaborantza izpiritu natural batek inpera dezan, ez legeen eta inposamenen tiraniak. “La loi n’agit qu’en dehors et ne règle que les actions; les moeurs seuls pénètrent intérieurement et dirigent les volontés”. Barne lotura hori gabe, gizartea ez da “agrégation” besterik, ez “association libre”; “multitude”, baina ez “un peuple”. Eta hortxe dago kakoa.

Gogoratzen dugunez, ohiturak eta usadioak dira, herri edo nazio “barbaro” bati koherentzia barru-barrutik ematen diotenak. Bere koherentzia naturala, sakona, kanpotik edo gaintetik inposatu gabekoa. Nazioari, komunitateari, koherentzia ematen dioten faktoreen artean, artifizialak (esan dezagun: deprabaziotik sortuak, hala nola monarkia bat, esate baterako, edo mugak) eta naturalak berezten dira. Rousseau baitan faktore naturalek sekulako inportantzia hartzen dute: ohiturek eta usadio zaharrek (“usages et lois”). Horiek, herriaren sentiera adierazi ezezen, eta “herriaren moralak” ezezen, komunitate batasunaren euskarria bait dira: borondate kolektiboaren, autokonzientziaren, espresio eta oinarri batera. Herri bakoitzak bere ohiturak ditu: ohituraok, herria bere baitan elkartu, egiten dute alde batetik; beste aldetik, herriak bata besteagandik diferentziatu, gizadia masa amorfe bat bilaka ez dadin. Errepublikak, bere hiritarrak hezi behar dituela, herri berezitasunetan hezi behar du hiritarra. Rousseauk inportantzia haundia ematen dio folkloreari hiritarra hezitzeko: herri festa, kirol, dantza, etab. (eta egun

ikusten dugunez, ez dago folklorea gehiago kultibatzen duen Estaturik, sozialistak baino). Huskeriarik hutsalenak berak aski inportanteak iruditzen zaizkio Rousseauri: jazkerak, esate baterako. Poloniak bere jantzi tipikoak kontserbatzen dituela ta, abantaila bat iruditzen zaio Rousseauri, eta derrigor zaindu egin behar dituela, esango du; harro-harro egon daitezkeela poloniarrek, berezgarri hori badutelako. Inportantea ez bait da, berezgarriak nolakoak diren, berezgarri izatea baino. Herri baten nortasunari eta kolektibitateak bere buruarekin garbi eta oso-osorik identifikatu ahal izateari, hainbesteko inportantzia eman-go dio, “ohitura garbien” apologista harrigarria izango bait dugu Rousseau, euskal tradizio luze baten modura, kutsapen eta nahasketa ororen etsai bizi, are isolazionista: “Ces usages, fussent-ils indifférents, fussent-ils mauvais même à certains égards, pourvu qu’ils ne le soient pas essentiellement, auront toujours l’avantage d’affectionner les Polonais à leur pays, et de leur donner une répugnance naturelle à se mêler avec l’étranger. Je regarde comme un bonheur qu’ils aient un habillement particulier. Conservez avec soin cet avantage”. Komunitate bakoitzak bere identitateari eutsi behar dio. Ez nazionalismo zororen batengatik; ezpada identitate horrek, “réglements et lois” guztiek baino hobeto lotzen duelako gizarte bat, eta sakonago, eta —inportanteena— naturaren araberago. Horrela gizarteak berak lotzen bait du bere burua, ez inposamenen batek. Identitate hortan sortzen da eta desarroitzen da elkartasun naturala.

Guzti honetan, Lenin, Marx baino gertuago dabil Rousseaugandik. Hasierako jarrera Estatu haundi zale eta zentralistatik eboluzionatuz joan da nazioen autonomia eta konfederakuntza aldera. Sorterriaren maitasuna erreparorik gabe goratu du. Leninek, “gizon berriaren” hezkuntzarako, nazio hizkuntzaren, kulturaren, folkloreak, historiaren, geografiaren beraren, maitasuna, laguntza haundi bezala hartuko ditu. Eta “gizon berria” maitasun ho-

rietxetan hezi behar dela, irakatsiko du. Seinalagarri bait da, gizon berriaren hezkuntzan, folkloreak, edo historia eta geografia nazionalak ongi ezagutzearen, inportantzia, Rousseauk azpimarkatzen zuela: lehenengo ezagutu egin behar bait da gizartea, gizartearekin identifikatzeko.

Rousseauren errepublikan, denak denen etsai ordez, denak denen lagun, bilaka daitezten, abertzaletasunak izan behar du oinarritzko birtutea: “amour pour la patrie”. Funtsean, “patriotikoak” dira birtute denak, edo ez dira. Zinez sozial izate adina bait da patriotiko izatea.

Rousseauren errepublikan, gizonak —hiritarrak— gorputz sozial osoarekin bat egin behar du. Banako bezala desagertu (bere interes partikularrekin). Osotasuna bilakatu. “Membre de la patrie” sentitu behar du oso-osorik bere burua. Hiritar oso izanez iritsiko da giza osotasunera (“nous ne devenons proprement hommes qu’après avoir été citoyens”): hots, basatia nazionalitatean iristen da humanitatera. Horra gizon naturalaren prozesoa, gizabanakotatik hiritartara, bere naturtasuna galdu gabe. Hiritar hori, Rousseauren —eta Leninek berdintsu zion— esateko moduan, zinez hiritar aktibo, abertzalegatik da: abertzaleari ezin berdin izan dakioko, aberriak —bere komunitateak— askatasunik duen ala ez, justifiziarik ala ez, tirania ala demokrazia... Abertzaletasuna da, beraz, hiritarraren oinarritzko birtutea, aberriarentzat antolaera zuzenena bilatzera daragiena, injustizia erazterea, askatasuno konkistatzera. “Tout vrai républicain suça avec la lait de sa mère l’amour de sa patrie: c’est à dire, des lois et de la liberté”. Askatasuna maitatzea, justizia maitatzea, ez bait da printzipioren batzuk, ideiaen batzuk, maitatzea, lagun konkretuak —aberria— maitatzea baino.

Askotan ridikuloa iruditzen bazaigu ere, gutiz linea honetan dago, Estatu sozialistek egun dagitena, produkzioa jasotzeko edo zafrako lan “patriotikora” deitzen dutenean. “Aberrigintza sozialista” bezala ulertzen dute beren ekintza.

“Nos sentimos llenos de orgullo nacional”, hotsegingo du Leninek proletalgo errusoarengatik. Eta Rousseauk uste du, harrokeria (“orgueil”, “fierté”, banitateari kontrastatuz esango duenez) horixe dela, hiritarra egiazki dinamizatzen duena, kolektibitatearen bizitzan aktiboki parte hartzera, zein baino zeinek, elkarren lehian, denek ahaleginez, aberriaren egoera beti hobetzen.

Errusian, ba, proletalgoak zilegi zuen Errusiaren haunditasunaz eta edertasunaz harrotzea. Eta Lenini gizon berraren pedagogian inportantea iruditzen zitzaion, langileari Errusiako historiako kapitulu loriatsuenak irakastea; errusiararen edertasuna eta aberastasuna azaltzea; eskursioak antolatzea, langileok Errusiako parajeen, mendien eta ordeka zabalen, edertasuna ikus zezaten, eta ikas zezaten maitatzen (eta ikas zezaten parajeok pintatzen ere, langileentzat kursoak antolatzen bait ziren hortarakoxe); langile eta soldadu koruak sortzea, errusiar kanta ederrak abesteko, etab., etab., komunitatearen barne loturak indartzeko eta herutzeko, kapitalismoak isolaturiko gizona berriro komunitatean senti zedin.

Hemen, gure Euskaditxo xaharrean, makina bat jende badabil bere eginahalak egiten, interes mendizale piska bat iratzartzen, edo dantzak irakasten, edo txistulari eskolak antolatzen, kanta zaharrak berbizten, bertsolaritza indarberritzen, edo jainkoak daki zer asmatzen, komunitate honi barnea biolentoki hustu zaionez gero, barne bizitza piska bat itzuli nahiez. Hamaika lan klase dago. Aspaldian hori. Eta makina bat jendek, makina bat borondate on kastatu du, egunetan eta urteetan, makina bat sakrifizioz, desegindako herri zaharrari eutsi nahita. Holako lanetan, sozialistek eta komunistek, ez dugu esango, larogei urte honetan, beren ausentziagatik diztiratu dutela, benetan diztiranteagoak beren mespretxu olinpikoak eta burlak izan bait dira, lan klaseoi buruz, beti. Zoro sentimental batzuk iruditu zaizkie beti langile horiek... Beroiek, hala diote, ez daude independentziaren alde. Baina

independentziarik bai ala ez baino askoz lehenago daude agian kontuak erabakita, beste hauziotarako iadanik gauzak hain erabakita dauzkatenean, oraindik independentziaren arazotik urruntxo gabiltzan arren! Euskadiren independentzia nahi ez omen duten horiek, Euskadiren gauza asko ez dute nahi nonbait.

Hemengo sozialismoarentzat, egiaz, ez da ikusten, Euskadi konzeptu geografiko huts-hutsa baino zer gehiago daten eta zer positibotara obligatzen duen. Alegia, Euskadin “nazionalismo” bat baldin badago, sozialistek (ortodoxoek, zaharrek nahiz berriek) kontuan hartu beharko dute eta, segun Alderdien arteko norgehiagokak zenbat behartu, egin ere abertzale itxura piska bat egin beharko dute. Baina, dirudenez, kontuan hartzen dutena nazionalismoa da, ez nazioa. Aktibitatearen bat desarroilatzen badute, hortakoz, nazionalismoari begira izango da, ez nazioari begira.

Hona hemen puntu sintomatiko bat: hemen, internazionalismoa eta unibertsalismoa, inolako mugapenik gabe eta sendo eta seguru predikatzen dira, printzipio erabateko eta absoluto bezala. Espainian edo Italian (Carrillok edo Berlinguerek, beraz), internazionalismorik ez da aipatzen, segituan limitazioaren batzuk egin gabe, eta justu herri horietako berezitasunen aipamen asko egiten da. Estatu sozialistetako edozein liburutan, internazionalismo sozialistari beti kosmopolitismoa kontrastatzen zaio eta beti “burgesa” adjektiboz agertzen da hitz hori: “kosmopolitismo burgesa». Internazionalismoa aipatzen den gutietan, gizadi guztia gizarte bat eta berdina bezala hartzen duen “kosmopolitismo burgesa” ridikulizatzen dela, ikusten dugu. Hemengo sozialistak, ez “kosmopolitismo burgesa” ridikulizatzen eta ez bertoko berezitasunik aipatzen, asko nekatu dira. Zaila ote da asmatzen zergatik? Hortan ere, ordea, Lenin guztiz Rousseuren linean dago, eta agian hemengo sozialistak dira, Leninen linean ez daudenak, Lenin beren linean datorkienean izan ezik.

Kosmopolitismoa (leninistek “burgesa” ohi deritzotena), Leninek bezalaxe ridikulizatzen zuen Rousseauk: inor ez maitatzeagatik, denak maitatzen dituen; edo, gertukoak ez maitatzeagatik, urrutikoak maite dituen; edo, “mundua maitatzen dutela, loriatzen dira, horrela eskubidea dutelakoan, inor ez benetan maitatzeko”. Kosmopolitismoa, dagoena utziaz, ez dagoen gizarte (ametssetako) bat maitatzea da. Nork bere ametsak maitatzea. Justu hemen egin dena: euskal gizartearen ordez, espainola maitatzen dela, ez esateagatik, internazionalismo edo unibertsalismo abstraktu batetan refujiatu bait dira beti hemengo sozialistak. Mundu zabala zen Meaberen aberri mistikoa...

Rousseauk bazekien, industriak, salerosketak, herrien arteko mugak hautsi dituztela eta mundu guztia gizarte bat bakarra bihurtarazi. Burgesiak, herri denak atera ditu beren bakartadetik eta negozio berbatetan enplegatu. Honez gero mundu guztiak elkarrekin eskuz-esku lan egiten du. Produktzioaren eta merkatalgoaren desarroiloiz, herrien arteko diferentziak xahutuz joan dira. Mundua berdinduz eta herstu-herstu lotuz doa. Badago, bai, herrien eta nazioen gainteko “gizarte” hori, elkartasun hori, progreso ekonomikoak eragina, interes ekonomikoetan oinarritua. Eta ikusten zuen intereson indar gizarte-bateratzailea (“la monnaie est le vrai lien de la société”). Optimismo biribilenez, Rousseuren garaikide askok —Marxek berdintsu egingo duena, ikuspideok ezertan problematizatu gabe— hola sortutako “mundu gizartea”, Erdi Aroko partikularismoen eta nazionalismoen gaindiapen bezala, guztiz baitesten zuen. Liberalismoari horixe zegokion. Rousseauk ez du ekonomia mundialetik sortutako gizarte mundialik onartzen. H.d., ez du onartzen, hori egiaz gizarte bat denik. Ez bakea, ez libertatea, ez gizonen arteko bizitza egiaz humanoa, oinarri litezkeela eta garantiza litezkeela, uste zuen, modu hortan. Aitzitik, askatasuna eta elkartasun naturala zehatzeko eta edozein tirania berritarako biderik hoberena iruditzen zitzaion bide hori, hots, gizarte po-

litikoa gizarte ekonomikotik deribatzea, gizarte “naturaletik” egin ordez. Eta, iraultza ostean, Leninek ez zuen Montan Union sobietar bat organizatu, errepublika sobietar autonomoen elkarte baina. Gizarte bizitza humano baten zerbitzuan egon behar bait du organizazio ekonomikoak, ez alderantziz.

Guk ez dugu Marx isolatuta irakurtzen. Tradizio iraultzaile europarraren barruan irakurtzen dugu. Beste hainbatekin batera. Esklusibismorik gabe. Dogmatismorik gabe. Bere historian eta bere historiarekin.

Arrazoi historiko jakin batzuegatik, teoria marxista, konzeptu sozio-ekonomikoen eta haietatik deribatuen desarroiloan erraldoi bat bilakatu da; nano bat geratu da, nazio, herri eta beste “natur” konzeptuen desarroiloan. Halare marxismoa nagusitu izan den herrietan, herriok beren autokontzientzia berri batetara iritsi direla, herri bezala, ikusten dugu. Argi eta garbi, sozialismo garaileak “patriotiko” aitortzen du bere burua (Sobiet Batasunean, Kuban, nonahi); sozialismo borrokariak ere patriotiko aitortzen digu bere burua honez gero nonahi (Vietnamen, etab.). Errealitateon gainean, marxismoak beste desarroilo bat ezagutu du, oposizio hutsean ari ziren XIX. gn mendeko masa proletarien gainean baina. Hemengo sozialismoaz (ortodoxoaz), aldiz, ezin esan genezake, alderdi hau ez duela desarroilatu bakarrik; baizik eta, desarroilatzen ari zirenak borrokatu egin dituela, itsu-itsu, alderdi hori politikoki desarroilatzen zutenak ezezen, kulturalki desarroilatzen zutenak berak ere (euskalzaleak, esate baterako), eta geroko marxismoaren eboluzioari ere ez diola jarraitu. Euskal Herrian, beste arrazoi batzuegatik, baina Europa gehieneko antzera, abertzale izatea ala sozialista izatea, alternatiba moduan hasi dira, bata bestea ukatuz. Baina gure historiako fase horren ondoren, sozialismoaren eta abertzaletasunaren sintesia dator, fase berri bat. Ez genuke esango, oraindik sintesi perfektoa daukagunik. Perfekzioa ez da historiaren kalitatea. Baina garbi dagoe-

na, zera da: geroz eta jende gehiagok alternatiba hori nola edo hala gaindiatu egin nahi duela, euskal herri xehea, langilea, erdibitu duen eta erdi bata besteari konfrontatu duen dualismoa behin betiko bukatzeko. Hori, ordea, ezin egingo da, euskal herri honek bere burua komunitate bezala berrezagatuz baino.

Euskadik independentzia behar duen ala ez, eta zein puntutan, eta nolakoa; edo Autonomi Estatutu bat hobe ote lukeen, eta nolakoa, etab., kontsiderazio desberdin askoren buruan bakarrik erantzun litezke eta sozialistek ere galdera horiei erantzun diferenteak ematea, bidezkoa da. Agian ezinbestezkoa da, eritzi diferenteak egotea, Euskal Herria komunitate bezala bururatzeko moduan ere eta handik deribatzen diren konklusioetan: elebitasuna, etab. Komunitate bat egin nahita, desegitea, erraza bait da zenbait radikalismorekin. Dohain politiko bat zuhurtasuna da. Holako diferentziak gora behera, ordea, euskal herria komunitate bezala berregiteko xedeak eta helburuak, sozialista abertzalearen lehenengo jomuga izan behar du.

Besteak beste, euskal herria —*herria*— sozialistatan eta abertzaletan erdibitu bazen, komunitatea bera puskatuta zegoelako, gertatu zen. Haustura modu asko du euskal komunitateak: administraziozkoak, elizazkoak, kulturalak, politikoak, ekonomiko eta sozialak, beharbada geografiko eta klimatikoak ere aipa bait litezke. Komunitate mila eratan hautsia gara. Hortik hasi behar.

Euskal Herrian bizi dena, egoera horrekin konfrontaturik aurkitzen bait da, zerbait hasi nahi duen orduko. Klase eskema hutsek, edo sozialismo ortodoxoen estrategiek, aski jasotzen ez zuten egoera horrekin. “Todo campesino y trabajador polaco —idatzi du Engelsek—, que de la apatía despierta a la participación en asuntos de interés común, en primer lugar tropieza con el hecho de la opresión nacional. En todas partes choca siempre con ella como primer obstáculo en su camino. Eliminarla es la condición básica previa para todo desarrollo sano y

libre”. Hemen, lehenengo aurkitzen den traba hori, komunitatearen haustura da. Politikak adina langile mogimenduak, Alderdiek zein sindikatoek, garbi-garbi isladatzen dute komunitatearen haustura. Eta “eliminarla es la condición básica previa para todo desarrollo sano y libre”. Ezin eliminatuko da, ordea, noizpait PSOE-k nahi zuen eran: komunitate hau *euskal* komunitate bezala kualifikatzen duen dena (euskara, etc.) eliminatuz. Hortaraz gero, soluzio bat litzateke hori ere, bai. Soluzio bat litzatekeen bezala, Aranak proposatzen zuena: “maketoak” Euskadiko bizitza politikotik arras eliminatzea. Euskal Herrian komunitate bat eta bakarra iristeko bide seguruenak, horiek dira!... Sozialismo abertzaleak, alternatibismo eta antinomia horiek utzi, eta beste bide bat hartu du: alderdi bien errespetutik hasi eta bion integratziora jo. Erabateko integrazioa bakarrik izan liteke gizarte sozialista baten oinarri posible bakarra. Sozialismorako —proletalgoaren nagusiarazteko— bide bakarra, aberri-gintza da; aberri-gintzarako bidea, sozialismoa.

Langilea ere beti konkretua dela —euskalduna, txinoa, kubanoa— esatea, ez da bestegatik sinplea, oinarri-oinarrizkoa delako baino. Hemen azpimarkatu beharra egon den egia sinplea: ahaztuta zegoen proportzio berean azpimarkatu beharra, hain zuzen. Izan ere, Marxek esan bezala, lan harreman modu batzuetan sortzen den eta sartzen den gizona, lagunarte natural batzuetan ere sortzen da (sendi, klan, tribu, herri, etab.); hots, “odol, etc. batasunezko” lagunarte batetan, edo *arraza* batetan (berau ere produkzio faktore bat, gogoratuko denez); hots, sorterrian.

Beraz, gizasemea komunitate natural edo aberri “eternal” hortan sortzen da, *sort-herrian* hain zuzen, eta horren baitan aritzen da beti ere, zernahitan ari dela. Egiten duen guziarekin eta guzian, gizonak ez du natura, sorterria kasu honetan, transformatu besterik egiten.

Gizaseme bizia ez da gizaki “generikoren” bat, abstraktua; ez da presupostu gabeko espazio hutsen batetan

ari, bere “natura” dizun komunitate konkretu horren barruan eta horren zati bezala baino. Eta, produkzio prozesuan, esklaberia sortu, feudalismoa, kapitalismoa ala sozialismoa, beti ari da “natura” haren desarroilo batetan: komunitatearen desarroiloan, eta, horregatixe, bere buruaren desarroiloan. Hura, aldakaitz ez, baina konstante bait da, produkzio molde guzietan nahiz klase guzientzat. Leninek esaten zuena, “errusiar bera” dela feudalismoan bizi zena eta errejimen sobietarrean bizi dena. Baina hori posible da, norbait “errusiar” egiten duen natura, komunitatea, produkzio molde ezberdinen azpitik konstante dagoelako.

Produkzio moldeen historian, komunitate hori, antolaera sozio-ekonomiko eta politiko ezberdinak eraikiaz eta aldatuaz doa; bitartean berak, aldatuaz bai, baina konstante dirauela. Herriak *aberri* diferenteak eratzen dituela, esan genezake (ehundaka eta milaka urtetan gizonak dituen aberri horik, Leninek esaten zigunez). Politika, hots, aberri-gintza, ez da “natura” hari aldiari aldiko antolaera sozio-ekonomiko eta politikoa ematea besterik: esklabista, feudalista, etab. Eta iraultza proletarioaren garaitia ez da besterik izango, “natura” horri azkenean antolaera sozio-ekonomiko eta politiko “naturala” ematea baino.

Euskadin, ordea, politikak, aberri-gintza proletarioak, situazio berezi bat aurkitzen du. Eginkizun berezi bat, hortakoz. “Natura” hori, komunitatea, burgesiak arras birrindu duela. Beraz, desegina berregiteko —komunitate alienatua desalienatzeko, esan genezake mintzamolde korriente batez baliatuz— ez da aski izango, antolaera sozio-ekonomiko eta politiko “natural” bat sortzea soil. Euskadik aspaldion ezagutu dituen sorterriaren edo aberri naturalaren modifikazioak, komunitatearen “eboluzioak”, zitezkeen antinaturalenak izan bait dira. Ez dago zergatik luzatu txikizio horren azalpenean. Euskadi komunitate desegina da. Eta alfer-alferrik litzateke antolaera ekonomiko eta sozio-politiko “natural” bat, komunitate bizitza anti-

natural batekin. (Diglosiaz eta, azken urteotan egin den literatura guztia sartu beharko litzateke hemen).

Horregatik nazio askatasuna ez da helburu eta jomugarik. Ez du beste zenbait lekutan bezalako sentidoa ere. Askatasun nazionalak, Euskadin, ez du nazio askatasun burgesaren sentidoa inolaz ere, nazioaren erdibitzailea; euskal nazioa sozialki nahiz nazionalki komunitate “natural” batetan berriro biltzeko eta berregiteko sentidoa baino. Askatasuna ez da aberrigintzarako medio bat baino. Ezinbestezko medioa. Aberria, beraz, “proletalgoaren klase borrokan faktore bortitzena da” bene-benetan (Lenin).

Berriro esateko:

— euskal proletalgoarentzat, abertzaletasunaren arrazoia ez da demokratismoa.

— Horregatixe, ez da abertzaletasun “demokratikoa”. Abertzaletasun iraultzailea da.

Demokratismoaren patua da, beti ekibokoetan nahastea eta gatiatzea. Ez guziz proletalgoaren eta ez guziz burgesiaren politika egitera erabakitzen da. Ez guziz politika demokratikorik eta ez guziz iraultzailerik. “Abertzale gara, baina...”; “demokrata bai, baina...”. Bai-baina politika. Balizko olarena.

Horixe gertatzen zaio komunista espainolek proklamatzuten duten “autodeterminazioaren printzipioari” ere (jatorriz printzipio demokratiko burges bat bera): funtsean zapalkuntzaren *aurkako* posizio juridiko (demokratiko arrunt) soilaren espresio dela. Ez printzipio positiboki demokratikorik eta ez iraultzailerik garbi izatera ailegatzen da. Edukinik ez du batere. Printzipio formal bat da. Ez du adierazten aberrigintzarako zein proiektu politiko eta sozial egoiki litzatekeen. Nola aberrigintza eraman behar den aurrea, hor konpon uzten da. Beraz, nahitaez printzipio kondizionatua da. Kasu bakoitzean begiratu behar, erabakia nola hartu. Izan ere, plano hortan, bidezko da hori: proletalgoa

ezin egon bait liteke edozein askatasun eta independentzia suizidaren alde.

Euskal proletalgoarentzat, ordea, independentziak edukin jakin eta positibo garbia du: aberrigintza. Horregatik, autodeterminazioaren printzipioak ere edukin bat du eta erabakita dago.

Euskal proletalgoa abertzale baldin bada, ez da, inolaz ere, burgesiaren oinordeko sentitzen delako, edo iraultza burges trunkatu bat bukatzea tokatzen zaigulako. Iraultza aberrigintza delako baino; eta iraultzaren programak, hemen, abertzaletasun radikal bat eskatzen duelako: komunitate "naturala" berregitekotan. Komunitate natural bat eta antolaera sozio-ekonomiko eta politikoa natural bat, biak, izan ditzagun. Euskadi euskaldun eta herritarra: Euskal Herri libre.

EUSKAL KLASIKOAK

AURKIBIDEA

1. Independentzia, internazionalismo	7
2. Internazionalismo, inperialismo	11
3. Nazio, nazioarte: teorian baino praksianago ...	21
4. Bakoitzak bere bakoitzasuna	29
5. Munduaren batasunaren mitoa	39
6. Zama astun baten azpitik	55
7. Proletalgoa - izan daiteke abertzale?	63
8. Abertzale eta internazionalista	81
9. Abertzaletasuna ez da burges	111
10. Nazioa askatu, aberria egin	137